



**Economistas
sin Fronteras**

MgE dosierrak
56. zk, 2025eko negua

NEKAZARITZAREN ETA LANDA MUNDUAREN ETORKIZUNA





AURKIBIDEA

- 4 AURKEZPENA: Nekazaritzaren eta landa munduaren etorkizuna**
José María Sumpsi eta Bárbara Soriano
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- 8 Hazkunde ekonomikoa gizarte- eta lurralde-koheiorik gabe Espainian: trantsizio ekologikoa aldaketarako aukera gisa**
Mercedes Molina Ibáñez
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- 15 Landa-despopulazioaren desorekak: kausa-ondorioen korapiloa**
Luis Camarero
Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- 22 Espainiako nekazaritzaren eraldaketak: nekazaritza ustiatzearen egitura eta errentak**
Eladio Arnalte Alegre eta Dionisio Ortiz Miranda
Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
- 30 Europar Batasuneko nekazaritza- eta landa-politikaren etorkizuna**
Isabel Bardají Azcarate eta José María Sumpsi Viñas
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- 36 Nekazaritza eta Europako Itun Berdea**
Juan J. Oñate
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- 42 Merkaturatze-kanal laburrak: landa-garapenerako aukerak eta erronkak**
José Luis Cruz Maceín
Landa, Nekazaritza eta Elikadura Ikerketarako eta Garapenerako Madrilgo Institutua (IMIDRA)
Mario González Azcárate
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- 46 Landa-ingurune dibertsifikazio ekonomikoz haragol**
Luis Antonio Sáez Pérez
Zaragozako Unibertsitatea
Bárbara Soriano
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- 50 Teknologia berrien zeregina nekazaritzan eta landa garapenean**
Rosa Gallardo-Cobos eta Pedro Sánchez-Zamora
Kordobako Unibertsitatea
- 55 GOMENDATUTAKO LIBURUA: Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos. Yolanda Gómez Sánchez, Ikerketa politiko eta konstituzionalen zentroa (CEPC)**
Nerea Mandaluniz Astigarraga
Neiker
Bárbara Soriano Martínez
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- 57 GEHIAGO JAKITEKO**

Economistas sin Fronteras erakundeak tzure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziatzko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarrizketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

Ondorengo esteka honetan
inprimakia beteta:

[Egin dohaintza orain](#)

Edo BIZUM: erabiltzearen bidez:

01895

Fundazioaren kodea
Economistas sin Fronteras

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum> //

Gure erakundeko bazkide izan eta Economistas sin Fronteras erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

[Egin zaitez Bazkide](#)

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratu fiskala ematen die, PFEZaren kuotan kenkarirako aukera baitago.

ARGITALPEN KONTSEILUA

Luis Enrique Alonso
María Eugenia Callejón
Marta de la Cuesta
Beatriz Fernández Olit
María Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
Jorge Malfeito Gaviro
José Ángel Moreno

ARGITALPEN TALDEA

María Eugenia Callejón
Javier Esteban
Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
José Ángel Moreno

Ale honen koordinazioa:


José María Sumpsi eta Bárbara Soriano
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

Azaleko irudia: Collage digitala, La Factoría de Ediciones
etxeak egina, Adobe Stocketik hartutako irudiekin.

Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

Dossieres EsF Mugarik gabeko Ekonomialariak
erakundearen hiru hileroko argitalpen digital bat da.



MgE Dosierrak, Economistas sin Fronteras erakundeak egina
(<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons
Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala
lizentzia baten pean banatzen da
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>).

Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki,
bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada
helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor
den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE)
Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde
(GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-
esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia
bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki
nahi duten pertsonen osatua; erakundearen
lehentasunezko asmoa pobrezia eta
desberdintasunak desagerraraztea da.

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearen
uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela,
ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta
ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika
pertsona ekonomiaren zerbitzura egon
daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna
hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea,
modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea
eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har
dezaten.

Erreferentziazko GKE bat izan nahi dugu
bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte-
eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa
errazten eta sareko lana sustatzen lagundu.
Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten
bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko
ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira
iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin
ahal izateko.

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOL
Harrobi Plaza, 4,
48003 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50
(entrada por el local de SETEM)
28015 Madrid
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

NEKAZARITZAREN ETA LANDA-MUNDUAREN ETORKIZUNA

José María Sumpsi eta Bárbara Soriano

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

Espainiako landaguneetako despopulazioa ahoz aho dabil, eta gero eta itzal handiagoa hartu du gizartean eta politikan, jenderik gabeko lurraldeak defendatzeko hainbat mugimendu sozial sortu direlako. 2019ko martxoan Madrilen egindako manifestazioa izan zen mugimendu horien punturik gorena, eta ehun erakundek baino gehiagok parte hartu zuten han. Manifestazio handi hark ezagun egin zuen *España hustua* esamoldea. Egia esan, ez da oso kontzeptu egokia, baina mugimendu sozial horiek ezagutarazteko balio izan zuen, eta despopulazioaren gaia berriro kokatu zuen Espainiako agenda politikoan.

Mugimendu sozial eta protesta horien ondorioz sortu zen, 2019ko azaroan eta PSOE-Podemos gobernu berrian, Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioa. Mugimendu sozial horien artetik, ibilbide luzeagoko eta sustraituagoko batzuk alderdi politiko bihurtu ziren. Teruel Existe alderdia, esaterako, 2019ko hauteskunde orokorretara aurkeztu zen, eta arrakasta nabarmena izan zuen. Hark lortutako diputatua erabakigarria izan zen Pedro Sanchez Gobernuako presidente izendatzeko. Geroago, beste zenbait mugimendu sozialek parte hartu zuten Gaztela eta Leongo 2022ko hauteskundeetan, despopulazioaren arazoa larriki pairatu duen eta landagune ugari dituen komunitatean. Alderdi horiek arrakasta-maila desberdina izan zuten, baina Soria Ya alderdiak hauteskundeak irabazi zituen bere probintzian, eta hiru diputatu lortu zituen. 2021. urtean, eta Gobernuak Teruel Existerekin hartutako konpromisoetako bat betez, Konstituzio Azterlanen Zentroak aditu-talde bat bildu zuen despopulazioari, lurralde kohesioari eta eskubide berdintasunari buruzko txosten bat egiteko. Txosten hura 2022an argitaratu zen, eta MgE dosier honetako egile batzuk jardun zuten txostenean.

Bestalde, nekazaritzak ere kezka eragin du gizartean. Ekoizpen-kostuak eta elikagaien prezioak asko igo dira pandemiatik irteteko prozesu konplexuaren, nazioarteko hornidura-kateak azkar berrezartzeko zailtasunaren eta Ukrainako gerraren erruz. Hain zuzen ere, duela bi urtetik hona, erosketa-saskia garestitzeak etengabeko ardura eragin du biztanleengan, batez ere errenta ertaineko eta baxuko klaseetan. Gobernua ere kezkatuta dago, eta hainbat neurri jarri ditu abian; nagusiena, oinarritzko elikagaien BEZa murriztea. Espainian, ekoizpen kostuen igoera handiari bi gertaera gehitu zaizkio: batetik, zenbait produkturen uzta urriak, lehortearen eta beste klima-fenomeno kaltegarri batzuen ondorioz, eta, bestetik, nekazariei 2023ko urtarilaren 1etik aurrera ezarri zitzaizkien ingurumen-eskakizun handiagoak, derrigor bete beharrekoak Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) laguntzak jasotzeko. Faktore horien eraginez mobilizatu ziren traktoreak Europan eta Espainian, 2024ko otsailean, martxoan eta apirilean. Europako Parlamenturako hauteskundeen hurbiltasunak, ordea, mobilizazioak kutsatu zituen. Deialdietako batzuk ez zuten erantzun masiborik izan, baina oldarraldiak eta are bortizkeriak ekarri zituzten. Ultraeskuinarekin lotutako erakundeek, klima-aldaketa, ingurumenaren kontserbazioa eta 2030 Agenda ukatuz sustatu zituzten gertakari horiek.

Nekazaritzari eta landa-munduari buruzko MgE Dosierren zenbaki honetan bi gai horiek hausnartuko dira. Batetik, landaguneetako despopulazioaren kausak eta ondorioak ulertzen saiatuko gara, fenomeno horrek, erronka demografikoa ez ezik, lurralde-krisia ekarri baitu. Era berean, landaguneetako krisi demografiko hori gainditzeko politika posibleak aztertuko dira. Bestetik, kontu hauek landuko ditugu: nekazaritza-sektorearen benetako krisirik dagoen



ala ez; Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) zeregina; erakunde horren laguntzak eta ingurumen-baldintzak; eta nekazaritzako protesten arrazoiak benetako arazoak diren ala ez. Agian, MgE dosierraren zenbaki honen ondorio garrantzitsuenetako bat da Espainian ez dagoela nekazaritza bakar bat, baizik eta hainbat nekazaritza. Orokortze sinplistik eta ia beti demagogikoak, beraz, saihestu behar dira.

Hargatik, MgE dosierraren zenbaki hau bikoitza da neurri batean. Bi gai jorratzen ditu: landa-mundua eta nekazaritza. Bi gai horiek lotuta daude, eta, nekazaritzak landa-munduan zer-nolako itzala duen jakinda, zilegi da biak MgE dosier bakarrean lantzea, baina, aldi berean, bi gai desberdin dira. Ezaugarri horregatik ditu zenbaki honek MgE dosierrek izan ohi dutena baino zenbait orrialde gehiago, eta koordinatzaileok eta egileok biziki estimatzen diegu lizentzia hori arduradunei.

Lehen lanean, **Mercedes Molinak** (UCM), Espainian zer hazkunde-eredu jarraitu den erakusten digu. Haren ustez, eredu hori izan da lurraldeen arteko desoreken eragile nagusia, lurralde irabazleak eta galtzaileak bereizi baititu. Politika publikoen erruz gertatu dira desoreka horiek, eta, arazo demografikoaz gain, landa-eremuetako emigrazioak lurralde asko izugarri despopolatu dituelako, lurralde-krisi larri bat ere eragin dute. Krisi larri hori gainditzeko behar-beharrezkoa da estatu-itun bat. Gizarte- eta lurralde-kohesiorako estrategia bat eratu behar da, epe labur, ertain eta luzerako jarduerekin. Estrategia horrek

inbertsio publikoak eskatzen ditu, egungo arrakala murriztu eta lurralde-lehiakortasuna indartu dadin, eta, era berean, jardueren eta funtzioen arabera dibertsifikatutako landa-garapena eta tarteko hirien dinamismoa bultzatu behar ditu. Hazkundera lurraldeka hain polarizatuta dagoenez, eta polarizazio horrek eragindako kalteak hain nabarmenak direnez, eredu egituratzaile berri bat behar da. Eredu horrek ezin du baztertzatzailea izan, baizik eta landakoa, hirikoa eta metropolikoa izan behar du batera.

Bigarren lanean, **Luis Camarero** (UNED) sakon aztertzen du landa-despoblazioa. Fenomeno hori gainbehera demografikoarekin eta landako biztanleriaren desorekekin lotzen da normalean, baina, lurraldeak husten edo despobulatzen dituen neurrian, egungo gizarteetako ekoizpen-jarduerekin eta habitat-sistemen eraldaketarekin lotutako eraldaketa sozialak eta espazialak baldintzatzen ditu. «Espainia huts» fenomenoak bi osagairen ondorio da. Lehenengo osagaia demografikoa da, eta biztanleria-egiturak murriztearekin eta aldatzearekin lotuta dago. Bigarrenak, berriz, gizartearen eta lurraldeen egokitzapenari erantzuten dio; alegia, garapen-ereduak ekonomia globalen testuinguru berrietara egokitzeari. Bi faktore horiek elkar elikatzen dute, eta hain daude uztartuta, ezen zaila baita jakitea zer desberdintasun dagoen despoblazioaren kausen eta ondorioen artean. Despoblazioa aglomerazio-ekonomietan oinarritutako garapen-ereduetara egokitzeko prozesu sozio-demografiko gisa agertzen da, baina ez du esan nahi lurraldea hustu denik.

Mugikortasunaren bidez, auto-mugikortasunaren bidez hobeto esanda, posible da landa-habitatari eustea.

Hirugarren lanak, **Eladio Arnalteren** eta **Dionisio Ortizen** (UPV) ikerlanak hain zuzen, Espainiako nekazaritzaren egitura egokitzeko prozesua aurkezten du, eta nekazaritza-ustategien errentagarritasunaren bilakaera aztertzen du, tamainaren eta ekoizpen-orientazioaren arabera. Lanaren funtsezko elementuetako bat da, nekazariez gain, beste funtsezko eragile batzuk ere kontuan hartzea; adibidez, kooperatibak, nekazaritza-zerbitzuetako enpresak eta inbertsio-funtsak, azken aldian egitura-eraldaketan zeregin garrantzitsua dutenak. Ustategien egituraren eta errentagarritasunaren arteko erlazioa lantzen da ikerlanean, eta egitura dual bat dagoela ondorioztatzen da. Alde batetik, oso enpresariala eta errentagarria den nekazaritza bat dago, eta, beste alde batetik, ustategi txikietan eta ertainetan oinarritutako nekazaritza bat, kooperatibismoaren eta/edo lanaldi partzialen bidez bizirauteko borrokan. Horrenbestez, Espainiako nekazaritzan askotariko egoerak daude, eta ezin da esan, osotasunean, herrialdeko nekazaritza gaizki edo ondo doanik, ezta errentagarria denik edo ez denik ere. Sektorearen egoerari buruzko diskurtso sinplistek, eta batzuetan demagogikoek, ez digute uzten askoz ere anitzagoa eta konplexuagoa den egoera ulertzen, eta azterketa zehatzagoak eta esku-hartze eta politika berezituagoak behar dira errealtate hori atzemateko.

Isabel Bardajiren eta **José María Sumpsiren** (UPM) laugarren lanean aztertzen dira trantsizio ekologikoak nekazaritzan dituen arazoak. Egileen iritziz, malgutu egin behar dira Agenda Berdeak eta NPBk nekazaritzari ezartzen dizkieten murrizketetako batzuk, eta nekazaritzari lotutako burokrazia sinplifikatu beharra dago. Hala ere, nekazaritzaren sektoreak, laguntza publiko garrantzitsuak jasotzen dituenak, ezin du alde batera utzi ingurumenarekiko eta klima-aldaketarekiko kezka sozial gero eta handiagoa. Nekazariei ezartzen zaizkien murrizketek eta ingurumen- eta klima-baldintzek, kasu askotan, errenta-galerak ekartzen dituzte. Kostuak handitu, edo diru-sarrerak murrizten dizkiete. Beraz, errenta-galera horiek nork jasan behar dituen dago ezbaian: nekazariak, kontsumitzaileak (elikagaien truke prezio altuagoak ordainduta) edo Estatuak (nekazariei emandako laguntzak handituta). Azkenik, lanak planteatzen du ez ote den iritsi nekazaritza- eta landa-politika komun

berri bat diseinatzeko unea, zaharkituta dagoen eta inor asebetetzen ez duen NPBren eredua moldatzen jarraitu beharrean. Batzordeko presidentek 2024ko martxoan nekazaritzari buruz abiarazi berri duen elkarrizketa aurrerapauso bat da. Nekazarien arazoak eta beharrak kontuan hartuko dituen NPB berri bat diseinatzea du helburu, nekazaritza jasangarritantz urratsak emateari uko egin gabe.

Bosgarren lanak, **Juan Oñaterenak** (UAM), 2019ko Europako Itun Berdea lantzen du. Klima-, energia- edo garraio-arloko neurriekin batera, itun horrek elikadura sistema jasangarria lortzeko bi estrategia osagarri hartzen ditu barne: *Baserritik mahaira* eta *2030 Biodibertsitatea*. Egileak zehatz-mehatz aztertzen ditu nekazaritzaren, ingurumenaren eta biodibertsitatearen arteko harremanak, eta uste du *sistema sozio-agroekologikoen* errealtatera hobeto egokitutako eredu prediktiboen eta proiektzioen bidez indargabetu ditzakegula azken aldiko nekazaritza-protestetan eta eztabaida publikoan entzun diren argudio ideologikoak, oinarri zientifikorik gabekoak. Gaiari buruzko azterlanak ez datoz bat bi Estrategiek ustategien diru-sarreretan duten eraginari dagokionez, baina nekazarien konplizitateak gabe nekez lortuko dira nekazaritza- eta landa-eremuaren helburuak. Ebidentziak erakutsi du, epe ertain-luzean, zerbitzu ekosistemikoetan eta klima-egokitzapenean inbertitzea positiboa izan daitekeela nekazariaren poltsikorako. Epe laburrean, ordea, politika publikoek derrigor lagundu behar dietela dirudi, izan ditzaketen diru-, ondasun- eta zerbitzu- galerak estaliz.

José Luis Cruz Maceínek (IMIDRA) eta **Mario Gonzálezek** (UPM) seigarren lanean ikertzen dute merkaturatze-kanal laburrek zer aukera eta erronka dituzten landa-garapenerako. Artikulu horretan aztertzen da nola erabil daitezkeen kanal laburrak elikadura-sistema alor ekonomikoan eta sozialean berriz definitzeko, baita ingurumenari eta lurraldearen integrazioari lotutako alorretan definitzeko ere. Hiriguneak, hirien inguruko guneak eta landaguneak lotzeko balio dezakete kanal laburrek, eta herritarrengan elikadura-kontzientzia sustatzeko ere bai. Ondoren, egileek jasotako informazioak erakusten du politika publikoen egungo egiturak ez dituela erraztasunak ematen kanal laburrak egoki garatzeko eta ezartzeko. Horren arrazoi nagusia hau da: tokiko administrazioen zeregina funtsezkoa da ekimen horien garapenerako eta lidergorako, baina inplikazio isolatua ez da nahikoa. Kanal laburrek maila askotako gobernantza-egitura behar dute, eta

erakunde autonomikoak, nazionalak eta europarrak zeharkako ikuspegi baten inguruan (tartean dauden hainbat arlo barne: nekazaritza, lurraldearen plangintza, azpiegiturak eta garraioa, osasuna, enplegua, etab.) bildu behar dira, eta elkarren arteko harremanak luze iraun behar du.

Luis Antonio Sáezen (UZA) eta **Barbara Soriano** (UPM) zazpigarren lanak dibertsifikazioa hausnartzen du, landa-garapenerako estrategia gisa. Kapitulu horren abiapuntua «Europako Landaguneen Epe Luzerako Ikuspegia» da (LTVRA, ingelesezko sigletan). Europako Batzordeak diseinatu eta argitaratu berri du ikuspegi hori, eta landaguneak Europako hazkunderako eta ongizaterako eragileztat hartzen ditu. LTVRAn identifikatutako estrategietako bat dibertsifikazio-ekonomikoari laguntzea da, landagune oparoagoetarantz aurrerapausoak emateko. Hortik aurrera, autoreen gogoetak dibertsifikazio-estrategian jartzen du arreta. Estrategia horrek landaguneetako ekoizpen sektoreen aniztasunera bideratutako ikuspegi ekonomiko klasikotik haratago joan behar du, eta ez du mugatu behar, adibidez, nekazaritza-, turismo- eta energia-sektoreetara soilik. Landa-eremuk dibertsifikazio-estrategiak, aldi berean, aniztasun soziala aintzat hartu eta babestu behar du; hau da, nortasunak, gaitasunak, ezagutzak, sareak, kontaktuak eta erakunde-kalitateak anitzak direla izan behar du kontuan. Aniztasun hori funtsezko elementua da landa-munduaren oparotasunerako.

Zortzigarren lanean, **Rosa Gallardo-Cobosek** eta **Pedro Sánchez-Zamorak** (UCO) planteatzen dute

nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreak, baita landa-mundu osoak ere, erronka handiak dituela aurrean. Sektoreak efizientzia, jasangarritasun, kalitate eta errentagarritasun handiagoa bilatu behar ditu, eta erronka horiei erantzuteko ezinbestekoa zaio eraldaketa teknologikoaren eta digitalaren aldeko apustu irmoa. Autoreen ustez, eraldaketa digitalak aukerak eskaintzen ditu nekazaritzako elikagaien sektorearentzat bereziki eta landa-ingurunearentzat oro har, baina oztopo asko gainditu behar dira eraldaketa digitalean aurrera egiteko, eta, beraz, funtsezkoa da digitalizaziorako oinarritzko baldintzak bermatzea (azpiegiturak, zerbitzuak eta konpetentziak) eta inklusio digitala erraztea, arrakala digitalik gerta ez dadin. Nekazaritzako elikagaien sektorearen eta landa-ingurunearen berezitasunak direla eta, digitalizazioa sektore eta lurralde bakoitzaren testuingurura egokitu behar da. Gazteak ezinbesteko elementuak dira nekazaritzako eta landako elikagaien digitalizazioak sektoreak eta gizarteak behar duten erritmoan aurrera egin dezan. Aliantzak, lankidetzak publiko-pribatua, ekosistema digitalen garapena eta nekazaritzako elikagaien eta landa-ingurunearen digitalizazio jasangarrirako tresna politikoen diseinua faktore erabakigarriak dira erronka handi horri erantzuteko.

Zenbakiari amaiera ematen dion *Gomendatutako liburua* atalean, **Nerea Mandalunizek** eta **Barbara Soriano** *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (koord: Yolanda Gómez Sánchez, Politika eta Konstituzio Ikasketen Zentroa) liburuari egingo diote aipamena. Eta, azkenik, ohiko *Gehiago jakiteko* atala sartu dugu dosierrean. ■

Mercedes Molina Ibáñez

Giza Geografiako katedradun emeritua

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

1. Sarrera

Azken 25 urteetan aldarrikapen sozial garrantzitsu bat eratzen joan da, landa, hiriak eta metropoliak bere baitan hartzen dituen emigrazio-prozesua dela-eta Teruel eta Soriako probintzietan hasia eta Espainiako barnealdeko lurraldeetara hedatua, agerian uzteko lurralde-desorekek eta gizarte-ekitaterik ezak ekarritako egoera problematiko bat. 1960az geroztik, batez ere, nekazaritzako ekonomiatik industriako eta zerbitzuetaiko ekonomiara eraldatu zen; hasieran, prozesu horren ondorioak ez ziren aintzat hartu, eta batzuetan justifikatu ere egin izan dira, baina orain gero eta kontzientzia handiagoa sortzen ari da horri buruz. Lurraldeen ahotsa entzun egiten da, eta Espainiako desberdintasunak onartzen dira; beraz, horrek lurralde-politika berri bat eskatzen du, ez soilik sektoriala, Estatuak eta autonomia-erkidegoek zehaztua. 1978an Madrilén egin zen Lurralde Antolamenduari buruzko lehen Kongresuan aurkeztutako hainbat ikerketatan jada nabarmendu zen egoera hori, eta Espainia demokratikoaren eraldaketaren erronketako bat zela onartu zen; gure Konstituzioak ere hala jasotzen du. Garai hartan Europako Ekonomia Erkidegoa zenak ere aholkatzen zuen inbertitu egin behar zela biztanlez hustutako probintzietan, azpiegituretan, ingurumenean eta ondarean, batez ere 1994-1999 aldian Egitura Funtzak eskuratu zituzten autonomia-erkidegoetan.

Espainiaren aurrerapen sozial eta ekonomikoa ukaezina da, gure hazkundeak eskualde eta herrialde aurreratuagoetara hurbildu gaitu, baina ez du barne-kohesiorik ekarri, eta horrek eragin du barne-emigrazio behartua, jatorrizko lekuetan ez baitzegoen baldintza egokirik enplegua lortzeko, bizi-baldintza hobeak lortzeko, ez eta gizarte-sustapena lortzeko ere. Deigarria da arazo ezagun bat –zenbaitetan erronkatzat hartua izan dena, gizarte-aldarrikapen garrantzitsuak eragin dituen eta politikan ere ondorioak izan dituen– aldaketa garrantzitsurik gabe mantendu izana. Prozesu hori mende-erditik gora eratuz joan da, eta mende-laurden

batean horri buruzko kontzientzia kolektiboa sortu da eta Estatuaren eta autonomia-erkidegoen agenda politikoa sartzeari lortu da; beraz, orain hausnartu beharra dago ea atzera-bueltarik gabeko prozesu bat den edo, aitzitik, posible den Espainian lurralde-oreka handiagoa eta gizarte ekitatiboagoa lortzea.

2. Gizarte eta lurralde desberdintasunaren arazoa

Datu batzuk nabarmenduko ditugu, gaur egun dauden gizarte- eta lurralde-kontraste handiak erakusteko. Espainiako lurraldearen % 48,3k 12,5 biztanle baino gutxiago ditu kilometro karratuko. Europar Batasunaren arabera, zifra horiek dituztenak gutxi populatutako lurraldeak dira; gainera, alde horretatik, Finlandia, Estonia, Suedia eta Lituaniaren atzetik gaude. Eskandinaviako bi herrialdeak alde batera utzita (haietan, 60 paralelotik gora baldintza klimatikoak muturrekoak izateak eragin baitu biztanleria urria izatea eta gizarte bereziak sortzea, eta hori ez baita izan emigrazioaren ondorioa), are nabarmenagoa da gure egoera. Halaber, aipagarria da, batetik, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dela biztanleriaren % 70, eta udalerri guztien % 5,1 direla udalerri horiek; bestetik, 50.000 biztanletik gorako udalerrietan (% 1,8) biltzen dela stock demografikoaren % 53, eta, azkenik, 500.000 biztanletik gorako sei udalerrietan (gure herrialdeko udalerrien % 0,07 dira) biltzen dela biztanleriaren % 16.

Era berean, kontuan hartzen badugu BPGd-aren balioaren % 38 baino gehiago Madrilgo eta Kataluniako autonomia-erkidegoetan biltzen dela, batez ere bertako bi metropoli-sistemengatik, funtsezko abiapuntua dira gure herrialdean lurralde-desoreka sozioekonomikoak eta horien ondorioak azaltzen dituzten kausa konplexuak aztertzeko eta ulertzeko (Molina *et al.* 2023).


2.1. Hazkunde ekonomikoaren eta lurraldearen arteko erlazioa: kohesionatu gabeko Espainia desorekatuaren konfigurazioa azaltzen duten kausak

Nekazaritza-ekonomiatik industria- eta zerbitzu-ekonomiara aldatzeari lotutako hazkunde ekonomikoa, gizarte- eta lurralde-ondorioak dituen, esanguratsua izan da, baita berriki bizkortua ere. Gure Inperioaren gainbeherak, eta XIX. eta XX. mendeetako aldaketa eta ezegonkortasun politikoek —gure gerra zibila eta diktadura frankista ekarri zutenak— berekin ekarri zituzten bai aurrerapen eta nazioarteko garrantziaren garaiak, bai atzerapauso eta isolamendu handiko beste garai batzuk. Gure prozesua etena izan da, eta alde handia sortu da Espainiaren eta tradizionalki industrializatuta egon diren Europako herrialdeen artean. 1959ko Egonkortze Plana deritzona arte ez zen industrializazio eta oinarri energetiko egonkorragoa eratu Espainian. Ereditu hori 1960 eta 1970 urteen artean garatu zen, baina ordurako krisi sakona erakusten zuen herrialde aurreratuenetan, eta 1970-1973 bitartean iritsi zen krisia gorenera. Eskulan ez-kualifikatu asko eta kapital urria behar duen industria hori bateragarria zen Espainiako azpigarapenarekin eta landa-lurraldeetako presio demografiko handiarekin. 1960tik 1975era hazkunde ekonomikoaren lehen etapa garatu zen, honako hauek oinarri izanda: industria-jarduera ez oso sendoa, egiturazko aldaketa sakonik gabeko desagrarizazioa, eta zerbitzu-sektorearen hazkunde, planifikatu gabeko nazioarteko turismoaren ondorioz. Oinarri horiek ez ziren Espainian soilik gertatu, baina ondorioak handiagoak izan ziren bertan. Hona hemen: epe laburrerako hazkunde intentsiboko ekoizpen-modu bat, arrakasta barne-produktu gordinaren, errentaren eta enpleguaren balioaren arabera neurtzen zuena, gizarte-, ingurumen- eta lurralde-kostuak ebaluatu gabe. Horrekin batera eratutako lurralde-ereduaren ezaugarria da inbertsioa, enplegua, ekoizpena, bizi-kalitatea, sustapenak, eta, beraz, biztanleria hiri eta metropolietan kontzentratu izana, eskala- eta aglomerazio-ekonomien efizientzia dela eta. Lurralde-desorekak eta desberdintasun sozialak areagotu egin ziren, eta horrek bultzatu zuen landa-hiri-metropoli emigrazio behartua, gaur egun arte neurri handiagoan edo gutxiagoan iraun duena.

1975etik aurrera, Espainiak garrantzi handiko bi transmutazio-prozesuri egin behar izan zien aurre. Alde batetik, ekonomikoa, ez baitzen herrialde lehiakorra testuinguru hartan: nazioartean herrialde aurreratuenak beren gain hartzen ari ziren zientziaren, teknologiaren, informazioaren eta kapitalaren paradigma berria,

herrialde emergenteak horretan integratzen ari ziren, eta ekonomia azpigaratuetan estraktibismoa errotu zen, gero eta globalizazio handiagoko prozesu batean, eta nazioarteko merkataritzaren hazkundera gertatzen ari zela. Bestalde, diktaduratik demokraziarako trantsizioak lehentasuna zuen, estatu aske baten zutabeak eraikitzen joateko eta hala modernitatearen erronkei aurre egin ahal izateko, garai hartako Europako Ekonomia Erkidegoan sartuta. 1980ko hamarkadaren amaierara arte ez zitzaion heldu industria-aldaketari, baina emaitzak eskasak izan ziren eta pisu sozioekonomikoa galdu zuen, eta langabezia hazi egin zen; izan ere, soberako biztanleria ez zen egokitzen jarduera berrien eskakizunetara. Nekazaritzako sektorea Nekazaritza Politika Komunitarioari egokitu zitzaion, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ekarri zuen gizartearen. Zerbitzuen sektorean, turismoa funtsezkoa izan zen, baita eraikuntzaren azpisektorea ere, aurrerago. Egoera zail hori, berriz ere, aipatutako hazkunde ekonomiko intentsiboko ekoizpen-modu horretan eta horri lotutako kontzentrazioko lurralde-ereduan oinarritu zen. Funtsezkoa zen enplegua handitzea, gure barne-produktu gordina haztea, eta, horregatik, errenta ere bai, Europatik jasotako funtsak baliatuz, hartara lurralde dinamikoagoekin bat egiteko; eta, egiaz, lortu zen hori. 2000-2006 aldian, autonomia-erkidego guztiek, Kantabriak izan ezik, jaso zituzten funtsak 1. helburuagatik (errenta txikia) edo 2. helburuagatik (industria-krisia), eta Espainiak, Maastrichtetik aurrera, errenta txikiagatik, baina 2014-2020 aldian Extremadurak bakarrik jaso zituen errenta-mailagatik, eta Estatuko errentaren hazkundeak berekin ekarri zuen funtsetatik ateratzea. Aldaketa berandu egin izanak eta hazkundearen errentan proiektatu izanak, eta horrekin batera ekonomia oso sendoa ez izateak, berekin ekarri du, gure herrialdean barne-desberdintasunak izatea ez ezik, nazioarteko krisialdietan zaurgarri izatea, hala nola 1970-1983, 1993-1998, 2008-2014 aldietan, pandemian zehar 2020an, eta Ukrainako gerraren ondorioz sortutako mundu mailako koiunturengatik. Era berean, krisien irteera laburrek, arazoak gutxitzeko, epe laburreko hazkundearen aldeko apustua egin zuten, adierazle eta aldagai berberak bultzatuta, eta hiri handia berrikuntzaren eta arrakastaren eragiletzat hartuta (1. grafikoa). 1960tik aurrera, sektore ekonomikoak lehenetsi ziren, ez lurraldea, bai eta epe laburreko lorpenak ekar zitzaizkien jarduerak ere —adierazle eta aldagai zalantzaragarien arabera neurtuak— lurralde zabaletan, hala nola Estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan, baina horrek barne-desberdintasun larriak ezkutatzen zituen (Molina Ibáñez, Pérez-Campaña eta Hernando Sanz, 2022).

1 grafikoa. Espainiako balio erantsi gordinaren (BEGd) bilakaera, sektore ekonomikoen arabera



Iturria: Molina Ibáñez, Hernando Sanz eta Pérez-Campaña (2022)

Denboraldi luze batean, politikoki behintzat ukaezintzat jotzen zen errealitate bat onartu zen, eta landa-eremuarekiko arbuioa orokortu egin zen. Hala ere, 1990. urtearen amaieran, desberdintasunen aurkako kritikak sortu ziren; haien ondorio sozialak ikusarazi ziren, nahigabea areagotu egin zen, eta aldarrikapen kolektiboak egin ziren, nabarmenduz arrakala handia zegoela landaren, hiriaren eta metropoliaren artean, neurri handi batean politika publikoak bideratzeko moduaren ondorioz. 1999 eta 2001 bitartean, bi plataforma sozial eratu ziren, Teruel Existe eta Soria YA. Madrilen 2019an manifestazio handi bat egin zen, abandonu instituzionalaren aurka, eta 150 plataformak baino gehiagok parte hartu zuten, *Espainia Hustua* izenekoan integratuak; dena den, izen hori ez da oso aproposa, hutsik ere ez baitago, eta desberdintasun handiak jasaten dituzten pertsonak bizi baitira bertan.


Aldarrikapen horrek kontzientzia eta konpromiso politiko handiagoa ekarri zuen. Estatuan, Erronka Demografikoko Komisariotza izatetik Presidenteordetza bati lotutako ministerio bat izatera igaro ginen; autonomia-erkidegoek ere oso bestelako planteamenduekin txertatu zuten, eta gizarte-plataformak, berriz, alderdi politiko berri izatera igaro ziren, eta adierazpena lortu zuten hauteskundeetan; arrakasta izan zuten Estatuan, ez oso luzaroan dena den (Teruel Existe), bai eta autonomia-erkidego mailan

ere (lehen aipatutakoa, Soria YArekin batera), baina Europarako azken hauteskundeetan beste lurralde-plataforma batzuekin batera aurkeztu ziren, EXISTE izena hartuta, eta ez zuten esperotako arrakasta izan. Hala ere, eskubideen aldarrikapen hori ez da galdu, aldaketan eraginkortasuna eskasa baita, eta, dirudienek, arazo larriek eta desberdintasunarekiko atsekabeak hor jarraitzeak berekin dakar alderdi edo talde ultrakontserbadoreak haztea. Horrek guztiak pentsarazten digu despoblazioa, berez, egoera demografiko huts bat baino askoz konplexuagoa dela (Molina Ibáñez, Hernando Sanz eta Pérez-Campaña, 2023; Rodríguez-Pose, 2020).

2.2. Emigrazioaren ondorioak Espainiako barnealdeko lurraldeetan

Erantsitako grafikoak ondo islatzen du adierazitako arrazoiaren ondoriozko mugikortasun demografikoa, Espainiako barnealdeko zati handi batean udalerri mailan biztanle-galera handiak izan baitira; hor sartzen dira tarteko hiri batzuk ere, indar txikia izateagatik km²-ko 12,5 biztanle baino gutxiagoko probintziak eratzen dituztenak, hala nola Soria, Teruel eta Cuenca.

2 grafikoa. Populazio-aldaketak Espainian: 1960-2020



Iturria: Molina Ibáñez, Pérez-Campaña eta Hernando Sanz (2022).

Giza kapitalaren etengabeko beherakadaren ondorioz gertatuko despopulazio horrek berekin ekarri zuen arazoa bere ondorio demografikoekin lotzea ia eskusiboki, baina ondorio horiek, garrantzitsuak badira ere, ez dira bakarrak. Biztanleria galtzeak baliabideen galera ekarri du, eta horrek desoreka sortu du biztanleria aktiboaren eta besteren mendeko biztanleriaren artean; eta egituren funtsezko aldaketa izan da, maskulinizazioagatik, pixkanaka zahartzen joateagatik, jaiotzak gutxitzeagatik edota batere umerik ez jaiotzeagatik eta belaunaldi-ordezkapena egiteko ezintasunagatik. Espainiako biztanleria, oro har, zahartu egin da eta ugalkortasun-tasa munduko txikienetakoa da (1,18 seme-alaba emakume bakoitzeko, belaunaldi-ordezkapenerako 2,1 haur behar badira ere), trantsizio demografikoaren ondorioz, baina emigrazioak larriagotu egiten du arazoa. 2022an, 65 urtetik gorako biztanleria % 20 zen, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bi puntu gehiago, eta 500 biztanletik beherakoetan % 33; 10.000 biztanletik gorakoetan zertxobait txikiagoa zen, % 19,3.

Ondorio ekonomikoak oso garrantzitsuak dira: batetik, potentzialtasunak dituzten lurraldeak produkzio-sistema orokorrean sartu ez direlako, eta horietako

batzuk tokiko jakintzaren arabera egiten diren jardura tradizionalekin lotuta daudelako (batzuetan, galdu ere egin da egiteko modu hori); eta, bestetik, desinbertsio ia iraunkorrek arrakala handia sortu duelako lurralde dinamikoagoekiko, eta arrakala hori pixkanaka handitzen ari delako eta lehiakortasuna kentzen ari zaielako lurralde horiei. Azpiegiturarik eza agerikoa da, bai ekonomikoak (garraioa, komunikazioak, energetikoak edo hidraulikoak), bai sozialak (osasungintzako edo hezkuntzako oinarritzako zerbitzu publikoak, nahiz merkataritzako edo bankako zerbitzu pribatuak). Abandonuak ingurumen-ondorio larriak ere eragin ditu, eta, horren ondorioz, biodibertsitatea eta baliabide naturalak (lurzorua eta ura barne) galdu dira, eta arriskuak (baso-suteak) ugaritu. Era berean, ondorio sozial garrantzitsuak ere hauteman dira (indibidualismoa, mesfidantza, immobilismoa edo kanpokoenganako arbuioa), gutxi konektatutako gizarte itxietan berezkoak. Halaber, udal-tamainari lotutako ondorio garrantzitsuak ere badira, eta horiek eragina dute tokiko gobernantzan eta beste administrazio batzuekiko integrazioan, bai eta inbertsioak ekoizpena eraldatzera bideratu ez dituen eta batzuetan gairik gabeko egin dituen udalgintza finkatzeko aukeretan ere; udal-tamaina dela-eta, gainera, batzuetan ezintasuna sortzen da

zenbait funts kudeatzeko edo eskatzeko. Demografian, ekonomian, ingurumenean, gizartean, lurraldean eta gobernantzan eragindako ondorioek benetako lurralde-krisia ekarri dute, bai eta itotzeak ere; horiek zuzendu egin behar dira, eta lurralde-dimentsioko estrategia demografiko baten arabera aintzat hartu beharrekoak dira, ez egiturazko eraldaketetan eragin txikia duten ekintza isolatuak eginez.

Galtzaileen kontura irabazle suertatutako lurraldeak daudenez, eta elkarrekin bizi direnez lurralde dinamikoak eta atzera egiten nahiz abandonatuak izaten ari diren beste batzuk —prozesu horrek, 60 urtez baino gehiagoz, gizarte- nahiz lurralde-arrakala iraunkorra eragin du landaren, hiriaren eta metropoliaren artean—, galdetu beharra dago ea prozesua atzeraezina den edo joera alda daitekeen.

3. Trantsizio ekologikoa eta lurralde-eredu hierarkizatua: joera-aldaketak ahalbidetzen dituzten errealitateak

1970eko hamarkada erabakigarria izan zen munduko eraldaketa handietarako, baina ez zen erabakigarria izan hazkunde intentsiboko ekoizpen-moduarentzat, ezta metropoliaren lurralde-ereduarentzat ere (eredu horrek ondorio esanguratsuak zituen ordurako gure planetan). Kapitalaren protagonismoak eta haren lorpenek Naturarekiko eta haren baliabideekiko ezjakintasuna ekarri zuten progresiboki, baita lurralde-lehiakortasuna definitzerakoan ere; Nazio Batuen Erakundea soilik hasi zen hazkunde ekonomikoa eta ingurumena lotzen. Nabarmentzekoak dira 1972ko Stockholmeko Konferentzia; 1987ko Brundtland txostena, ingurumenaren jasangarritasunaren eta planetaren arriskuen oinarria dena; 1992ko Rioko Konferentzia, eta Klima Aldaketaren eta Biodibertsitatearen Konbentzioak; 2015eko Parisko Konferentzia; eta 2030 Agenda, Garapen Jasangarriko Helburuekin batera. Gaur egun, 50 urte baino gehiago igarota, munduan bada kontzientzia eta badira konpromisoak hazkunde ekonomiko tradizionala garapen jasangarri bihurtzeko, Trantsizio Ekologikoaren izendatzaile komunaren pean. Gizakiaren ekintzen ondorioz gure planetan aldaketak gertatzen ari direla onartuta dago oro har, batez ere Europar Batasunean eta, beraz, baita Espainian ere, baina oraindik ere aldaketa horien aurka egiteko borroka ez dago guztiz finkatuta, nazioarteko zenbait

gertakariren ondorioz, hala nola Ukrainako gerra, bai eta maila desberdinetako lidergo politikoen ondorioz ere, zeinak negazionismoa nortasun ideologikoaren ikur bihurtzen baitute. Aldaketa ezin da eten, eta maila globalean nahiz tokikoan eragiten du; izan ere, jada gaingitu dira, ia, Joham Rockström-en (2009) planeta-muga guztiak.

3.1. Trantsizio ekologikoa, eta ekonomia- eta lurralde-eraldaketak Espainian

Onartzen badugu, Brundtland txostenaren printzipioen arabera, ekoizpen intentsiboak eta epe laburrekoak, lurralde-metropolizazioarekin batera, eragin negatiboak izan dituela planetaren portaera orokorrean, trantsizio ekologikoak izan behar du Espainian aldaketa sozioekonomikoaren eta lurralde-aldaketaren motorra. Ekoizpen osoa, lurraldea eta gizartea batera hartuta ulertu behar da trantsizio hori, ez zaio modu sektorializatuan heldu behar, eta ezin da lurralde-ereduaren aldaketa alde batera utzi. Trantsizio ekologikoa garatzeko funtsezko politika publikoak printzipio horien gainean eraikitzen ez badira, trantsizioa osatu gabea izango da, eta oso ondorio partzialak izango ditu. Hori guztia, aldaketa handirik gertatzen ez bada behintzat, «Europa Berdearen» eta berrikuntzaren babesean egin beharko da, haiek zehaztu baitute Urte Anitzeko Finantza Esparruko Funtzen (2021-2027) eta Next Generation UE berreskuratze-tresnaren nondik norakoen zati bat. Trantsizio ekologikoa eta ekoizpen-aldaketa banaezinak dira.

Baina horrek eragina izan behar du, nahitaez, lurralde-ereduaren aldaketan, eta horren erakusgarri dira tradizionalki baztertuta egon diren lurraldeak hartzen ari diren gero eta potentzialitate handiagoak, gero eta onartuagoak. Adibidez, alde batetik, landako potentzialitateak, landa-garapenarekin lotutako jardueren eta eginkizunen dibertsifikazioan oinarrituta (Europar Batasunak Corkeko Konferentzian definitu zituen jada, 1996an eta 2016an); hori ere ageri da Batzordearen komunikazioan: «EBko landa-eremuetarako epe luzerako ikuspegia». Landa Ituna izenekoan, «Rural Proofin» izenekoan, edo Nekazaritza Politika Erkidearen egungo erreforman, indarra hartzen ari dira bai garapen jasangarriari lotuta landa-eremuarekiko dauden kezak, bai nekazaritza-jarduera askoren errebisionismoa egitearen aldeko jarrera ere, ohiko hazkunde-prozesuak baldintzatuta

baitaude, eta uraren erabilera da arazo handienetako bat. Ekoizpen-aldaketa eta landatartasuna ere banaezinak dira.

Era berean, bestetik, tarteko hiriak deiturikoak garrantzia hartzen ari dira. Alde batetik, metropolien esternalizazio negatiboak gero eta gehiago jasaten dituztelako, hala nola eguneroko mugikortasun handiaren ondorioz kutsadura handitu izana, pilaketak, barneko desberdintasun sozioekonomikoak, etxebizitza-arazoak eta bizitza garestituta izana edo hainbat osasun-arazo; horiek arazo-lurraldeak sortu dituzte, eta ez dinamismo ekonomikoa bultzatzen dutenak soilik. Eta beste alde batetik, baita beren potentzialtasunengatik ere –Hirien eta Tokiko Gobernuen Mundu Erakundeak (CGLU) aitortuak–, beste hiri batzuk —tarteko hiriak— lurraldea eta gizartea egituratzeko eragile gisa sartzan baititu. Tarteko hirien aniztasuna handia da, baina alderdi positibo generikoak har daitezke kontuan: bazterrean utzi izanak hazkunde ekonomikorako aukerak kendu badizkie ere, dinamismo handia izaten ari dira, enpresa txiki eta ertainen ekimenez; tokiko eragileek aukera handiagoa dute erakunde publikoekin elkarreragiteko, horrela bizi-kalitatea hobetzeko, dinamismoa emateko eta arazoak konpontzeko. Talentuaren kontserbazioak eta lurralde-nortasunak tokiko ekimen iraunkorrak bultzatu dituzte; haien ondarea funtsezkoa da, eta aukera handiagoak dituzte hiri-landa fluxuak sortzeko.

Azken batean, Espainian trantsizio ekologikoa, neurri batean, ekoizpena eta lurralde-eredua pixkanaka aldatzearekin lotzen badugu, ingurumen-onurak lortuko ditugu, eta, jakina, lurralde-kohesio eta -egituratze handiagoa. Lurralde horiek beti nabarmendu dira beren arazoengatik, baina orain beren potentzialtasunengatik ere ari dira nabarmentzen. Politika publikoek lurralde-dimentsioa hartu behar dute kontuan beren estrategia ekonomikoan, dauden itomenak zuzentzeko, potentzialtasunei balioa emateko eta jarduketa hierarkizatuak eratzekeo lurralde funtzionaletan, landa-hiria integratuta. Hala ere, pandemia osteko joerak adierazten digu deskarbonizazioa eta energia-aldaketa hartzen ari diren protagonismoa ez dela laguntzen ari landa-garapen eraginkorra lortzen, eta lurralde-deszentralizazioko prozesuak lausotzen ari direla dirudi. Sumatzen da trantsizio ekologikoa, berriz ere, oso modu sektorialean hartzen dela kontuan, lurraldean dituen eraginen balorazio eskasa egiten

dela, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eta udalerrien artean gobernantza-arazoak daudela, eta ministerioen eta autonomia-gobernuetako sailen artean harreman eskasak, eta hori kezkarria da. Horrela jarraituz gero, murriztu egiten da desorekak eta desberdintasunak arintzeko benetako aldaketa bat gertatzearen itxaropena. Landa-eremuko energia berriztagarrien hazkunde-prozesuan aurki dezakegu horren adibide bat.

3.2. Energia berriztagarrien inpaktuak: landa-lurraldeetan erabilera dela-eta dauden gatazkak

Azken urteetan deskarbonizazio-prozesu bat garatu da berotegi-efektuko gasak murrizteko. 2011n, ikatz bidez sortutako elektrizitatea % 15,46 zen, eta 2023an, % 1,45; 2011n, iturri berriztaezinak % 50 ziren, eta berriztagarriak % 29, baina 2023an alderantzikatu egin da proportzioa. Prozesu hori oso legedi espezifiko batek ekarri du; legedi horretan, sarritan, paisaiarekin oso lotuta dauden ingurumen-inpaktuak lehenesten dira, landa-garapena apenas, eta balio handiko nekazaritza-lurzorua galera oso-oso gutxi. Horren adibide dira Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legea, Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (PNIEC) eta Trantsizio Justua. Horiek argi garrantzitsuak ekarri dizkigute, ingurumenean hobekuntzak lortu ditugu, eta Espainia uharte energetikotzat hartua izatea lortu dugu, horrek dakartzan onura garrantzitsuekin, baina ez ditugu aztertu horrek lurraldean dituen itzalak. PNIECek uste badu energia sortzea eta azpiegiturak batez ere hiriguneetan eta industrializatutako guneetan kokatu beharko liratekeela, ekoizpen eolikoaren kokapena aztertzen denean, Galizia, Gaztela eta Leon, Aragoi eta Gaztela-Mantxa nabarmentzen dira; eguzki-energia fotovoltaiakoari dagokionez, berriz, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia batez ere. Ekoizpena-kontsumoa ratioak defizit handiak eragiten ditu lurralde dinamikoenetan, eta lurralde despopulatuenetan, soberakinak.

Deskarbonizazioa trantsizio ekologikoaren ardatz garrantzitsua da, baina gai horiez dago hainpolarizatuta, batez ere landaguneetan kokatzeagatik dituen itzalak bistakoak izaten ari direlako, eta tokiko onurak urriak eta ebaluatu gabeak izan direlako. Ekoizpen soilak ez du garapenik sortzen, eta konpentsazio-neurriak ez dira oso eraginkorrak izan, neurri batean legedietan gutxi landu direlako; ez ditugu ezagutzen ekoizpen

horren inpaktuak, nekazaritza-balio handiko lurzoruen galera eta erabilera dela-eta sortutako gatazka, ez eta autokontsumoaren eta energia-komunitateen trakzio-efektua ere. Industrian izandako adibide batzuk garrantzitsuak izan daitezke, Aragoi eta Extremaduran kasu, baina berriro ere landa-eremua industria- eta hiri-premien hornidurarekin lotuta gera daiteke, aldaketak iraganeko joerak aldatu gabe —Molina Ibáñez, Pérez-Campaña, Hernando Sanz eta Moya-Gómez (prentsan)—.

Oso beharrezkoa izango zatekeen arau-esparru orokor batek zehaztea zer ulertzen den trantsizio ekologikotzat oro har, eta zer helburu dituen epe labur, ertain eta luzera, lurralde-eskumenen esparruari lotuta. Ezagutzen dugu 1990. urtetik hona berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko izandako prozesua, bai eta 2030-2050erako dauden zenbatespenak ere, baina ez dakigu zer erronka planteatzen ditugun hazkunde ekonomiko handiagoa lortzeko ingurumen-jasangarritasunarekin eta lurralde- eta gizarte-kohesio handiagoarekin batera; Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean erreferentzia esparru gisa definituta egon zitezkeen.

4. Ondorioak

Espainiako lurralde-desoreken eta gizarte-ekitaterik ezaren konfigurazioa aztertzea ezinbestekoa da ulertzeko gure eraldaketa sozioekonomikoaren prozesuak lurralde irabazleak eta galtzaileak izan dituela, politika publikoek zerikusia izan dutela horretan, ikuspegi demografikotik harago doala, eta erantzukizuna eta konpromisoa kolektiboak direla. Funtsezkoa da estatu-itun bat, gizarte- eta lurralde-kohesiorako estrategia bat eratzeko, epe labur, ertain eta luzerako jarduerekin. Inbertsio publikoak egin behar dira, egungo arrakala murrizteko eta prozesu berriekin bat datorren lurralde-lehiakortasuna eratzeko; jarduera eta funtzio dibertsifikatuko landa-garapena bultzatzeko, bai eta tarteko hirien dinamismoa ere, prozesu deszentralizatzaileak eta potentzialitate berriak bateratzearen ondorioz, eta egoera okerragoan dauden lurraldeetan gizarte-eskubideak hierarkikoki ahalbidetzeko, gaur egun eskasak dira eta. Gaur egungo egoera paregabea da; izan ere, hazkunde intentsiboko ibilbideak epe

laburrean planetan eragindako ondorioek, horrekin lotutako kosturik zehaztu gabe, berekin ekarri dute trantsizio ekologiko bat, tokikotik globalera doana, eta horrek balioa gehitzen dio naturari, hazkunde jasangarri eta iraunkor baten funtsezko pieza gisa. Bestalde, hazkundearen lurralde-polarizazio gairak gaitzetsuak, kanpokotasun negatibo nabarmenak dituenak, ezinbestekoa egiten du eredu egituratzaile bat, ez baztertzaila, landa-hiri-metropolikoa. Baina trantsizio ekologikoaren alde egiteko konpromisorik hartzen ez badugu, ekoizpen-sistema osoa hartu behar duela jotzen ez badugu, eta lurralde-eredu berri batekin lotzen ez badugu, gure lorpenak partzialak izango dira berriro. ■

Erreferentziak

- Molina Ibáñez, M., Camarero Rioja, L., Sumpsi Viñas, J. M., Bardají Azcárate, I.; Pérez-Campaña, R. (2023). «El proceso de despoblación: Desequilibrios e inequidades sociales. El tiempo de las políticas públicas». In Y. Gómez Sánchez (koord.), *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (15-79). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Molina Ibáñez, M., Hernando Sanz, F., Pérez-Campaña, R. (2022). *Convergencia versus cohesión socioterritorial en España: la despoblación como reto*. ICE, *Revista de Economía*, iraila-urria 2022, 928, 9-25.
- Molina Ibáñez, M., Pérez-Campaña, R., Hernando Sanz, F. (2022). *Luces y sombras de la política territorial de la Unión Europea: su significación en el Estado español*. RIEV, *Revista Internacional de los estudios vascos*, 67, 1, 1-35.
- Molina Ibáñez, M., Pérez-Campaña, R., Hernando Sanz, F., Moya-Gómez, B. (2024). «Transición ecológica, crecimiento económico y territorio: ruralidad y energías renovables en España». In Zenbaiten artean, *Rural renaissance: normas, territorio y conflicto* (307-330). Colección Derecho Rural.
- Rockström, J. et al., A safe operating space for humanity. *Nature*, 461, 472-475.
- Rodríguez-Pose, A. (2020). The rise of populism and the revenge of the places that don't matter. *LSE Public Policy Review*, 1(1): 4, 1-9.

Luis Camarero

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala

Gainbehera demografikoaren prozesuarekin lotu ohi da landa-eremuko despopulazioa, baina, era berean, eremu horrek lurralde hutsaren adiera hartzean, erreferentzia egiten die gizarte garaikideen eraldaketa sozioespazialei, —ekoizpen-jardueren eta habitat-sistemen eraldaketarekin lotutakoei—. Bi osagaik eragiten dute «Espainia huts» fenomenoak: batetik, osagai demografikoak, populazio-egituren murrizketari eta aldaketei buruzkoak; bestetik, garapen-ereduek izandako egokitzapenak, gizarte-eta lurralde-mailakoak, ekonomia global eta postproduktiboen testuinguru berrietara. Bi faktore horiek elkar elikatzen dute, halako moldez non korapilotsua bihurtzen den argitzea zein diren despopulazioaren kausak, eta zein ondorioak.

1. Demografiaren beherakada

Bigarren trantsizio demografikoaren ondorioz, Europa hazkunde demografiko txikiko aldian dago. Gero eta nabarmenagoak dira ugalkortasunaren beherakada, amatasun-adinaren atzerapena, familia-eredu berrien hedapena eta bizi-itxaropenaren gorakada. Horiek guztiek eragindako egituretan gero eta zaharragoa da biztanleria, eta ugaltzeko gaitasun txikia du. Europako biztanleriari eutsi dioten salbuespenek, edo, hala badagokio, eskualde batzuetako biztanleriak izandako gorakada txikiak, ezinbestean dute atzean atzerriko biztanleen etorrera.

Espainian, 2022ko Ugalkortasun Indize Sintetikoaren balioa, emakume bakoitzeko haur-kopuruari dagokiona, 1,16 izan zen. Zifra hori oso urrun dago 2tik, balio horrek bermatuko bailuke gutxieneko atalasea populazioaren hazkunde bermatzeko. 2015etik, Espainiak berezko hazkunde-tasa negatiboa du. Ordutik, heriotza gehiago izan dira jaiotza baino. 2022koak dira eskuragarri dauden azken datuak; horien arabera, jaiotza-tasek ez zituzten heriotzen % 71 besterik ordeztu. Immigrazioak bakarrik eman du populazioa berritzeko aukera. Hala ere, 2008ko krisi handiaren ondorioz, migrazio-fluxuen balioa aldatu egin zen, eta zenbait urtez irteeren kopurua handiagoa izan zen sarreren aldean. Ondorioz, Espainian osoan biztanleriaren galera egon zen, oro har, 2011 eta 2015 bitartean.

Despopulazioa landa-eremukotzat jo izan da, baina ez dagokio landa-eremuari soilik. Adiera zabalagoan har daiteke, beraz, despopulazioa. Landa-eremuetan agerikoago bihurtzen den fenomeno da birjarpen demografikorik ez dagoela, eta zantzu are negatiboagoak izaten ditu berezko hazkundeak. 10.000 biztanletik beherako udalerriek 1998tik dakartzate herrestan berezko hazkunde-tasak negatiboak. XXI. mendean geldotu egin dira gazteek landatik hirira egin izan dituzten migrazioak. Alderantziz, gora egin du udalerritik txikietako biztanleriak; batetik, erretiro-migrazioen ondorioz, eta, bereziki, bertan finkatu direlako atzerriko biztanleriak, batzuetan aldi baterako, eta beste batzuetan behin betiko geratzeko.

Despopulazioa landa-eremukotzat jo izan da, baina ez dagokio landa-eremuari soilik. Adiera zabalagoan har daiteke, beraz, despopulazioa. Landa-eremuetan agerikoago bihurtzen den fenomeno da birjarpen demografikorik ez dagoela, eta zantzu are negatiboagoak izaten ditu berezko hazkundeak. 10.000 biztanletik beherako udalerriek 1998tik dakartzate herrestan berezko hazkunde-tasak negatiboak. XXI. mendean geldotu egin dira gazteek landatik hirira egin izan dituzten migrazioak. Alderantziz, gora egin du udalerritik txikietako biztanleriak; batetik, erretiro-migrazioen ondorioz, eta, bereziki, bertan finkatu direlako atzerriko biztanleriak, batzuetan aldi baterako, eta beste batzuetan behin betiko geratzeko.

1. taulan ageri da landaguneen eta hiriguneen arteko 2022rako balantze demografikoa. Ikus daitekeenez, udalerrri txikietan, mila biztanle baino gutxiago dituztenetan, berezko hazkunde-tasaren defizita milako 10 baino handiagoa da. Biztanle berririk ez

baletor, populazioaren % 1 galduko lukete urtero. Biztanle berriek aukera ematen dute galera horiek berdintzeko. Gaur egun, balioak gora egin du, eta milako 4 baino zertxobait gehiago izatera heldu da.

1. taula. Berezko hazkundearen eta migrazio-hazkundearen saldoak udalerrriaren tamainaren arabera, 2022 (tasak mila biztanleko)

	Hazkundera			Migrazio-saldoa			Guztizko hazkundera
	Heriotza-tasa	Berezkoa	Kanpokoa	Barrukoa	Guztira	Total	
<500	3,9	18,3	-14,4	10,6	8,8	19,4	4,9
500-999	5,1	15,4	-10,3	9,5	5,1	14,5	4,3
1.000-1.999	5,7	14,0	-8,3	9,0	3,4	12,5	4,2
2.000-4.999	6,6	11,7	-5,1	9,8	3,1	12,9	7,8
5.000-9.999	6,8	10,0	-3,2	10,1	2,6	12,7	9,5
10.000-49.999	7,0	9,0	-1,9	13,2	1,1	14,4	12,4
50.000-99.999	7,1	8,3	-1,1	16,3	-0,4	16,0	14,9
100.000-499.999	6,9	9,4	-2,5	15,0	-1,6	13,4	10,9
>499.999	7,4	9,7	-2,3	25,2	-3,6	21,6	19,4
Guztira	6,9	9,7	-2,8	15,3	0,0	15,3	12,5


Iturria: Biztanleriaren Berezko Mugimendua, Migrazioen eta Egoitza Aldaketen Estatistika, eta Udal Errolda. Espainiako Estatistika Institutua. Geuk egina.

Bi ondorio nagusi ditu eredu demografiko horrek. Lehen ondorioa biztanleriaren zahartze progresiboari eta bizindar demografikoaren galerari buruzkoa da. Bigarrena lotuta dago landa-biztanleriaren aniztasun gero eta handiagoarekin, eta zuzenean eragiten dio landa-identitateen eraldaketari.

Landa-biztanleriaren egitura demografikoak bi osagai nagusi ditu. Lehenik eta behin, nabarmen eragin dio landa-exodoak, 50eko hamarkadaren

amaieratik 70eko hamarkadaren erdialdera arte gertatutakoak: urte haietan itzelezko beherakada izan zuen gazteen belaunaldiak. Hutsune hori hurrengo belaunaldiek jaso zuten, eta ezinbestean egin du beherantz, denborak aurrera egin ahala. Bestetik, ugalkortasun-tasak behera eta bizi-itxaropenak gora egiteak biztanle proportzionalki zaharragoak ditu ondoriotzat. Bien ala bien eraginez, landa-biztanleria oso desorekatua da.

1. grafikoa. 1.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleriaren piramidea. Biztanleria osoarekiko kontrastea, 2023.



Iturria: Biztanleriaren etengabeko errolda, 2023, Espainiako Estatistika Institutua. Geuk egina.


Landa-populazioak desoreka handia dauka eta arazo larriak ditu, ugalkortasunaren inguruan ez ezik, baita belaunaldien arteko zaintza-kateei eusteko ere. Horrez gain, desoreka demografikoek ere ondorioak dituzte ondasun kulturean eta desberdintasunak eragiten dute talentuak lurralde batetik bestera duen banaketan

Erkagaitzat hartuz gero landa-populazioaren egitura (1.000 biztanletik beherako udalerrietan) eta Espainia (osoki), argi ikus daiteke desoreka hori (1. grafikoa). Piramidean ikus daitekeenez, gainezka egiten du landa-populazioak goialdean —zilegi izan daiteke gainzahartzetzat hartzea— eta galdu egin da ugalketa-oinarria. 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, 65 urte edo gehiago ditu biztanleen % 30,5ak —Espainian, osoki, zifra horren balioa 19,6 da. 80 urtetik gorakoei erreparatuz gero (bertan dago autonomia- eta mugikortasun-zailtasunak dituzten

biztanle gehien), guztizkoaren % 12 dira, Espainia osoaren ehunekoa (% 6) halako bi. Bada garrantzi handiko beste elementu bereizgarri bat ere: landa-biztanleriaren simetriarik eza. Horrek adierazten du landa-biztanleria maskulinizatuta dagoela, eta emakume gutxiago daudela, migrazioaren eraginez. Datu hori landa-eremuko biztanleek duten genero-desberdintasunaren adierazgarri da.

Landa-populazioak desoreka handia dauka eta arazo larriak ditu, ugalkortasunaren inguruan ez ezik, baita belaunaldien arteko zaintza-kateei eusteko ere. Horrez gain, desoreka demografikoek ere ondorioak dituzte ondasun kulturean eta desberdintasunak eragiten dute talentuak lurralde batetik bestera duen banaketan. 2. grafikoak unibertsitate-tituludunen proportzioa erakusten du, habitataren arabera. Nabarmena da landa-eremuetako defizita edo, beste era batera esanda, hiri-eremuetako superabita. Alde horien arrazoia dira, toki bateko eta besteko biztanleen laginek duten erakusgarritasuna baino, landa-eremuek jasandako migrazio-ondorioak eta talentuari eusteko zailtasunak.

2. grafikoa. 25-39 urte bitarteko unibertsitate-tituludunen proportzioa habitataren arabera, 2001-2021



Iturria: Biztanleriaren etengabeko errolda. 2023. Espainiako Estatistika Institutua. Geuk egina.

Immigrazioak eragin nabarmena du landa-biztanlerian. Nahiz eta atzeritar jatorriko biztanleriaren adierazle erlatiboak txikiagoak diren biztanleria osoari dagozkionak baino, termino absolututan, landaguneak txikiagoak direnez, handia da eremu horietan duten eragina. Oro har, landako biztanleen hamarrena baino gehiago jaio da atzerrian 20-34 urte arteko tartean. Adin-talde hori dabil lan-merkatuan sartzen, eta talde hori dago, hain zuzen,

familiak eratzeko adin-tartean. Biztanle berri horien % 16tik % 19ra inguru Espainiatik kanpo jaio da. Landa-eremuko hurrengo belaunaldia izango diren 13 urtetik beherakoen taldeari erreparatuz gero, % 18 atzeritarra dela ikus daiteke, nola Espainiatik kanpo jaio delako, hala Espainiatik kanpo jaiotako emakumezko baten seme edo alaba delako. Beste hitzetan, erabat aldatu da landa-homogeneotasun tradizionala.

2. taula. Espainiatik kanpo jaiotako atzeritar biztanleak, habitataren tamainaren arabera

	Atzerrian jaiotakoen ehunekoa		Atzeritar jatorriko 13 urtetik beherakoak
	Guztira	20 eta 34 urte bitartekoak	
<2.000	% 9,8	% 16,3	% 17,1
2.000 eta 5.000 bitartean	% 12,0	% 18,2	% 18,3
5.000 eta 10.000 bitartean	% 12,7	% 19,3	% 18,6
>10.000	% 18,4	% 29,9	% 24,9
Guztira	% 17,1	% 27,8	% 23,0

Iturria: Biztanleriaren Errolda. 2021. Espainiako Estatistika Institutua. Geuk egina.

2. Gizarte- eta lurralde-aldaketak


Landa-eremuetako oinarri ekonomikoak nabarmen aldatu dira. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak tokiko enpleguan izan ohi zuten garrantzi nagusiaren ordeztu, itzelezko jarduera-aniztasuna dago orain. 2021eko erroldako datuek adierazten dute 5.000 biztanletik beherako udalerrietan nekazaritza zihardutela gizonen % 17,8k eta emakumeen % 8,3k. Nekazaritza eraldatzeko jarduerak eta ingurumen-zerbitzuak ez ezik, enplegu-nitxo handiak dira turismoko eta ostalaritzako jarduerak –landa-garapenari lotutakoak– eta zahartzearekin lotutako zaintzaren ekonomia ere.

Desagrarizazio-prozesuak, ordea, landa-ogibideak aldatzeaz gain, mugitu egin du landa-laneko

merkatuen beraien tokiko eremua. Landa-habitateko sistemari eusteko aukera eman du mugikortasun gero eta handiagoak, guneen eta hiriguneeen arteko desplazamenduen bitartez., nekazaritzako okupazio-tasa txikia gorabehera.

3. grafikoak argi erakusten du laneko arrazoiengatik eguneroko joan-etorriek (*commuting* izenekoek) indar handia dutela landako biztanleen lan egiteko modu bereizgarritzat. XXI. mendeko bigarren hamarkadan bultzada nabarmena izan du mugimendu pendularrak. 50.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen % 70 baino gehiago egunero desplazatzen da lan egiteko. Datuak horrek erakusten du mugikortasunak berezko balioa duela landako bizitzari behar bezala eusteko.

3. grafikoa. *Commuterren* ehunekoa habitataren tamainaren arabera. Bilakaera 2001 eta 2021 bitartean




Iturria: Biztanleriaren Errolda. Espainiako Estatistika Institutua (INE). Geuk egina.

Mugikortasuna, landa-udalerrien funtzionamendu ekonomikoaren zutarrria izateaz gain, arretaren eta zerbitzuen eskuragarritasunari eusteko bektore ere bada. Beheraldi demografikoa merkataritza-beheraldiaren eta landa-eremuetako zerbitzu-eskaintzaren araberakoa da. Bukatzen ez den soka bat da, faktoreek elkar elikatzen baitute: biztanleriaren jaitsierak interes komertziala murrizten du, eta gainbehera komertzialak, aldi berean, gainbehera demografikoa areagotzen. Landa-eremuetako biztanleentzat, mugikortasunak bakarrik bermatzen du oinarritzako zerbitzuetarako

sarbidea. Horrek guztiak desberdintasun-arrakala handia sortzen du.

4. grafikoak erakusten duenez, azken hamarkadan beherakada handia izan du merkataritza-arretak udalerri txikietan. Guztira, 2012 eta 2022 artean, merkataritzan, ostalaritzan eta garraioan diharduten enpresen kopuruak % 12 egin du behera 1.000 biztanletik beherako udalerrietan. Gutxi gorabehera, jarduera-adar horietan diharduten 100 enpresatik bat desagertu egiten da urtero udalerri txikietatik —guztira, 500 inguru ekitaldi bakoitzeko—.

4. grafikoa. Merkataritzan, Ostalaritzan eta Garraioan diharduten 1.000 biztanletik beherako udalerrietako enpresak. Bilakaera 2001-2023 bitartean



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE). Espainiako Estatistika Institutua (INE). Geuk egina. G, H eta I adarrak.

Oharra: 2023ko datua ezin da alderatu, 2022an aldaketa metodologikoa izan zuelako enpresa aktiboaren definizioak.

Despopulazioak nekezko paisaia sortzen dute arretaren eta zerbitzuen eskuragarritasunerako. Literaturan dagoeneko hasi dira «janari-basamortu» terminoa erabiltzen (Ramos, 2020), oinarritzko zerbitzuetan diharduten hurbileko merkatuen galera islatzeko. 3. taulan ikus dezakegu supermerkatuek 2024an izan duten banaketa. Datuek erakusten dute landa-eremuko biztanleek gabeziak dituztela elikagaiak eskuratzeko. Supermerkatuen banaketa alderatu dugu araututa dagoen oinarritzko beste zerbitzu batekin¹. Aldeak bere horretan dira agerikoak. Farmazien eta supermerkatuen ratioa 3tik 1ekoa da, farmazien alde.

1. Farmazia Bulegoetako Zerbitzuen Arautzeari buruzko 16/1997 Legearen zehaztutakoaren arabera, farmaziak ezartzeko ratioa 2.000 eta 4.000 biztanle artekoa da.

Despopulazioa, funtsean, aglomerazio-ekonomietan oinarritutako garapen-ereduetara egokitzeko prozesu soziodemografikoa da (Rodriguez-Pose). Horrek ez du adierazten, ordea, lurraldea hustu denik. Penintsula barruko dentsitate txikia ez da fenomeno berria, Espainia betidanik izan baita, historian zehar, Europako oso dentsitate txikiko eskualde bat. Landa-habitatari eusten dion mekanismoa mugikortasuna da, edo auto-mugikortasuna, agian hobeto baitatorkio termino hori. Horrek aukera ematen du sare tinko bat sortzeko jarduerak garatzeko, baita zerbitzuak kontsumitzeko eta horiei eusteko. Halako moldez gertatu da hori, non lurralde mugikorrak irudika ditzakegun, tokiko komunitateen aurrean

3. taula. Supermerkatuen eta farmazien banaketa habitataren tamainaren arabera

	Supermerkatua duten udalerriak		Farmazia duten udalerriak		Supermerkatu-rik gabeko udalerrietako biztanleak	Farmaziarik gabeko udalerrietako biztanleak
	Kopurua	%	Kopurua	%		
<500	246	% 6,2	1257	% 31,5	644615	352088
500-999	428	% 43,1	886	% 89,2	392.637	71052
1.000-1.999	624	% 70,9	858	% 97,7	345.913	28666
2.000-4.999	885	% 92,6	948	% 99,2	193.627	21027
5.000-9.999	541	% 99,4	543	% 99,8	16.685	5830
10.000-49.999	619	% 100,0	619	% 100,0		
50.000-99.999	87	% 100,0	87	% 100,0		
100.000-499.999	59	% 100,0	59	% 100,0		
>499.999	6	% 100,0	6	% 100,0		
Guztira	3495	% 43,0	5263	% 64,7	1593477	478663

Iturria: Supermerkatuei buruzko datuak: Retail-Data, 2024. Farmaziei buruzko datuak:

«© Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa» eta 2023ko Udal Errolda. Espainiako Estatistika Institutua (INE). Geuk egina.

3. Egokitzapen soziodemografikoa

Despopulazioa, funtsean, aglomerazio-ekonomietan oinarritutako garapen-ereduetara egokitzeko prozesu soziodemografikoa da (Rodríguez-Pose). Horrek ez du adierazten, ordea, lurraldea hustu denik. Penintsula barruko dentsitate txikia ez da fenomeno berria, Espainia betidanik izan baita, historian zehar, Europako oso dentsitate txikiko eskualde bat. Landa-habitatari eusten dion mekanismoa mugikortasuna da, edo auto-mugikortasuna, agian hobeto baitatorkio termino hori. Horrek aukera ematen du sare tinko bat sortzeko jarduerak garatzeko, baita zerbitzuak kontsumitzeko eta horiei eusteko. Halako moldez gertatu da hori, non lurralde mugikorrak irudika ditzakegun, tokiko komunitateen aurrean.

Ekonomiek izandako lekualdaketa-prozesuak eragin du despopulazioa. Prozesu horrek asko garapen handia ekarri du mugikortasunean, baina, aldi berean, hark hauspotu du atzeraldi demografikorako joeren eragina landa eremuetan.

Despopulazioa, hein batean, iruditeria kolektiboaren zati da, galdutako gizarte idealizatuak aurkeztearen zati. Agian, ikuskera horren atzean benetako arazoak

ezkutatu ditugu: arazo horiek ez dira landa-produktu, baizik eta gure lurralde-garapen desorekatuaren ereduaren eta gure gizarteen desoreka demografikoen erronkaren ondorio. ■

Bibliografia

- Camarero, L., Oliva, J. «[Thinking in rural gap: mobility and social inequalities](#)». *Palgrave Communications* 5, 95 (2019).
- Camarero, L., & Oliva, J. (2023). «[Movilidad y cohesión territorial. La conformación del sistema rural-urbano de la automovilidad](#)». *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (185), 23.-42. or.
- Meli, G. (2020). «[Dinámicas de abastecimiento alimentario en las zonas rurales españolas: resolviendo la comida diaria cuando faltan las tiendas](#)», in *Panorama Social*, 31: 87.-100. or.
- Rodríguez-Pose, A. (2018) «[The revenge of the places that don't matter \(and what to do about it\)](#)». *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 11(1): 189.-209. or.

Eladio Arnalte Alegre eta Dionisio Ortiz Miranda
Valentziako Unibertsitate Politeknikoa

1. Sarrera

Espainiako komunikabideetan, landaguneek eta nekazaritzak itzal handiagoa izan dute azken hilabeteetan. 2024ko otsailean hasitako eta apirilaren hasierara arte luzatutako nekazarien protestek arreta handiagoa erakarri zuten, eta arreta hori areagotu egin zen zenbait hauteskunde-deialdirekin bat egitean. Mobilizazio horien harira, ustiategien egoerari lotutako argudioak agertu ziren; tamaina txiki eta ertaineko ustiategiei buruzkoak, bereziki. Argudio horiek ulertzeko behar-beharrezkoa da ustiategien ezaugarri estrukturalak eta haien egoera ekonomikoak zer-nolako bilakaera izan duten aztertzea.

Hain zuzen ere, alderdi horiek jorratuko ditugu artikulu labur honetan. Aldaketa estrukturalak Espainian zer-nolako eragina izan duen eta zer ustiategi-egitura sortu dituen aztertuko dugu, eta nola egitura horien atzean egoera ekonomiko desberdinak dauden ere bai. Azkenik, nekazariak eta haien ustiategiek ez ezik, beste eragile batzuek (kooperatibak, nekazaritza-zerbitzuetak enpresak, inbertsio-funtsak) egungo eraldaketan zeregin garrantzitsua betetzen ari direla ikusiko dugu.

2. Egitura egokitze prozesua eta horren eragina Espainiako nekazaritzan

Azken hamarkadetan, egitura egokitze prozesuek gogor baldintzatu dute herrialde industrializatuak nekazaritzaren eraldaketa. Ustiategi txikiak eta ertainak nagusi ziren eskualdeetan bereziki (XX. mendearen erdialdean horixe zen Europako nekazari gehien kasua), ustiategiek etengabe egokitu behar izan dute merkatuen baldintza aldakorretara, nekazaritza-politikak ezartzen dituen erregulazioetara eta aurrerapen teknikoak barneratzeko eskakizunetara. Hori guztia egin behar izan dute lehiakortasuna hobetzen lagundu dien eskala-ekonomiak lortzeko.

Ustiategi guztiek ezin izaten dute egokitu, eta, herrialde horietan, ustiategi-kopurua pixkanaka murriztearekin batera, handitu egin da biziraun duten ustiategien tamaina.

Prozesu horrek eta prozesuaren ondorioek balorazio kontrajarriak jaso dituzte. Jarrera batzuen ustez, positiboa da hobeto dimentsionatutako ustiategiak edukitzea, lehiakortasun handiagoa baitute. Landari lotuagoa dagoen ikuspegian iritziz, ordea, negatiboa da gero eta nekazari gutxiago izatea, haiek baitira landa-eremua kudeatzen dutenak (Arnalte, Moreno eta Ortiz, 2013).

Egokitze-prozesuaren barruan, bi bide bereiz daitezke. Lehenengo bidean, «hazten ari diren» ustiategiek xurgatzen dute desagertzen ari direnek libre utzitako lurra, eta, lurralde-oinarria handitzeaz gain, eskala-ekonomiak aprobetxatzen dituzte. Ustiategiak eta nekazaritza-lurraren erabilera kontzentratu egiten dira horrela. Baina bigarren bide bat ere badago, zenbait intentsifikazio-modutan oinarrituta (laboreak areagotzea edo birbideratzea, abeltzaintza sartzea edo abeltzaintza-ekoizpena areagotzea). Bide horretan ez dago ustiategien lurralde-oinarria handitu beharrik, eta, beraz, beste ustiategiek ez dute zertan desagertu, baina kapital-ekarpen behar dira (Arnalte, 2006). Jakina, bi bide horiek ez daude erabat desberdinduta, eta hazkunde-estrategia askok bien elementuak uztartzen dituzte.


Egoera horretan, nola jokatu du Espainiako nekazaritzak azken hamarkadetan? Errolda-datuen alderaketa historiko zorrotzena Ruiz-Mayak eta Regidorrek (2019) egin zuten, 1982ko nekazaritza-erroldaren datuak 2009ko erroldaren metodologiara egokituz. Ikerketa horren arabera, 27 urte horietan ia erdira jaitsi zen nekazaritza-ustiategien kopurua (% 46 jaitsi zen), eta galera horri esan zioten «nekazaritza-erreforma isila». Ustiategien beherakadaren erritmoa moteldu egin da datuen azken tartean (% 7,6 murriztu da 2009tik eta 2020ra bitarte), baina batez

besteko dimentsio fisikoa (zenbat hektarea ustiategi bakoitzeko) pixka bat igo da (% 7,4).

Emaitzak hobeto neurtzeko, baliagarria da gure inguruko Europako herrialde batzuekin alderatzea.

1. grafikoan ageri da 2005-2020 epearen alderaketa, EUROSTATEk homogeneizatutako Egituren Errolden eta Inkesten datuetan oinarrituta.

1. grafikoa. Nekazaritza-ustiategiaren kopuruaren bilakaera
(Ehunekotan, 2005eko balioak=100)



Iturria: Matthews, A. (2022): «Tracking structural change in EU agriculture» capreform.eu, eta EUROSTATen datu-basea.

Ikus daitekeenez, 15 urte horietan, Europako herrialdeetan beherakada handiagoa jasan du ustiategi-kopuruak (% 30-35) Espainiako nekazaritzan baino (% 15). Ustiategi bakoitzeko batez besteko azalera nola hazi izan den aztertzen badugu, aldeak daude ezaugarri bereko herrialdeen artean.

Beraz, Europa osoarekin alderatuta, Espainiako nekazaritzaren egokitzapena nabarmena izan da, baldin eta ustiategiaren lurralde-hedapenaren bide klasikoari erreparatu badiogu. Bigarren bidearen, hau da, intentsifikazioaren adierazleei erreparatuta, aldiz, kontrakoa gertatzen da.

Nekazaritzako Erroldak zeharka adierazten digute zer balio duen nekazaritzako ustiategiaren ekoizpenak.

Ekoizpen Estandar Osoa (EEO) ematen digu informazio hori, eta, berau kalkulatzeko, koefiziente estandarrak aplikatzen zaizkio labore bakoitzaren hektarea-kopuruari eta ustiategi bakoitzak dituen abelburu-kopuruari. Espainiako nekazaritzaren guztizko EEOa % 33 hazi zen 2009. eta 2020. urteen artean, inguruko herrialdeetan baino dezente gehiago (% 12 Alemanian, % 27 Frantzia, % 14 Italian). Herbehereetako nekazaritza, hau da, Europaren barruan intentsifikazioaren eredu den nekazaritza (% 31) baino pixka bat gehiago ere hazi zen. Espainiako nekazaritzan, intentsifikazio-bidezko egokitzapena eta hazkundea nagusi direla dirudi.

Hortaz, ustiategiaren kopurua murrizten ari da, eta hazten ari da nekazaritza-ekoizpena, baina zertan da

Espainiako nekazaritza-azalera? Nekazaritza Azalera Erabilgarria (NAE) berdintsu mantendu da (23,5-24 milioi hektarea inguru) azken 40 urteetan.

3. Nekazaritzako ustiatgien egitura Espainian, 2020ko erroldaren arabera

EUROSTATEk nekazaritza-egiturari buruz ematen dituen zifrak aztertzean, deigarria da Espainian zenbat nekazaritza-ustiategi erregistratzen diren

(915.000 2020an). Antzeko lurralde-hedadura duten herrialdeetan baino askoz ere gehiago dira (393.000 Frantzia, 263.000 Alemanian), Espainian ustiategi txiki askok bizirautez dutelako.

Ustiatgien egitura zein den jakiteko, baliagarria da dimentsio ekonomikoaren arabera sailkatzea; alegia, haien ekoizpen estandarren balioaren arabera (EEO). 1. taulan ikus dezakegu zer-nolakoa zen egitura hori Espainian, 2020an.

1. taula. Ustiatgien banaketa eta pisu erlatiboa Ekoizpen Estandar Osoko (EEO) estratuen arabera. Espainia 2020

Ekoizpen Estandar Osoa	Ustiategi-kopurua	Aldagai bakoitzaren guztizkoaren %			
		Zenbakia	NAE	AUG (*)	EEO
8.000 € baino gutxiago	451.309	49,3	8,5	0,9	3,2
8.000 € eta 24.999 € artean	211.889	23,2	12,9	2,7	6,8
25.000 € eta 49.999 € artean	92.881	10,2	14,1	4,0	7,4
50.000 € eta 99.999 € artean	73.894	8,1	20,0	7,2	11,7
100.000 € eta 499.999 € artean	71.321	7,8	35,3	29,9	31,8
500.000 € baino gehiago	13.576	1,5	9,2	55,3	39,1
GUZTIRA	914.871	100	100	100	100

(*) Abeltzaintzako unitateak guztira
Iturria: EIN (2022); Censo Agrario de España 2020.

Taulan ikusten da Erroldan erregistratutako ustiatgien ia erdiek 8.000 €-tik beherako ekoizpen estandarra dutela¹. Zer dira ustiategi horiek? EEOa kalkulatzeko aplikatutako koefizienteen arabera, 8.000 euro horiek lortzeko, 14 hektarea gari bigun behar dira Gaztela eta Leonen; Valentziako Erkidegoan, 1,3 hektarea-zitriko; Galizian, 3,5 esne-behi; eta, Andaluzian, berriz, 4 hektarea-olibondo. Neurri horietatik beherako ustiategiak nekez jo daitezke enpresa-jardueratzat. Kasu askotan, erretiratuek (titularren % 52k 65 urte baino gehiago dituzte) edo lanaldi partzialean dabiltzanek lantzen dituzte ustiategi horiek. Eta, beste kasu askotan, ez dira existitzen,

eta beste nekazari batzuek lantzen dituzte lagapen informaleen bidez.

Taulako gainerako estratuetan, tamaina handiena duenari erreparatuko diogu orain; alegia, 500.000 eurotik gorako EEOa dutenei. 13.500 ustiategi besterik ez dira, baina ekoizpen osoaren % 39 eta azientaren % 55 kontrolatzen dute. Oso ustiategi intentsiboak dira, ekoizpenak norantz jotzen duen aztertzean ikus daitekeen moduan. Erdia baino gehiago Granívoros OTEkoak dira² (txerri-hazkuntza eta hegazti-hazkuntza), eta heren bat gehiago baratze-ustiatgien, zurezko laboreetan espezializatutakoen

1. Frantzia % 14,2 bakarrik dira 8.000 €-tik beherako EEOa duten ustiategiak, eta Alemanian % 15,8 baino ez.

2. Orientabide Tekniko Ekonomikoek (OTE) ekoizpen-joera nagusiaren arabera sailkatzen dituzte nekazaritza-ustiategiak.

(batez ere fruta-arbolak, olibadiak eta mahastiak) eta esne-ekoizpenean espezializatutako ustiategien artean banatuta dago.

Nekazaritza Erroldak jakinarazten digu ustiategien titularren nortasuna fisikoa edo juridikoa den. Datu garrantzitsuak dira ustiategien izaera ezagutzeko, baita gero eta konplexuagoak diren kudeatzeko moduak ezagutzeko ere.

2020ko Erroldan bi kategoria bereizi ziren nekazaritza-ustiategien titular diren pertsona juridikoen artean. Batetik, merkataritza-sozietateak daude, eta, bestetik, «beste izaera juridiko bat» duten titularrak. Azken horretan sartuko lirateke erakunde publikoak, kooperatibak, sozietate zibilak eta gainerako izaera juridikoak³. Titulartzat pertsona juridiko bat duten ustiategiak (formula horietako bat edo bestea erabilita) ez dira hainbeste Espainiako nekazaritzan. Guztizkoaren % 6,5 baino ez dira (% 3,8 merkataritza-sozietateak dira, eta gainerakoek beste izaera bat dute), baina nekazaritza horren aldagai garrantzitsuak kontrolatzen dituzte: NAEren % 23 dute, abeltzaintza-unitateen % 49 eta ekoizpen estandar osoaren % 40.

Ustiategi horiek hartzen duten ehunekoa, jakina, nabarmenagoa da dimentsio ekonomiko handieneko estratuetan. 250.000 eta 500.000 euro arteko EEOa duten ustiategien % 41ek eta 500.000 eurotik gorako EEOa dutenen % 61ek nortasun juridikoa dute. Ustiategien titular juridiko horiek izan duten hazkundeari dagokionez, nahikoa da esatea 2003ko Egituren Inkestak ustiategien titular ziren 16.000 merkataritza-sozietate erregistratu zituela, eta 2009ko Erroldak eta 2020ko Erroldak 24.000 eta 35.000 hurrenez hurren.

4. Nekazaritza-ustiategien errenta, egokitzapen-eragile gisa


Nekazaritza-ustiategien dinamika aztertzeke, emaitza ekonomikoei erreparatu behar diegu. Informazio hori Nekazaritza Ministerioak urtero egiten duen Nekazaritzako Kontabilitate Sare Nazionalak (RECAN) ematen digu. Sare horrek esaten du, zehatz-mehatz, zer-nolako diru-sarrera eta kostu-egitura duten ustiategiek hainbat ekoizpen-orientabidetarako (OTE) eta dimentsio ekonomikoko hainbat estratutarako (EEOaren arabera neurtua).

2. grafikoak erakusten du zer bilakaera izan duen ekoizpen-unitateen Ustiapeneko Errenta Garbiak (UEG)⁴, dimentsio ekonomikoaren arabera, 2009tik 2011ra eta 2020tik 2022ra bitartean.

3. 2020ko Erroldaren metodologiaren arabera, Ondasun Erkidegoak, 2016ko Egituren Inkestara arte pertsona juridikotzat hartzen zirenak, pertsona fisikoen kategorian sartuta daude. Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen formula hori «hazten» ari diren familia-ustiategiek erabili izan dute maiz, zerga-abantaila batzuk lortzeko edo ustiategien titulartasunaren egoera konplexuetara hobeto egokitzeko (Moreno, 2012).

4. Ustiapen Errenta Garbiak adierazten du zer emaitza ekonomiko lortu behar den nekazariak jarritako ekoizpen-faktore propioak (lana, lurra eta kapitala) ordaintzeko eta nekazaritzako enpresarien arriskuak (galerak/irabaziak) ordaintzeko. Adierazle hori kalkulatzeko, Ustiapeneko Balio Erantsi Garbiari, inbertsiorako dirulaguntza garbiak gehitu, eta kanpoko faktoreen (soldatak, errentamenduak) ordainsaria kentzen zaio.

2. grafikoa. Ustiapen Errenta Garbiaren bilakaera, termino errealean



Oharra: 2020-2022 hirurtekoko balioak 2010eko eurotan deflaktatu dira.
Iturria: guk egindakoa, RECANen datuak oinarri hartuta.


Grafiko horretatik bi ondorio nagusi atera daitezke. Lehenik eta behin, deigarria da nola urrundu diren nekazaritza-ustiategi oso handiak (500 mila €-tik beherako EEOa), errendimendu ekonomikoari dagokionez, gainerako ekoizpen-unitateetatik. Epearen hasieran estratu horren eta aurrekoaren (100-500 mila €) arteko UEG-erlazioa 2,6koa bazen ere, azken urteetan 6,4raino areagoatu da. Ez da halakorik gertatu dimentsio ekonomikoa duten beste estratuetan. Gainera, tamaina handieneko ustiategien jauzi hori orokorra izan da Espainiako nekazaritzako OTE nagusietan, eta intentsifikazio-prozesuen ondorioz jazo da argi eta garbi. Adibidez, mahastizaintzaren, fruta-arbolen eta olibadien OTEetan, ekoizpena nabarmen intentsifikatu dutelako urrundu dira ustiategi handiak gainerakoetatik; estratu horretako ustiategien UEG/ha NAEa % 60 eta % 160 artean handiagoa da OTEko batez bestekoa baino. Abeltzaintza-ustiategietan, berriz, abeltzaintza-dentsitatean alde handia dagoelako eman da jauzi hori. Tamaina handiko ustiategiekin gainerako estratuetakoek baino askoz ere gehiago handitu dute NAEko hektareako abere larri kopurua, baita azpiko estratua soilik kontuan hartuta ere. Horrela, ustiategi-nukleo bat eratu da, eta, jarraian ikusiko dugun bezala, langile-kopurua handitzeaz gain, nukleo hori, termino ekonomikoetan, urrundu egin da gainerako ekoizpen-unitateetatik.

Bigarrenik, ustiategi handien estratu horren azpitik, 50.000 eta 500.000 € bitarteko ustiategien UEGa % 8-9 handitu da termino errealean. Epe horretan bertan, lurraren aukera-kostua (batez besteko errentamendu-prezioetatik abiatuta) % 5 igo da termino errealean, Nekazaritza Ministerioaren datuen arabera. Era berean, ustiategiko lan propioaren aukera-kostua ere handitu egin da (langileen batez besteko ordainsarietatik abiatuta neur dezakegu hori). Termino errealean, «langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia», EINeren arabera, % 10 handitu da 2009 eta 2020 artean, Espainiako ekonomia osoan. Bilakaera horiek alderatuta ikus dezakegu nola ustiategien estratu horietan ez den benetako narriadurarik gertatu nekazariak jarritako berezko produkzio-faktoreak (lurra, lana, kapitala) ordaintzeko gaitasunean.

Azkenik, 50.000 €-tik beherako EEOa duten ustiategien UEGa % 2-3 jaitsi da termino errealean, eta, horren ondorioz, ekoizpeneko berezko kostuak ordaintzeko gaitasuna narriatu egin da.

Emaizta ekonomiko horiek, 3. grafikoa adierazten den moduan, isla argia dute hiru talde horietako bakoitzaren ustiapen-kopuruaren bilakaeran. Grafiko horretan ikus daitekeenez, errolden arteko azken aldian, 50.000 €-tik gorako EEOa duten ustiategiak ugaritu egin dira, eta hori ez dator bat maila horren azpiko estratuetako geldialdiarekin edo beherakadarekin.

3. grafikoa. Ustiategi-kopuruaren aldakuntza (ehunekoetan) dimentsio ekonomikoko estratuen arabera, 2009 eta 2020 artean



Lortutako emaitzak bat datoz Nekazaritza Ministerioak RECAN-datueta oinarrituta egindako beste azterlan batzuekin. *2022ko adierazleen urteko txostenaren* arabera, Nekazariaren Lanaren Errenta (lanaldiaren ordainketari dagokiona), 2018-2020 hirurtekoan, ekonomiaren batez besteko soldata baino handiagoa izan zen 100.000 €-tik gorako EEOa zuten ustiategietan, eta % 25 txikiagoa baino ez 50.000 € eta 100.000 € arteko EEOa zuten ustiategietan (2023ko MAPA). 50.000 €-tik beherako estratuetan, ordea, lanaren ordainsaria ekonomia osoarena baino nabarmen txikiagoa izan zen (MAPA, 2023, 118-119 or.).

5. Nekazariak eta eraldaketa estrukturalaren beste eragile batzuk.

Ustiategien emaitza ekonomikoen eta gertatzen ari den eraldaketa estrukturalaren atzean, noski, eragile nagusi batzuk daude: nekazariak. Prozesu horretan protagonismo nabarmena dute nekazari gazteek edo nahiko gazteek, pixkanaka enpresa-ezaugarriak hartzen dituzten familia-oinarriko ustiategietan ari direnek. Normalean, ustiategian haiek bakarrik jarduten dute (familia-ustiategiak

indibidualizatzeko prozesua sendotu egin da)⁵, eta soldatapeko langileak kontratatzen dituzte. Lurra erosten edo alokatzen dute, eta intentsifikatu edo, batzuetan, ekoizpenak birbideratzen dituzte. Inbertitu egiten dute, teknifikatu eta digitalizatu egiten dira, eta NPBk (Nekazaritza Politika Bateratua) ezarritako ingurumen-erregulazioetara ere egokitzen dira.

Hala eta guztiz, haien funtzionamendua eta irauten duten ustiategi guztiena ulertzeko kontuan hartu behar dira lurralde bakoitzeko testuinguruak, baita horiek biltzen eta baldintzatzen dituzten enpresa-egiturak ere. Hemen, integrazio horren bi alor aipatuko ditugu: nekazaritza-zerbitzuetako enpresak eta nekazaritzako elikagaien kooperatibak.

Nekazaritza- eta basogintza-zerbitzuetako enpresen sare bat egotea, sarritan beren makineria erabiliz beste ustiategi batzuetan aritzen diren nekazariak barne hartuta, garrantzi handiko faktorea da tamaina txikiko eta ertaineko nekazaritza-enpresentzat; izan ere,

5. Nekazaritza Erroldaren arabera, titularren senide diren langileen kopurua % 50 jaitsi zen 2009 eta 2020 artean. Erabilitako langile guztien % 49 soldatapekoa zen 2020an; 2009an, berriz, % 39.

ezin izango lituzkete mekanizazio-prozesuak beren ekipamenduarekin gauzatu. Era berean, nekazaritza-zerbitzuetako enpresa horiei esker errazago egokitzen dira ustiategiak merkatuaren eskakizunek edo erregulazio berriek dakartzaten aldaketetara, baita ezagutzen gero eta intentsiboagoak diren kudeaketa-ereduetara ere. Azken batean, kanpora ateratzeko formula horiek erabiltzeak eskala-ekonomiek ustiategietan duten eragina arintzen lagun dezake, eta, horrela, ustiategi txikienei eusten. Dena den, kontuan hartu behar da zer-nolako eragina duen zerbitzu gero eta askotarikoagoak eta espezializatuagoak erabiltzeak ekoizpen-kostuetan.

Bigarrenik, nekazaritza-sistemen eraldaketa estrukturalak zerikusi handia dute ekintza kolektiboko prozesuak egotearekin edo ez egotearekin. Prozesu horiek, koordinazioaren bidez, balio-kateetan negoziatzeko baliabideak edo gaitasuna ematen diete ustiategi txikiagoei; alegia, banaka nekez eskura dezaketen gaitasuna ematen diete. Nekazaritzako elikagaien kooperatibismoa da horren eredu argiena, eta ibilbide luzea eta sendoa du gure herrialdean. Kasu batzuetan, kooperatibak beren jardura eremu tradizionaletatik haratago eramaten ari dira (bazkideei zerbitzuak ematea, sargaiak saltzea edo elkarrekin merkaturatzea), ekoizpenaren plangintzan zeregin proaktiboagoa hartuz edo zuzeneko kudeaketako modalitateetan protagonismo handiagoa hartuz. Horrek guztiak, neurri batean, ustiategi txikien eta ertainen muga estrukturalak desaktibatzen ditu.

Inbertsio-funtsak bestelakoak dira. Joan den hamarkadaren amaieran hasi ziren Espainiako nekazaritzako elikagaien sektorean sartzen, askotariko eragiketen bidez. Alde batetik, merkataritza-enpresen akzioak erosi dituzte, batez ere fruta- eta barazki-sektorean, eta horien hazkundera eta hedapena finantzatu dute. Enpresa horiek lur propioen bolumen handiak ere badituzte, eta haien merkataritza-prozesuan integratzen dituzte. Bestalde, funtsek zurezko laboreetarako (olibadia, fruitu lehorrak, almendra eta pistatxoa, bereziki) finkak ere erosi dituzte, eta batzuetan kudeatu ere bai. Tamaina handikoak izaten dira beti, 200 hektareakoak gutxienez, eta 400 edo 500 hektareara iristen dira maiz.

Lur-merkatu horretan esku hartzen duten aholkularitza-enpresetako arduradun batzuek adierazi dutenez, Espainiako eta Portugalgo hegoaldeko

jabetza handiak dira, besteak beste, finantza-kapital horien azken aldiko etorreraren arrazoietakoa bat. Oro har, ez dakigu zenbat enpresa kontrolatzen dituzten inbertsio-funts horiek, ezta zer azalera kontrolatzen duten ere. Hipotesi baten arabera, haiek eragin dute, hein batean, aurrez aipatu dugun gorakada; alegia, dimentsio handieneko estratuko (500.000 €-tik gorako ekoizpen estandarra) ustiategien hazkundera.

6. Ondorioak

Espainiako nekazaritza, beste herrialde industrializatu batzuetan gertatzen den bezala, egokitze- eta berregituraketa-prozesu batean murgilduta dago duela hamarkada batzuetatik hona. Gero eta estuagoak diren ustiapen-marjinek eragin dute prozesu hori, eta ustiategi txikiagoei erasaten die bereziki. Prozesu horrek erritmo-gorabeherak ditu elikagaien merkatuen egoeraren arabera; batik bat, merkatu horiek lortzen duten globalizazio-mailaren arabera. Aplikaturako politikek ere, jakina, egokitze-erritmo horiek baldintzatzen dituzte.

Lan labur honetan egiaztatu dugu zer-nolako harremana dagoen ustiategi-taldeen edo -estratuen emaitza ekonomikoen bilakaeraren eta egokitze-prozesuaren barruan duten portaeraren (kopurua handitzea, gutxitzea edo desagertzea) artean. Ustiategi oso handien talde txiki batek izugarri handitu ditu bere errentak, eta Espainiako gainerako nekazaritzatik «urruntzen» da argi eta garbi. Nekazaritzako negoziotzat har ditzakegun gainerako ustiategien artean (ekoizpen estandarra 8.000 eurotik gorakoa dutenak), dimentsio ekonomiko ertain-altua (50.000 eta 500.000 euro arteko EEOa dutenak, 150.000 inguru) dutenen kopurua hazi egin da, eta 8.000 eta 50.000 euro arteko EEOa duten ustiategiei (300.000 inguru, «nekazaritzako negozioen» % 66) ezin izan diete errentei eutsi aurreko hamarkadan, eta kopurua ia geldirik mantendu da. 8.000 €-ko EEOra ere iritsiko ez liratekeen ustiategien kopurua nabarmen murriztu da aztertutako epean.

Azken batean, nekazaritza horren barruan alde nabarmenak daude, eta ustiapen-taldeen emaitza ekonomikoek bilakaera kontrajarriak dituzte. Horregatik, ezin da jarraitu esaten Espainiako nekazaritza «oker» doala (edo ondo doala), ezta errentagarria dela edo ez dela ere. Sektorearen egoerari

buruzko diskurtso sinplitek eta homogeneousatzaileek ez digute uzten errealitate anitzagoa ulertzen, eta azterketa zehatzagoak eta esku-hartze berezituagoak behar dira errealitate hori atzemateko. ■

Bibliografia

- Arnalte, E. (2006). «Economía política del proceso de ajuste estructural en la agricultura de los países desarrollados». In Arnalte, E. (Koord.) *Políticas agrarias y ajuste estructural en la agricultura española*. Serie Estudios. Madril. MAPA. 19.-54. or.
- Arnalte, E., Moreno, O. eta Ortiz, D. (2013) «La dimensión social del proceso de ajuste estructural en la agricultura española». In Gómez-Limón, J. A. eta Reig, E. (Argit.) *La sostenibilidad de la agricultura española*. Cajamar Caja Rural, Almería. 117.-154. or.
- MAPA (2023). *Informe anual de indicadores 2022*. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Madril.
- Moreno, O. (2012). «Revisando las categorías de análisis de la agricultura familiar: un caso de estudio en el Campo de Cartagena», *Revista Española de Estudios Agrosociales y Pesqueros*, 232, 101.-129. or.
- Ruiz-Maya L. eta Regidor, J. G. (2019). *Evolución de la agricultura española 1982-2009. ¿Una reforma agraria silenciosa?*. Madril, MAPA.

Isabel Bardají Azcarate y José María Sumpsi Viñas
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

1. Sarrera

1962an sortu zenetik, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) helburu nagusiak honako hauek izan dira: elikagaien autohornidura-maila handia bermatzea, arrazoizko prezioetan, eta nekazaritzaren eta gainerako produkzio-sektoreen artean errenta parekatuak lortzea. Hori lortzeko metodotzat baliatu zuten nekazariari prezioak bermatzea eta muga-zerga aldakorak zituzten mugak babestea. Horren ondorioz, nekazaritza-ekoizpen nagusiek nabarmen egin zuten gora, 80ko hamarkadaren hasieran soberakin handiak sortu, eta diru-laguntzekin esportatu behar izateraino. Laburbilduz, 60ko eta 70eko hamarkadetakako NPBk itzelezko arrakasta izan zuen helburuak lortzeari dagokionez, baina etengabe gorantz ziharduen nekazaritza-aurrekontuaren kontura. Hori horrela, kontrolatu egin behar izan zuten 80ko hamarkadaren hasieratik aurrera, nekazaritza-gastuaren egonkortzaileak erabilita. Bestalde, Europako nekazaritzari laguntzeko sistemak distortsio handia eragin zuen nekazaritzako produktuen nazioarteko merkataritzan. Beraz, 1993ko GATT Uruguai Errondan nekazaritzako nazioarteko merkataritza liberalizatzearen inguruan akordio batera heltzeko, beharrezkoa izan zen, 1992an, hektareen eta abelburuen arabera laguntzak ematea, berme-prezioen sistemarekin jarraitu beharrean.

Herrialde kide batzuek aurka egin zieten hektareako laguntzei, batik bat Erresuma Batuak, mugimendu ekologistek eta iritziz publikoaren zati batek –batik bat hirietakoak– babestuta. Aurkaritza horrek indar hartu zuenez, Europako Batzordeak (EB) hektareako laguntzak legitimatzeko prozesu bat diseinatu eta abiarazi zuen; oraingoan, ingurumenari eta landa-eremuen zaintzari egindako ekarpenean oinarrituta. NPBk erreformak egin ahala, gero eta gehiago zorrotz zituen laguntzak jasotzeko bete beharreko ingurumen-baldintzak. Dena den, nahiz eta aldaketa horiek guztiz zilegi izan (izan ere, EBk iritziz publikoaren aurrean justifikatu behar zuen NPBren

laguntzetara bideratutako aurrekontu izugarria), egiaztatu egin behar zen ingurumen-baldintza eta -praktika horiek betetzen zirela. Horrek ezinbestean areagotu zuen laguntzak eskatzeko burokrazia, eta zorrotz egin zuen nekazarietako kontrola, ordaintan nolabaiteko gaitzespena eraginez nekazarien artean.

Komunitateetako landa-politikari 1985ean ekin zitzaion, Batzordeak Kontseiluari helarazitako Landa Munduaren Etorkizunari buruzko komunikazio baten bidez¹. Landa-politika horren giltzarria 1988ko egitura-funtzen erreforma izan zen. Hala, 80ko hamarkadaren amaierako eta 90eko hamarkadako landa-politika komunitarioaren lehen etapa egitura-funtzen eskutik etorri zen, nekazaritzako egitura-politikak osatuta. Hala ere irizpidez aldatu zen 2000 Agenda ezartzean: landa-garapenerako politika egitura-funtsetatik NPBra igaro zen, eta ordutik NPBen bigarren zatirri bihurtu zen (landa-garapenerako laguntzak).

2. Nekazaritza eta landa-mundua bidegurutzean

Duela gutxi, Europar Batasunak, 2019an onartutako Itun Berdearen² bidez, 2030 Agendaren garapen jasangarrirako helburuen zati bat txertatu du bere ekintzatan, eta helburu horiek ez dagozkio soilik nekazaritzari. Zehazki, sektoreari bete-betean eragiten dioten bi Estrategia dira, Itun Berdea garatzeko. Lehenbizikoak, Baserritik Mahaira Estrategiak³,

1. Batzordeak, 1988ko uztailaren 29an, Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa | COM(88)501 final.
2. https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es.
3. [Communication from the commission to the European parliament, the council, the European economic and social committee and the committee of the regions A Farm to Fork Strategy for a fair, healthy and environmentally-friendly](#)

baitan ditu ongarriak eta fitosanitarioak murrizteko eta ekoizpen ekologikoa handitzeko helburuak. Besteak, Biodibertsitate Estrategiak⁴, nekazaritza-jarduera eta naturaren kontserbazioa uztartzeko helburuak ezartzen ditu. Estrategia horiek filosofia bat, ekintza-esparru bat eta lortu beharreko helburu batzuk adierazten dituzte, baina ez dute zehazten horiek nola lortu behar diren. NPB nekazaritza arautzeko funtsezko tresna den aldetik, kontuan izan behar da egungo politika egiteko prozesua, 2023/2027 aldirako indarrean dagoena, 2018an hasi zela, Itun Berdea onartu aurretik eta Baserritik Mahaira Estrategia onartu baino bi urte lehenago, eta, beraz, politika horrek neurriak ez datozela guztiz bat haren helburuekin.

Bestetik, joan den mendeko 90eko hamarkadan hasitako ingurumen-helburuen sendotzeari jarraikiz, oraingo NPBk beste urrats bat ematen du trantsizio ekologikoari laguntzeko ildoan. Ildo horretako neurriak dira, besteak beste, zuzeneko ordainketak jasotzeko baldintzazkotasuna indartzea, baita eko-erregimenak ezartzea ere, hau da, asmo handiko borondatezko ingurumen-praktikak egiteagatik jasotako laguntza gehigarriak. Aipatzekoa da koaderno digitalaren sorrera ere. Horiek guztiek ere lagundu egin behar digute Itun Berdearen eta Baserritik Mahaira Estrategiaren helburuetara hurbiltzen. Hala ere, nekazaritzaren sektoreak gogor egin du neurri horiek aplikatzearen aurka.

Nekazariak honako hau diote, besteak beste, kontra daudela argudiatzeko: gehiegizko burokrasia sortzen dutela, ezarritako ingurumen-neurriek jarduera zedarritzen dutela eta, batzuen ustez, koaderno digitala erabiltzen denbora handia eman behar izateaz gain, kontrola areagotzen duela. Demanda horiei gehitzekoak dira beste auzi batzuk ere, hala nola hirugarren herrialdeetatik sartutako nekazaritza-produktuen inportazioek ez dituztela EBko ingurumen-baldintzak bete behar, okerrera egin dutela jasotako prezioek eta handitu egin direla ekoizpen-kostuak, edo, besterik gabe, nekazaritza-produktuak munduko prezioetan sartu direla, eta EBko jarduera,

horren eraginez, ez dela sarigarria. Demanda edo arazo horietako askok benetako justifikazioa dute, baina ez kasu guztietan.

Eskatutako karga administratibo batzuk sinplifikatu egin daitezke, baina, neurri handi batean, laguntza publikoen kontrolari lotuta daude, eta funts publikoak jasotzen dituen edozein jarduera dago horren mende. Gogoan izan behar da Espainiako nekazaritzak urtero 7 mila milioi euro inguru jasotzen dituela, eta horietatik 4,8 mila milioi zuzeneko laguntzei dagozkiela. 630.000 nekazarik eta abeltzainek jasotzen dituzte, gutxi gorabehera, azken laguntza horien onurak. Gainera, kontuan hartu behar da nahiz eta eko-erregimenen laguntzetarako eskatutako ingurumen-baldintza batzuk malgutu daitezkeen, ezin zaiola entzungor egin nekazaritza jasangarri batera iragan beharrari. Bertara zein epetan eta nola heldu eztabaida daitekeen arren, helburuak negoziatzeko dira. Koaderno digitalak, era berean, nekazaritzak hain beharrezko zuen digitalizazioa bultzatu du. Hori horrela, aukeratzat hartu beharko litzateke arazotzat baino, nahiz eta egia den zailtasunak ekar diezazkiekeela nekazari askori, horietako batzuk adin handikoak diren aldetik. Azkenik, kontuan hartzekoa da zein testuingurutan egin den inportazioa kontrolatzeko demanda, ekoizpen-baldintzak zein prezioak hobetzeko: merkatu irekien eta nazioarteko konpromisoen testuinguruan. Demanda horrek, beraz, ez du kontuan hartzen Europar Batasunak nekazaritza-produktu ugari esportatzen dituela, eta neurri horrek kalte egin diezazkiekeela beste sektore batzuei. Zerealen inportazioak murriztuko balira, adibidez, kalteak eragin ahal izango litzekiela abeltzaintza intentsiboari, eta horrek zuzenean eragingo lieke prezioei. Horrek ez du esan nahi, ordea, baztertu egin behar direnik ispilu-klausulen ezartzen edo inportazioen kontrolatzen eman beharreko aurrerapausoak. Izan ere, beharrezkoak dira, batez ere EBN debekatuta dauden eta osasuna arriskuan jar dezaketen produktuak (batik bat fitosanitarioak) zedarritzeko. Egokitzapen bat behar duten arazo konplexuak dira, nekazariekin bat eginda lantzekoak.

Bestalde, nekazaritzako demanda horiek egin diren aldi berean, nekazaritza- eta landa-munduak egiturazko arazo larriak egin behar diete aurre (García Álvarez-Coque JM, R. Compés eta V. Martínez, 2023). Badira nekazaritzatik bizi ez diren ustiategi txikiak, baita ustiategi handiak ere, oso teknifikatuta eta integratuta daudenak, kanpo-kapitalaren sarrera gero

⁴ [food system. COM/2020/381 final.](#)

4. [Communication from the commission to the European parliament, the council, the European economic and social committee and the committee of the regions EU Biodiversity Strategy for 2030 Bringing nature back into our lives. COM/2020/380 final.](#)

eta handiagoa dutenak eta, gehienetan errentagarriak direnak. Horiekin batera dago ordea familia-nekazaritza, eta zailtasun handiei egin behar die aurre. Azken horiek kaltetu ditu gehien errentagarritasun-krisiak, ekoizpen-kostuek jasotako ordainsariak gainditzearaino egin baitute gora. Arazo larriak dituzte belaunaldi-ordezkapenerako eta emakumeei lanpostuak bermatzeko, baita behar handiak ere, bai modernizatzeko eta lanbide-heziketa jasotzeko, bai gaitasun berriak –batik bat digitalak– eskuratzeko. Horrez gain, desorekak dituzte balio-katean. Jarduna garatzeko baldintzak pixkanaka ari zaizkie zailtzen eta gogortzen nekazaritza-ustiategien proportzio handi bati. Hain zuzen, ustiategi horietan talka egiten du balio handiagoaren beharrak, batetik, gero eta zorrotzagoak diren NPBrn ingurumen-baldintzekin, eta, bestetik, Itun Berdea nekazaritzari aplikatzeak planteatzen dituen helburuekin. Horrek ingurumen-eskakizunak murrizteko presio handia sortzen du, protekzionismoa areagotzeko eta mugak ixteko, eta agerikoa da berriro egin dela atzera, gaindituak ziruditen aurreko hamarkadetako planteamenduetara.

Jasangarritasuna saihestu ezineko bidea bada, nekazariekin elkarlanean egin behar da, zalantzarik gabe. Helburu horretarako, Europako Batzordeko presidenteak foro berri bat abiarazi zuen 2024aren hasieran: *EBko nekazaritzaren etorkizunari buruzko elkarriketa estrategikoa*⁵. Foro horren helburua da Europako nekazaritzaren eta elikadura-sistemaren etorkizunerako ikuspegi komun bat lortzea, eta hura abiapuntutzat baliatzea datorren NBPrako, baita nekazaritzarekin eta elikagaien ekoizpenarekin lotutako politika komunitario guztiak formulatzeko ere. Etorkizuneko ikuspegi partekatu bat lortzea du jomuga. Ikuspegi horretan uztartu egin nahi dira elikagai osasungarri eta kalitatezkoak ekoizteko funtzioak eta baliabideen kontserbazioa, kontuan hartuz sektoreak zein erronka handiri egin behar dien aurre, hala nola klima-aldaketa, inflazioari edo merkatu ireki eta aldakorretako lehiari.

3. Trantsizio ekologikoa eta landa-mundua

Nekazaritzak elikagaien ekoizlea den eta ingurune naturalaren mende dagoen aldetik, betidanik izan du hark betetako askotariko funtzioak gordetzeko babes-sistema bat. Sektore ekoizlea den aldetik, funtzio ekonomikoa du giza bizitzarako beharrezkoak diren elikagaiak hornitzeko zereginetan. Horregatik, askotan, helburu hori egon izan da nekazaritza-politiketan sartuta, eta hala dirau oraindik ere. Elikagai osasungarri eta kalitatezkoek hornitzen gaituzte nekazariak eta abeltzainak, eta oro har elikadura-sistemak, edonon eta edonoiz. Horrek elikadura-segurtasuna bultzatzen du. Baina, horrez gain, jarduera horrek lagundu egiten du landa-eremuko gizarte-sareari eusten. Hori egitean, ondorio positibo eta negatiboak dituzten ingurumenarekiko harremanak sortzen ditu.

Ingurumenaren kontserbazioan ekarpena egiten dutela aitortzen zaie nekazaritzari eta abeltzaintzari, batez ere sistema estentsiboei. Higidura kontrolatzen dute, paisaiak mantentzen dituzte, edo basoak kontserbatzen, sastrakek hartzen ez dituztela basosuteen arriskurik ez dagoela bermatuz. Merkatuko prezioek ez dituzte jarduera horiek guztiak ordaintzen, eta ondasun publiko direnez, politikek babesten dituzte. Baina ekoizpena areagotzeak eta errendimendua handitzeak kanpo-ondorio negatiboak ere eragin ditu. Hona hemen adibide batzuk: akuiferoak kutsatu egin ditu mantenugai gehiegi erabiltzeagatik, materia organikoa galdu eta lurzoruak degradatu dira, fitosanitarioek murriztu egin dute biodibertsitatea, gehiegizko ongarritze nitrogenatuak edo abeltzaintza-ekoizpenak berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzte, eta airearen kutsatzaileak isurtzen dira, hala nola abeltzaintza intentsiboak sortutako amoniakoa (Bardaji I. et al., 2024). Kanpo-ondorio negatibo horiek kostu bat dakarkiete gizarteari, eta, esparru teorikoan, tasak edo zergak ezarri zuzendu beharko lirateke, premisatzat honako hau hartuta: kutsatzen duenak ordaindu behar duela, eta kontserbatzen duenak, jaso. Hori, dena den, oso gutxitan gertatzen da. Horren ordez, sargaien erabilera murrizteari edo jarduera jasangarriagoak egiteari lotutako pizgarri ekonomikoen bidez egiten da ondorioak zuzentzeko ahalegina (hala nola ekoerregimenak edo nekazaritzako ingurumen arloko programak). Nekazaritzaren trantsizio ekologikoa sustatzen da horrela.

5. https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal/agriculture-and-green-deal/strategic-dialogue-future-eu-agriculture_es

Bestalde, produkzio-sistemetako aldaketa horiek kostuak dakartzate, hala ekoizpen-kostuak handitu direlako (adibidez, hobetu egin direlako laboreak babesteko sistemak edo animalien ongizate-maila), nola txikiagoak direlako diru-sarrerak, etekinak murriztearen ondorioz (ongarri-dosi txikiagoak erabiltzen direlako edo gutxiago erabiltzen delako laboreen errotazioa ekoizpena areagotzeko). Horrek galerak eragiten dizkie ekoizleei. Galera horiek neurri batean konpentsa ditzakete pizgarriek, jardunbide iraunkorrago horiek hartzeko jasotakoek. Hala ere, zeharkako ondorio garrantzitsuak ere eragiten ditu elikagaien prezioetan eta elikadura-segurtasunean, eta zalantzan jartzen du nekazaritzaren trantsizio ekologiko horren kostua nork jasan behar duen. Era bateko eta besteko auziak eragiten ditu horrek: Kontsumitzaileek noraino har dezakete beren gain elikagaien prezioa igotzea? Jasangarriagoak diren jardunbideak hartzearen ondorioz ekoizpena txikitzeak arriskuan jar dezake elikagaien hornidura? Arriskuan jar al daiteke munduko elikadura-segurtasuna? Zenbateraino da desiragarria elikagaien arloan atzeriarekiko mendekotasuna areagotzea? Nolako orekak ahalbidetuko luke jasangarritasun handiagoa lortzea, elikagaien eskuragarritasuna eta nazioko eta nazioarteko prezioa arriskuan jarri gabe? Hemen azken auzi bat ere: nekazariak jasan behar al dute nagusiki trantsizio ekologiko horren kostua, edo elikaduraren izaera estrategikoak justifikatzen al ditu trantsizio hori egiteko esku-hartze publikoa eta laguntzak?

Nekazaritzaren, landa-munduaren eta ingurumenaren arteko harreman konplexu hori ez dagokio elikagaien ekoizpenari bakarrik. Erlazio hori agerian uzten du energia berriztagarriaren ekoizpenak ere. Energia fosilarekiko mendekotasuna eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko beharrak eta energia horien ekoizpena babesteak parke eolikoak eta fotovoltaiakoak bete du landa-mundua. Lurrak eskuratzeko lehia sortu du horrek, elikagaien eta energiaren artean. Fenomeno horrek ez du soilik lurren gaineko presioa areagotzen; gatazkak sortzen ere ari da, lurren etekinak ustiatzera bideratutako izaeraren eraginez, ez baita bateragarria egon daitezkeen edo dauden jarduera ekonomikoekin. Inpaktu bisuala izateaz gain, kalteak eragiten dizkie ingurumen kaltebera duten edo turistak erakartzen dituzten duten eremuei, parke horiek ez baitakarkie ondorio positiborik. Kanpora bidaltzen dute sortutako energia, eta sortutako lana ez da bertakoa izaten, kanpotik datorren sasoiko enplegu kualifikatua baizik.

Kontraesan horiek etorkizuneko politiketan jorratu behar dira, eta ez bakarrik nekazaritza-politikan, baita energia-politikan eta beste politika batzuetan ere. Egungo erronka ugariei aurre egiteko gai izango den nekazaritza-sektore lehiakor eta jasangarri baten alde egin behar dute.

4. NPBren eta landa-garapeneko politikaren etorkizuna

Etorkizuneko NPBk, Europako Batzordeak eta estatu kideek nekazaritzako protesten aurrean berriki hartutako moldaketa txikiez harago, kontuan hartu beharko du geopolitikaren eta aurrekontuen baldintzatzaile garrantzitsu eta berriak daudela, eta beharrezkoa dela ingurumen-betekizunak modulatzeko eta nekazaritzari Itun Berdea nola aplikatu birpentsatzea (A. Massot, 2024). Egoera geopolitiko berrian agerikoak dira Errusiaren mehatxua eta blokeen arteko borrorak, baita nekazariak eskatutako ingurumen-betekizunak eragindako protestak ere. Horren eraginez, EBk lehentasunak aldatuko ditu: funtsezko oinarria izango da defentsa- eta segurtasun-politika, eta berriro planteatu eta modulatu beharko da Agenda Berdea, EBk nazioarteko merkatuetan lehiakortasuna ez galtzeko. Berriki argitaratu den Draghi txostenak⁶, 800.000 milioiko inbertsioa aurreikusten du EBn garapen industrialeko politika bat gauzatzeko eta lehiakortasuna ez galtzeko AEBkin eta Txinarekin. Gainera, Ukraina etorkizunean EBn sartzeak nabarmen handituko du nekazaritza-gastua, herrialde horren nekazaritza hedadura eta garrantzia kontuan hartuta. Horren eraginez, batetik, aurrekontua beharko dute EBren politika berriek, eta, bestetik, murrizketak eragingo dizkio datorren NBPren aurrekontuari.

Nekazaritzaren, klima-aldaketaren, ingurumenaren, natura-baliabideen, landa-despopulazioaren eta elikadura-segurtasunaren arteko erlazio konplexuek zenbaitetan kontrajarriak izan daitezkeen helburuak dakartzate. Dena den, etorkizuneko nekazaritza-politikatan txertatu behar dira, aurrekontu murriztaileagoak dituen egoera batean, non

6. https://commission.europa.eu/topics/strengthening-european-competitiveness/eu-competitiveness-looking-ahead_en#paragraph_47059

protektionismoaren gero eta presio handiagoa egiten duten nazioarteko nekazaritza-merkataritzaren funtsezko eragile askok, esaterako AEBk. Datorren NPBk ahalegina egin behar du errentagarritasun ekonomikoa uztartzeko, ingurumen-jasangarritasuna hobetzearen eta klima-aldaketa murriztu eta horretara egokitzearen inguruko aurrerapen argiekin.

Aurreko NPB politika, eskubide historikoei lotutako hektareako ordainketak oinarri zituen, konplexua zen, eta malgutasun gutxi zeukan erronka berriei erantzuteko. Izan ere, nekazari hauek bakarrik jasotzen zituzten laguntzak: aurreko laguntzei esker eskubideak zituztenek. Gainera, proportzionala zen aurrez jasotakoarekiko, hau da, laguntza handiagoa zuten lehen gehiago lortu zutenek. Nahiz eta errentei eusteari indarra kendu zaion ingurumenaren kontserbazioaren mesedetan, aldi berean eutsi zaie bi helburu horiei, eta, horrek murriztu egin du haien eraginkortasuna. Nekazaritza-politikan, helburuek eta tresnek lotuta egon behar dute eraginkorrak izateko. Errentei zuzeneko laguntzen bidez eustea beharrezko helburutzat jotzen bada, tresnek bideratuta egon behar dute helburu hori lortzera. Beraz, lotuta egon behar dute nekazaritzako ustategiek lortutako errentarekin, banaka ezin bada, zeharka (nekazari gazteei, mendialdean kokatutakoei edo naturak eragindako zailtasunak dituztenei laguntzeko). Aldi berean, ingurumen-helburuak modu espezifikoan eta progresiboan landu behar dira, eta ez dira errenta-mailari eusteko argudiotzat erabili behar.

Egungo NPBk aurrekontuaren % 75 bideratzen du zuzeneko laguntzetara (1. zutabea) eta % 25 baino ez landa-garapenera (2. zutabea). Horren arabera, egungo egoeran eta 2023-2027 aldirako aldaketak egin diren arren, ez da eraginkorra nekazaritzaren beharrei erantzuteko: modernizazioari, gazteek eta emakumeek bertan lan egiteari, nekazariiei prestakuntza emateari eta eta berrikuntza txertatzeari. Era berean, ez ditu zerbitzu, mugikortasun, enplegu-iturri eta digitalizazio zuzkidura hobeak behar dituzten landaguneen beharrak ere asetzen (Molina Ibañez M. et al., 2023). Horrek guztiak beharrezkotzat du NPBren bigarren zutabeko aurrekontu-zuzkidura gainditzeko duen kontzeptu- eta politika-esparru bat, bai eta inbertsio-ahalegin bat ere. Behar hori are nabarmenagoa da etorkizuneko aurreikuspenen argitan, NPBrako finantza-murrizketei begira. Hori dela eta, beharrezkoa da landa-garapena helburutzat txertatzea EBko egitura-funtsetan. Helburu hori lortzen lagundu lezake Funtsak gehiago koordinatzea (funts

anitzeko aukera emateak) edo gutxieneko aurrekontu bat ezartzeak landa-eremuetako jardueretara bideratu behar diren egitura-funtsetan. Aukera hori errazena da ikuspuntu operatibotik, zaila baita helburuetan, mekanismoan eta funtzionamenduan bat ez datozen Funtsak koordinatzea.

5. Ondorioak

Artikulu honetan aztertutako edukiek adierazten dute beharrezkoa dela nekazaritzako elikagaien sektorearen etorkizunari helduko dion Politika Erkide berri bat diseinatzea. Horrek, nekazaritza ez ezik, landa-mundua ere hartu beharko luke, *statu quo* aukera klasikoari aurre egiteko. Horrekin saihestu egin nahi da aldaketa txikiak bakarrik dituen egungo NPBren jarraipen bat, eta haren kudeaketa Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiaren esparrutik harago egotea lortu nahi da. Izan ere, honako hau iradokitzen du elikadura-sistemaren kontzeptuak, Nazio Batuen elikadura-sistemei buruzko goi bileran, 2021eko irailean, ofizial egindakoak: nekazaritzari eta elikadurari buruzko erabakiak Zuzendaritza Nagusien artean hartu behar direla Nekazaritza, Ingurumen eta Klimaren, Trantsizio Energetikoaren eta Osasun sailekoen artean. Izan ere, harremana dago sektore horien guztien artean.

Testuinguru horretan, garrantzi handia dauka Nekazaritzaren Etorkizunari buruzko Elkarrizketa Estrategikoak, Batzordeko presidente Ursula Von der Leyenek egindakoak. 2024ko martxoan egindako elkarrizketa horren azken txostena 2024ko irailean entregatu da. Txosten horrek, zalantzarik gabe, etorkizuneko NPBren oinarriak ezarriko ditu. Baitan daukan berrikuntza garrantzitsu bat, gainera, babestu egin dute txostena egiten esku hartu duten EBko nekazaritza-erakunde handiek, eta horrek aukera ematen du etorkizuneko NPBn aldaketa handiak egon daitezkeen itxaropena izateko. Proposamen honi buruz ari gara, zehazki: errentarako laguntzak (hektareako laguntzak) ez izatea nekazari guztientzat, baizik eta bideragarriak izateko ezinbestean behar duten nekazari aktiboentzat bakarrik, eta hektareako laguntza horiek, NPBren aurrekontuaren zati handi bat hartzen duten aldetik, bat etortzea ustategiaren errentaren eta bideragarritasunaren adierazle objektiboekin. Proposamen horrek, aurrekontuak doitzeaz gain, deuseztatu egingo lituzke egungo laguntzak lurraren prezioan eta errentan dituen

ondorio negatiboak, eta erraztu egingo du nekazaritza-ustategien oinordekotza.

Txostenaren amaieran dauden gomendioen artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: NPBa elikagai-sistema jasangarriagoetarako eta lehiakorragoetarako trantsizio-testuingurura egokitzea; nekazaritzako elikagai-sistemen erresilientzia sustatzea; landa-sektore erakargarri eta anitza sortzea; ezagutzaren eta berrikuntzaren sarbidea eta erabilera hobetzea; eta landaguneak suspertzeko tokiko parte-hartzea bultzatzea, 2021eko ekainean kaleratutako EBren Landa-eremuetarako epe luzeko ikuspegiaren⁷ ildotik. Gomendio horiek proposamen zehatz bihurtu beharko dira datozen hilabeteetan, NPB aldatzeko. Barne izan beharko ditu helburuak, tresnak eta bitartekoak, batez ere aurrekontuetakoak, eta Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren eta Europako Batzordeko beste zuzendaritza nagusi batzuen arteko kudeaketa-eredu partekatua. ■

Bibliografia

- Bardají I., E. Aguilera, I. Blanco, P. Esteva, L. Lassaletta, Al. Sanz-Cobena, B. Soriano eta C. Villacorta (2024): «Sostenibilidad del sector agroalimentario español: la importancia de la medición». *Papeles de Economía Española* 179: Retos económicos en alimentación: la sostenibilidad, los precios y la innovación, 56.-73. or.
- García Álvarez-Coque, R., Compés López, V., Martínez Gómez (2023): «Evidencias y reflexiones para el debate sobre las políticas de estructuras agrarias en España». In Ortiz Miranda, E. López Iglesia eta F. Oliveira Baptista (editoreak): *Transformaciones de la agricultura y del medio rural en la Península Ibérica*. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Estudios, saila, 60-79. or.
- Massot A. (2024): «¿Puede convertirse la Política Agrícola Común (PAC) en la política alimentaria de la Unión Europea?». *Papeles de Economía Española* 179: Retos económicos en alimentación: la sostenibilidad, los precios y la innovación, 21-38. or.
- Molina Ibáñez M., L. Camarero Rioja, Sumpsi Viñas J. M., Bardají Azcárate I. (2023): «El proceso de despoblación: Desequilibrios e inequidades sociales. El tiempo de las políticas públicas». in Y. Gómez Sánchez (koord.): *Despoblación. Cohesión territorial e igualdad de derechos*. Politika eta Konstituzio Ikasketen Zentroa.

7. https://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2021/06/30-06-2021-long-term-vision-for-rural-areas-for-stronger-connected-resilient-prosperous-eu-rural-areas

1. Sarrera

2019ko abenduan, Europako Batzordeak «politika multzo erabat eraldatzailea» aurkeztu zuen, Europar Batasuna ekonomia «moderno, baliabideen erabileran eraginkorra eta lehiakorra» izan dadin, gai izango dena «Europa 2050ean klimari dagokionez lehen kontinente neutroa bihurtzeko»: Europako Itun Berdea (EIB; [Europako Batzordea, 2019](#)).

Klimaren, energiaren edo garraioaren arloko neurriekin batera, besteak beste, EIBk bi estrategia osagarri ditu elikadura-sistema jasangarria lortzeko: «Baserritik mahaira» (COM (2020) 381) eta «2030 Biodibertsitatea» (COM (2020) 280). Bi estrategia horien ekarpena funtsezkoa da EBk klimaren eta biodibertsitatearen alorrean dituen nazioarteko konpromisoetarako; izan ere, biodibertsitatearen galera da munduko elikagaien segurtasunerako mehatxu handienetako bat.

EIBk, gainera, funtsezko bi berrikuntza txertatu zituen, haren bilakaeran erabakigarriak izan direnak. Lehenak *ikuspegi sistemikoa* zuen, eta haren helburua zen EBren erresilientzia areagotzea klima-aldaketaren inpaktuen, baso-suteen eta elikadura-arloko segurtasunik ezaren aurrean, haragiaren kontsumoa, elikagaiak alferrik galtzea eta input kimikoen erabilera murriztuz, eta biodibertsitatea lehengoratzeko neurriak sustatuz. Bigarrenak behin betiko desegin zuen *nekazaritza-salbuespen* tradizionala; izan ere, Batzordeko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia behartu zuen tradizioz bere esku egon ziren nekazaritza-arloko eskumenak Ingurumeneko eta Osasuneko Zuzendaritza Nagusiekin partekatzea. EIBk, beraz, nekazaritzaren zuzeneko eragina duten beste sektore batzuei irekitzen die eztabaida eta erabakiak hartzeko aukera.

2. Nekazaritza, Ingurumena eta Biodibertsitatea

Landa-eremuek EBren % 83 hartzen dute, eta, oraindik, biztanleriaren herena. Nahiz eta hari lotutako enplegua gainbeheran dagoen, landa-ekonomiek berezko lotura dute nekazaritzarekin, baina beste eremu batzuetan bizi direnek ere ateratzen diote probetxua. Ekoizpenek aspalditik eta soberan bermatzen dute elikagai merkeen hornidura, eta nekazaritzako elikagaien sistema indartsua ere elikatzen dute, esportazioen eta enpleguaren iturri dena.

Lorpen horiek posible izan dira 1950eko hamarkadatik aurrera abian jarritako *nekazaritzaren intentsifikazio-prozesuari* esker. Prozesu hori bultzatzeko, zenbait neurri politiko hartu dira (bai Europan, bai herrialdez herrialde), ekoizpenari lotutako dirulaguntzak eman dira, berrikuntza teknologikoak txertatu dira, eta merkatuaren pizgarriak ere eman dira. Makineria eta input kimikoen garapenarekin eta aplikazio masiboarekin, bai eta ureztatzearen teknifikazioarekin batera ere, eskalako ekonomiek (eta dinamika demografikoak) ekoizpen-azalera lurzati eta ustiategi handiagoetan kontzentratzea bultzatu dute. Adibidez, Espainian dauden 915 mila ustiategien batez besteko tamaina 26 ha ingurukoa da, baina soilik % 6,2k dute 100 ha baino gehiago, nahiz eta erabilitako nekazaritza-azaleraren (NAE) bi heren inguru diren ([MAPA, 2023](#)). Ustiategien herena baino gehiago galdu da 1999tik, baina NAE eta ustiategi bakoitzeko batez besteko abeltzaintza-unitateak (AU) % 7,4 (26,4 ha/ustiat.) eta % 23 (18,1 AU/ustiat.) handitu dira, hurrenez hurren.

Intentsifikazioak, halaber, nekazaritzako eta abeltzaintzako gune handi baten garapena bultzatu du Europan. Gune horrek haragi merkearen eskari gero eta handiagoa asetzen du, eta haren beharren mende daude artzaintzari eta pentsuak ekoizteko laboreei eskainitako 39 Mha inguru. Europak 42 M tona haragi ekoizten ditu, eta Espainia da lehen txerriki ekoizlea,

guztizko azienaren % 25 ekoizten baitu (Eurostat, 2023).

Aldaketa horiekin batera datozen ingurumenari lotutako kanpo-efektuen irismena ulertzeko, kontuan hartu behar da nekazaritzak eta abeltzaintzak Europako paisaiak egituratu dituztela duela milaka urtetik hona, eta oraindik azaleraren herena baino gehiago hartzen dutela (158 Mha NAE). Laboreetako, larreetako edo bietako berezko espezie basati gehienak «Batasunaren intereseko espezieetat» hartzen dira, eta hegaztien ia erdiek babes-neurri bereziak behar dituzte. Hain zuzen ere, espezie horietako 39ren ugaritasun erlatiboa kontuan hartuta (alde batera utzi dira arraroenak), urtero egiten da «Nekazaritza-inguruneetako hegazti arrunten adierazlea», EBren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) parte dena. Europako NAEren hamarrena baino gehiago Natura 2000 Sarean sartuta dago, eta babestutako 30 habitatek nekazaritzako eta/edo abeltzaintzako erabilerak dituzte. Hortaz, ez da harritzekoa nekazaritzaren intentsifikazioa ingurumenerako eta biodibertsitatearako mehatxu nagusi bihurtu izana, bai Europan, bai Espainian (ikus, hurrenez hurren, AEMA, 2019 eta Oñate *et al.*, 2023).

Input kimikoen eta makinen erabilera masiboaren efektuen metaketak eta sinergiak, ureztatzearen hedapenak eta abeltzaintzaren kontzentrazioak lurzoruen eta uren kutsadura eta gehiegizko ustiapena eragin dituzte. Baina, horrez gain, intentsifikazioak biodibertsitateari ere egin dio kalte, habitaten kantitatea eta kalitatea hondatuz, *habitataren egituraren* heterogeneotasunari (espazioarena eta denborarena) eragin baitio. Prozesu horretan, honako hauek lagundu dute nabarmen: lurzatiak biltzeak (lurzatiaren arteko mugen eta paisaiako beste elementu batzuen dentsitatea murriztuz: heskaiak, zuhaitz isolatuak edo zuhaitziak, zapaldak, terrazak eta harrizko hesiak, errekaak edo hezegune txikiak); lurra ustiatzeki gutxiagotan kontzentratzeak (kudeaketa-sistema berberen espazio-jarraitutasun handiagoa urteko zikloan zehar); ekoizpenaren espezializazioak (ekoizpen-sistema mistoak ordezkatzuz); laboreen errotazioak sinplifikatzeak (ustiatzeki berean dibertsitatea murriztuz eta lurraldea homogeneizatuz); eta nekazaritzako kimikoen eta makineriaren erabilera intentsiboak (laboreen ezarpena, hazkundera eta heldutzea uniformizatuz denboran zehar). Aldaketa horiek guztiek hegazti-populazioetan duten inpaktu larria da Europako

nekazaritza-ekosistemen narriadura orokorraren adierazgarri (Rigal *et al.*, 2023).

Espainiak atzerapenarekin txertatu zituen arren intentsifikazio-dinamikak (batez ere lur ureztatuetan), aldaketen abiadurak eragin handia izan du Espainiako nekazaritzako ekosistema estentsiboek zuten dibertsitate biologiko, paisajistiko eta kultural baliotsuan. Espainiako Natura 2000 azaleraren ia laurdena nekazaritzakoa da, herrialdeko NAEren % 16,6. Baina, gainera, eta Europa erdialdeko beste herrialde batzuetan ez bezala, «natura-balio handiko nekazaritzak» (*High Nature Value Farming*; Beaufoy *et al.*, 2012) dirau bizirik beste eremu askotan. Haren bereizgarria da haren kudeaketa ez dela oso intentsiboa; kontrara, batzuetan, bertan behera gelditzea dela haren arriskurik handiena. Hedadura zabala eta aberastasun biologikoa direla eta, nabarmenezkoak dira lehorreko zereal-lautadak, zuhaizdun dehesak, belardiak, larreak eta horietako abeltzaintza estentsiboa; eta intentsifikazio gutxiak olibadiak eta arroz-soroak. Espainia da, ziurrenik, nekazaritzako biodibertsitate-maila handieneko Europako herrialdea, baina Nekazaritza-inguruneetako hegazti arrunten adierazlea % 23 jaitsti da gutxienez 2000. urtetik (MAPA, 2023).

3. Europako Itun Berdearen helburuak eta inplikazioak nekazaritzaren sektorerako

EIBren espedienteen hedapen-maila aldakorra izaten ari da, eta baldintzatuta dago legegilekideek (Batzordea, Europako Parlamentua eta Estatuak) kasu bakoitzean legez lotesleak diren helburuak ezartzeari buruz duten harmen-mailaren arabera.

Esperientziak erakusten duenez, estatu kideek nahitaez bere egin beharreko Europako araudietan helburu zehatzak izatea funtsezkoa da aldaketak bultzatzeko, hala nola Uraren Esparru Zuzentaraua edo Isurien Sabai Nazionalen Zuzentaraua. Zentzu horretan, energiarekin, garraioarekin edo klimarekin lotutako EIBren espedienteak, kostu ekonomiko garbirik gabeko aukerak daudelako (*no-regrets options*) eta testuinguru geopolitiko disruptiboa dela eta (Ukrainako gerra, krisi energetikoa) onuragarriak direnak, bultzatu dira helburu horiek ezartzeko posizio argi eta kohesionatuei esker.

Adibidez, Klimaren Europako Legetik abiatuta (EB/2021/1119 Erregelamendua), 2030erako helburuak ezarri ziren berotegi-efektuko gasen (BEG) mundu-mailako isuriak murrizteko, eta nekazaritzako eta basogintzako CO₂-aren xurgapen garbirako; era berean, estatu bakoitzarentzako helburu lotesleak ere ezarri ziren. Espainiari, esaterako, BEGen -% 37,7ko murrizketa globala egokitu zitzaion, eta nekazaritzan eta basogintzan, CO₂-aren -43.635 kt-ko xurgapen garbia; hori eguneratu egin beharko da [Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan](#) (PNIEC). Era berean, 2023aren amaieran, industriako isuri kutsatzaileei buruzko Zuzentaraua berrikustea

erabaki zen ([2024/1785 \(EU\) Zuzentaraua](#)), baina Parlamentuak Batzordearen proposamena desegin zuen, batez ere abeltzaintza-industriari —nitrogeno oxidoen, amoniakoaren eta metanoaren igorle nagusiari— zegokionean, eta hala, zuzentzarauaren aplikaziotik kanpo geratu ziren behi-azienden ustiategiak.

EIBren nekazaritza-ingurumeneko espedienteen hedapena jarrera askoz polarizatuagoen mende egon da, batez ere, EIBren helburuak estatuek juridikoki lotesle egiteak ustiategiengan izan ditzakeen inplikazio ekonomikoen inguruan (1. taula).

1. taula. «Baserritik mahaira» eta «2030 Biodibertsitatea» estrategien helburu nagusiak

2030erako helburu kuantitatiboak
Pestizida kimikoen erabilera eta arriskua % 50 eta arriskutsuenak % 50 murriztea. Ongarrien erabilera % 20 eta mantenugaien galera % 50 murriztea. Baserriko eta akuikulturako animalientzako mikrobioen aurkakoen salmenta % 50 murriztea. Nekazaritzako lur guztien % 25 ekoizpen ekologikora bideratzea lortzea. Nekazaritzako lurren % 10 aniztasun handiko paisaia-elementuetara bideratzea. (Nekazaritzako) ekosistemen % 30 ekologikoki lehengoratzea 2030 baino lehen. (Nekazaritzako) ekosistemetako habitatek eta espezieek beren joeretan okerrera ez dutela egin, eta % 30ek, gutxienez, kontserbazio-egoera ona duela ziurtatzea.
2030erako helburu kualitatiboak
Elikagaien galera erdira murriztea, bai txikizkako mailan bai kontsumitzaileen mailan. Elikagai eta dieta jasangarriak eta osasungarriak aukeratzea babestuko duen elikadura-ingurunea sortzea (bereziki nutrizio- eta jasangarritasun-etiketen bidez).

Inplikazio horien lehen modelizazio-azterketek nekazaritzaren jardunarekin errazago lotzen diren helburuetatik (pestiziden eta ongarrien erabilera txikiagoa, esaterako) eta paisaia-elementuen eta ekoizpen ekologikoaren gaineko betebeharretatik (landutako azaleraren eta etekinen murrizketa, hurrenez hurren) eratorritako produktzio onorioak proiektatu zituzten. Ulertzekoa denez, ondorioztatu zuten helburuen ondorioz ekoizpen-maila gutxitu egingo zela (nahiz eta desadostasun handiak izan produktuen artean azterketa beraren barruan, bai eta produktu bererako ere, azterketaren arabera) eta elikagaien prezioa handitu egingo zela kontsumitzaileentzat (Wessler, 2021). Gainera, inportazioak handitu egin beharko lirateke, eta hala, EBko nekazaritza- eta merkataritza-balantzea aldatu egingo litzateke eta European saihestutako

nekazaritzaren ingurumen-kostuak hirugarren herrialdeetara aldatuko lirateke (*leakage effect*).

Emitza horietan oinarrituta, bi estrategiek oposizio gogorra jasan dute harrezkero Parlamentuan eta Estatu batzuetan, beren interes korporatibistak defendatzeko ohiko presio-taldeek bultzatuta eta 2024ko ekaineko Parlamenturako hauteskundeen aurreko giroak astinduta. Hala, EIBren beste ekimen garrantzitsu batzuk bertan behera geratu ziren argitaratu ere egin aurretik, hala nola elikadura-sistema jasangarri baterako lege-esparru berria eta etiketatzeari eta kontsumitzailearentzako informazioari buruzko arauen berrikuspena. Pestiziden erabilera jasangarriari buruzko zuzentaraua eguneratzeko proposamena argitaratu zen (COM(2022) 305), eta helarazi zitzaizkien estatuei 2030erako murrizketa-helburuak.

Baina Parlamentuak atzera bota zuen proposamena, eta, azkenean, erretiratu egin zen 2024ko otsailean. Nitrato Zuzentzarauaren berrikuspena eta Erresilientzia Hidrikorako Ekimena ere mugarik gabe atzeratu dira.

Ingurumen-arloko erakunde zientifikoek eta GKEen babes irmoak, hala ere, 2024ko ekainean «Natura Lehengoratzeko Legea» (NLL; [2024/1991](#)

[Erregelamendua \(EU\)](#)) onartzea lortu zuen, 2030eko Biodibertsitate Estrategia garatuz. Negoziazio-prozesuan haren irismena lausotu egin den arren, legeak anbizio handiko «Lehengoratzeko Plan Nazionala» egitera behartzen du, eta nekazaritza-ekosistemak lehengoratzeari dagokionez estatuentzat lotesleak diren helburuak zehazten ditu (2. taula).

2. taula. Natura Lehengoratzeko Legearen nekazaritza-ingurumeneko betebeharrak

Habitatetako buruzko Zuzentzarauaren I. eranskineko habitaten helburuak
Azaleraren % 30 lehengoratzeko neurriak ezartzea 2030a baino lehen.
Nekazaritzako ekosistemarako helburuak
Nazio-mailan goranzko joera lortzea, gutxienez honako adierazle hauetako bitan: a) larreetako tximeleten indizea, b) lurzoruko karbono organikoaren erreserba, c) aniztasun handiko paisaia-elementuak dituen nekazaritza-azaleraren proportzioa. Hobekuntzak bermatzea nekazaritza-inguruneetako lotutako hegazti arruntaren indizean: % 10, 2030ean; % 20, 2040an; eta % 30, 2050ean (historikoki populazio murriztuenak izan dituzten estatuetan). Zohikaztegien azalera % 30 lehengoratzeko 2030ean; % 40, 2040an; eta % 50, 2050ean. Hemendik 2030era bitartean, EBN 3.000 M zuhaitz gehiago landatzeko konpromisoan laguntzea. Polinizatzaileen populazioen gainbehera inbertitzen laguntzea hemendik 2030era bitartean. Lehengoratu ondoren, eremu horiek guztiak berriz ez hondatzea.

NLLek nekazariengan dituen ondorio zuzenenak nekazaritzako habitatak lehengoratzeko ezartzen diren neurrien ondorioz hartu beharreko praktika berrien edo egungoen aldaketan ondorio dira. Legearen IV. eranskinean neurri horien adibide ugari eskaintzen ditu. Batzuek habitataren egituraren heterogeneotasunarekin dute zerikusia, hala nola hemen aipatu ditugun dibertsitate handiko paisaia-elementuak lehengoratzearekin. Beste batzuek lurzoruen karbono-edukia handitu nahi dute, laborantza murriztuz, landare-estalkien bidez, medeagarrien bidez eta lekadunak ereinda. Egungo NPBraren baldintzazko izaerak eta ekoerregimenek antzeko neurriak hartu badituzte ere, pentsatzekoa da nekazarietako hedadura handiagoan hartu beharko dituztela neurri horiek etorkizun hurbilean.

Baina NLLek beste neurri batzuk ere aurreikusten ditu, oraingo NPBraren lotesle gisa ezarritako ez daudenak, ikusi dugun bezala EIBren ekimenek ez dutelako

aurrera egin. Hori da, adibidez, pestizida kimikoen eta ongarrien erabilera murrizteari eta praktika agroekologikoak erabiltzen hasteari dagokion kasua; izan ere, NPBraren borondatezko pizgarrien bidez soilik jasotzen ditu (*II. zutabeko nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak* eta *ekoizpen ekologikorako laguntzak*), eta, beraz, praktikan irismentan mugatua dute.

Ongarriei, pestizidei eta paisaiako elementuei buruzko neurrien arteko sinergiekin duten eragina aprobetxatzea funtsezkoa da oinarritzko zerbitzu ekosistemikoak indartzeko. Adibidez, lurzoruak materia organiko gehiago izateak ura xurgatzea eta biodibertsitate edafikoaren funtzioak errazten ditu, eta hala, emankortasuna hobetzen da; pestizidak eta ongarri kimikoak murrizteak zuzenean laguntzen dio biodibertsitateari eta kate trofikoaren iraupenari; paisaiako elementuek elikadura- eta habitat-baliabideak ematen dizkiete polinizatzaileen,

izurrite-harraparien eta hegazti-espezieen populazioei; eta lurzoruaren higadurari aurrea hartzen ere laguntzen dute, mantenugaien galera murriztuz eta karbonoaren bahiketa eta lehorteekiko eta beste muturreko gertaera batzuekiko erresilientzia hobetuz, eta hori, lagungarria da klima-aldaketara egokitzen laguntzeko. Onura horiek ondo dokumentatuta daude, eta ebidentziaren arabera, soroen azaleraren edo etekinen murrizketaren ondoriozko galerak konpentsa ditzakete (JRC, 2022).

4. Ondorioak

Prozesu horien guztien emaitza da nekazaritzako eta ingurumeneko estrategia zatikatua dugula, eta ez dela gai biodibertsitate funtzional hobetuak laboreetan dituen ondorioen probetxurik handiena ateratzeko. Baina klima-joerak eta horien inpaktuak areagotuko direla dioten aurreikuspenen aurrean, ez dirudi aukera bideragarria *bussines as usual* agertokian elikagaiak ekoizten jarraitzeak. Beharrezkoak diren aldaketak bultzatzeko giltzarritzat jotzen ditugun bi alderdi daude.

Eragin erabakigarria dutenez, premiazkoa da eredu prediktiboak izatea, estrategiek nekazaritzako ekoizpenean dituzten inpaktuen ebaluazio osoa egin ahal izateko. Eskuragarri dauden ereduak (oreka orokorrekoak edo partzialekoak) ez dituztenez hartzen zerbitzu ekosistemikoak ekoizpen-faktore gisa, ez dira gai haien inpaktua proiektatzeko (Barreiro-Hurle *et al.*, 2021). Adibidez, erreferentziako agertokietan biodibertsitatearen galerak ekoizpenean izan dezakeen eragina kontuan hartuko balitz, handitu egingo litzateke ekoizpena estrategien helburu den biodibertsitate hobetuaren ondorioz, eta, orain arte gertatu den bezala, ez lirateke soilik murrizketak izango, input gutxiago eta laborantzarako azalera txikiagoa erabiltzearen ondorioz. Halaber, ereduak pestizidak murrizteko eta izurriteak kontrolatzeko metodo alternatiboei dagozkien garapen teknologikoak eta kudeaketakoak, dagoeneko martxan daudenak, erabili beharko litzazketeke, bai eta ongarrrien aplikazioan, simaurren kudeaketan eta ekoizpen ekologikoaren errendimenduetan efizientzia handitzeari dagozkion metodoei lotutakoak ere. Eta ez ditugu ahaztu behar landa-turismoari edo herritarren osasunari lotutako gizarte-onurak. *Sistema sozio-agroekologikoen* errealitatera hobeto egokitutako

proiektzioak edukitzeak, gainera, aukera emango du oraintsuko eztabaida publikoan entzun diren oinarri zientifikorik gabeko argudio ideologikoei eraginkortasunez aurre egiteko.

Bestalde, nahiz eta egindako ikerketak ez datozen bat estrategiek ustiatuegien diru-sarreretan duten inpaktuaren ondorioan eta irismenean (Wesseler, 2021), bistakoa da nekazarien konplizitateak gabe zaila izango dela nekazaritza- eta landa-eremurako ezarritako helburuak lortzea. Ebidentziak erakusten du, epe ertain-luzean, zerbitzu ekosistemikoetan eta klima-egokitzapenean egindako inbertsioa positiboa izan daitekeela nekazariaren poltsikorako. Baina epe laburrean ezinbestekoa dirudi politika publikoak bidelagun izatea, izan ditzaketen *diru-sarreraren* eta *aukera-kostuen galerak* berdintzeko. Ia 40 urte igaro dira, baina, harrigarria badirudi ere, Batzordearen beraren prozedurak baliozkoak dira oraindik ere: «Neurri arautzaileen eta konpentsazio eta pizgarrien zentzuzko konbinazioak, normalean, ekonomiak bideratu beharko litzazke eta ez gastuak, baina etorkizunean ingurumenarekiko lagunkoiagoa izango den nekazaritza ekarriko du horrek, eta ez nahitaez efizientzia gutxiagokoa» (CEC, 1988).

NPBk bide luzea egin du poliki-poliki, nekazaritzako eta ingurumeneko baldintzak eta pizgarri programak gero eta gehiago integratuz (Sumpsi eta Bardaji, ale honetan bertan), baina azken erreforman (2023-2027), hainbat arrazoi direla medio, ez ditu bere gain hartu estrategien helburu guztiak (Massot, 2024). Hala ere, NPB horrek beharrezko malgutasuna eta tresnak ematen zituen estatuek beren beharrei erabakitasunez heldu ahal izateko (Pe'er, *et al.*, 2022). Aldiz, gehienek nekazaritza- eta ingurumen-arloko aldaketa inkrementalak aukeratu dituzte (Espainiari dagokionez, ikus Nadeu *et al.*, 2023), ekonomikoki ondo hornitutako nekazaritzako eta ingurumeneko pizgarrien diseinua gutxietsiz, emaitzetara bideratutako diseinu berritzaileekin (*results-based payment schemes*) edo harrera asoziatiboko modalitateen pean (*landscape-level implementation*), nekazaritzako eta ingurumeneko prestakuntza eta nekazariarentzako aholkularitza-zerbitzuen irismena indartuz, edo ezagutza- eta berrikuntza-sistemak sustatuz (*Agricultural Knowledge and Innovation Systems*).

Nolanahi ere, EBko gastuaren *emaitza-kostua kontaketa* gero eta handiagoa da haren erronka

ugarien aurrean, eta NPB ez da salbuespena izango, aurrekontuaren herena biltzen jarraitzen baitu. Beraz, ahalegin gehigarri nabarmenak beharko dira administrazioen artean (Nekazaritza-Ingurumena eta, Espainian, baita Ministerioak - Autonomia-erkidegoak ere), plan eta tresna egokien eta lotutako jarraipen- eta kontrol-mekanismoen diseinuari ekiteko. 2027aren osteko aldiari begira, tarteko berrikuspena behin betiko aukera izango da aldaketa hori bizkortzeko eta NPBa egiaz baliozko tresna bihurtzeko, EIBren helburuak lortze aldera. ■

Erreferentziak

- Barreiro-Hurle, J. *et al.*, (2021). «Modelling Transitions to Sustainable Food Systems: Are We Missing the Point?». *EuroChoices*, 20: 12-20.
- Beaufoy, G., Caballero, R. eta Oñate, J.J. (2012). Spain. In Oppermann, R., *et al.*, (argit.): *High Nature Value Farming in Europe*, 382.-405. or. Verlag Regionalkultur, Ubstadt-Weiher.
- CEC-Comisión de las Comunidades Europeas. (1988). *Environment and agriculture*. COM (88) 338 final. CEC, Brussels.
- CE-Comisión Europea. (2019). *Un Pacto Verde Europeo*. COM/2019/640. Europako Batzordea, Brusela.
- AEMA-Agencia Europea el Medio Ambiente. (2019). *The European environment - state and outlook 2020*. European Environment Agency, Copenhagen.
- Eurostat. (2023). *Key Figures on the European Food chain-2023*. Publications Office of the EU, Luxembourg.
- MAPA. (2023). *Informe Anual de Indicadores 2022: Agricultura, Pesca y Alimentación*. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Madril.
- Massot, A. (2024). «¿Puede convertirse la Política Agrícola Común en la política alimentaria de la Unión Europea?». *Papeles de Economía Española*, 179: 21-38.
- JRC-Joint Research Centre. 2022. *Scientific evidence showing the impacts of nature restoration actions on food productivity*. EUR 31137 EN. Publications Office of the European Union, Luxembourg.
- Nadeu, E., *et al.* (2023). *Environmental and climate assessment of Spain's CAP Strategic Plan. Policy report*. Institute for European Environmental Policy, Brussels.
- Oñate, J.J., *et al.* (2023). Aprender del pasado para afrontar el futuro. Desafíos ambientales de la agricultura española en el siglo XXI. *Ecosistemas*, 32: 2495.
- Pe'er, G., *et al.* (2022). How can the European Common Agricultural Policy help halt biodiversity loss? Recommendations by over 300 experts. *Conserv. Lett.* 2022:15, e12901.
- Rigal, S., *et al.* (2023). Farmland practices are driving bird population decline across Europe. *PNAS*, 120 No. 21 e2216573120.
- Wesseler, J. (2021). The EU's farm-to-fork strategy: An assessment from the perspective of agricultural economics. *Appl. Econ. Perspect. Policy*, 44: 1826-1843.

José Luis Cruz Maceñ

Landa, Nekazaritza eta Elikadura Ikerketarako eta Garapenerako Madrilgo Institutua (IMIDRA)

Mario González Azcárate

Agronomía, Elikagai eta Biosistemen Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa

(ETSIAAB), Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa (UPM)

1. Sarrera

Landaguneak bultzatzeko, aukerak dituzten eta biztanleria finkatuko duten bizimoduak sortu behar dira. Historikoki, lehen sektorea izan da eremu horien motor ekonomikoa. Hain zuzen ere, nekazaritza-jarduerak errentak eta enpleguak sortu ditu xx. mendera arte. Landa-eremuetako errealtate sozioekonomikoa eraldatu egin da prozesu hauen eraginez: landaren mekanizazioa, landa-exodoa, urbanizazio-prozesua, kontsumo-ohituren aldaketak, nekazaritzako elikagaien sistemaren globalizazioa eta ekonomia hirugarren sektorearen arabera izatea, besteak beste. Errealitate hori erronka demografikoak eta lurraldeen arteko orekak markatu dute, eta, datozen hamarkadetan, Espainiako landa-eremuen eta udalerrri txikien % 50 desagertzeko arriskuan daude (MITECO).

Diru-sarreraren dibertsifikaziotik egindako hurbilketak, landa-eremuen funtzio-aniztasunaren kontzeptua sartzeak eta gero eta lehiakorragoa den lehen sektorea pixkanaka deslotzeak markatu zituzten landa-garapen jasagarriaren erronkei irtenbidea emateko Europako politiken lehen urratsak. Gaur egun, testuinguru globalean (ingurumenekoak, geopolitikoak, ekonomikoak) eta gizartean izan diren aldaketek lehen lerroan jarri dute berriro landa-eremuen nekazaritza-bokazioa, baina ikuspegi berri batetik.

Lehentasuna berbera da oraindik ere: landa-eremuetan errenta eta enplegua sortzea, landaguneak bizi-proiektuak garatzeko lurralde egokitzat jotzen duten langileentzat eta ekintzaileentzat eremu erakargarriak izan daitezten. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako zenbait jarduerak ematen dituzten zerbitzu ekosistemikoak aintzatesteak aukera eman du politika publikoek sektorean errenta osagarriak sortzeko. Dena dela, nekazaritza-eredu jasagarriago baterako trantsizioa sustatzen saiatzen diren politikez eta arauz harago, sektoreak merkatuaren laguntza zuzena behar du, produktuak balioesten eta erosten dituzten kontsumitzaileekin.

Merkatuan kokatzeko, ahulenak ekoizle txikiak eta ertainak dira. Badira nekazaritza-sektorean lan egiteko eta ekiteko interesa duten pertsonak, baina merkaturatzea da erronka handienetako bat (Cruz, JL; Benito, A, 2014). Banaketa handiek merkatuaren zati handia hartzen dute, eta produktuak beren lerroetan sartu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak (bolumena, aurkezpena, barietateak eta baldintza ekonomikoak) ez dira ekoizle txiki eta ertain askoren errealtatera egokitzen. Horrez gain, elikatze-katean dagoen botere-desberdintasun handia ere kontuan hartu behar da; izan ere, elikatze-katearen negoziazio-tartea oso mugatua da, banaketa handia baita.

2. Merkaturatze-kanal laburren garrantzia

Testuinguru horretan, merkaturatze-kanal laburrak (MKL) berpizten ari dira, xxi. mendeko bigarren hamarkadako banaketa handiaren alternatiba gisa. 2012an, Europako Nekazaritza eta Landa Garapeneko Komisarioak, Dacian Cioloşek, merkaturatzeko modu horrek familia-nekazaritzarako duen interes handia aitortu zuen, baita merkaturatze-kanal laburrak hobeto ezagutzeko ahaleginak egiteko beharra ere, eta, hala, lagundu ahal izateko. Ondorioztatu zen tokiko salmentari esker kontsumitzaile batzuen eskariei erantzun ahal izango zaiela, eta, aldi berean, nekazaritza-sektoreari balio erantsiko osagarri bat emango zaiola eta elikatze-katearen kudeaketa eraginkorragoa egingo dela.

Ildo beretik, *Foodlink* ikerketa-proiektuak (FP7) 2013an ondorioztatu zuen kanal laburrek kateak osatzen dituztela eta elikagaiak hornitzeko sareak dibertsifikatzen dituztela, ekoizle-sorta zabalagoan oinarritzen direla eta malguagoak eta kontsumitzaileen egoera eta behar berrietara egokitzeko modukoak izaten direla. Urte horretan bertan, Landa Garapeneko Europako Erregelamenduak (1305/2013) berariaz aipatzen ditu merkaturatze-kanal laburrak, eta elikadura-kateko eragileen arteko harremanak

sendotzeko beharra, bai eta kanal horiek nola funtzionatzen duten ulertzeko garrantzia aitortu ere (35. artikulua).

Erregelamendu horrek banaketa-kate laburrak eta tokiko merkatuak sustatzearen garrantzia zehazten du, baita tokiko elikagaiak bultzatzeko jarduerak ere. Zehazki, ezartzen du laguntza-mota horrek «ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean bitartekari batek baino gehiagok esku hartzen ez duten hornidura-kateak soilik hartuko dituela», eta «landa-garapeneko programak produktuaren jatorrizko ustiapenetik kilometro bateko erradioa ezartzen duen merkatuak, non azken kontsumitzaileari zuzendutako eraldaketa-eta salmenta-jarduerak egin beharko diren, edo landa-garapeneko programak ordezkotako definizio sinesgarria ezartzen duen».

2015ean, EIP Agri esparruko lantalde baten bidez, «Elikatze-kate laburraren kudeaketa berritzailea» dokumentua osatu zen. Lantalde horrek planteatzen zuen merkaturatze-kanal laburrek potentziala dutela nekazarien diru-sarrerak hobetzeko, nekazaritza-sistema jasangarriak sustatzeko eta tokiko garapen ekonomikoan laguntzeko. Horrez gainera, kanal laburrek erregai fosilen erabilera murrizten lagundu dezakete, informazioa hobeto eskuratzeko aukera eman dezakete, eta kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko komunikazioa zuzenagoa izan daiteke. Bien artean konfiantza sortzea errazagoa da harreman zuzeneko edo hurbileko testuinguru batean. Halaber, aitortu dute kanal laburren ekimenen kopurua ugartu egin dela, baina eragina mugatua izan dela, errepikatze edo mailakatzeko oztopoak direla eta.

Azterlan horrek ondorioztatzen duenez, «epe laburrean behintzat, Espainiako merkaturatze-kanal laburren garapenean hazkundera aurreikus daiteke, kanal horiek Europako beste herrialde batzuetan duten bilakaerarekin bat etorriz. Hala ere, horretarako funtsezkotzat jotzen da kontsumitzaileen artean ezagutza eta zabalkundera hobetzea... ».

Ordutik, merkaturatze-kanal laburrek landa-garapenerako politiketan duten presentzia gero eta protagonismo handiagoa hartuz joan da. Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) plan estrategikoaren helburu espezifikoaren artean, «Nekazariak balio-katean duten posizioa hobetzea» dago, eta, emaitzen artean, hau nabarmendu da: «Hornidura-katea hobeto antolatzea: (...), tokiko merkatuetan parte hartzen duten nekazaritza-ustiatarien ehunekoa,

banaketa-zirkuitu laburrak eta NPEk diruz lagundutako kalitate-araubideak».

Ekoizle txiki eta ertainek hainbat abantaila dituzten merkaturatze-aukerak ikusi dituzte kanal laburrean. Zuzeneko harremanak konfiantza sortzeko aukera ematen du, ziurtagiri baten kostuak bere gain hartu behar izan gabe, eta kontsumitzailea fidelizatzeko aukera. Interesak eta eskariak ezagutzeko aukera ematen du, produktua merkatura egokitu ahal izateko. Bitartekarien kopurua murrizten den neurrian, prezio hobea eskaintzea errazten du, eta horrek erakargarriagoa egiten du produktu-mota hori, eta marjina ekonomiko eta negoziatio-tarte handiagoa uzten die. Kanal laburraren ezaugarriak betetzen dituzten komertzializazio-moduak askotarikoak dira, baina badirudi ekoizleek gehiago jotzen dutela ekoizle-merkatuetara. Neurri handi batean, lehen aipatutako abantailak betetzen dituztelako eta, aldi berean, banaketa- eta merkaturatze-lanaren eragozpenak neurri batean konpontzen dituelako. Azken zeregin horiek ekoizpen-jarduera konplexuari gehitzen zaizkio, eta lanaldiak luzatzen dituzte. Hala ere, ulertu behar da ekoizleen ahalegin logistikoak txikiagoak direnean, normalean kontsumitzaileak uko egin behar diola komenigarritasun handiagoari eta denbora gehiago erabili behar duela produktu horiek erosteko. Horregatik, nahiz eta kontsumitzaile askok oso positibotzat jotzen dituzten ekoizleen merkatuak, aldi berean hainbat produktu eskura ditzaketelako eta ekoizleak ezagutu, bada erosotasuna lehenesten duen kontsumitzailearen beste profil bat, eta horretarako beste eredu batzuk egokiagoak dira, hala nola Internet bidez erostea, etxez etxeko banaketa edo supermerkatuetan zuzenean saltzeko produktu horiek sartzea. Horrek erakusten du merkaturatze-kanal laburrak sustatzeko kanal anitzeko estrategia bat behar dela, ekoizpenak eta kontsumoak dituzten beharretara egokituko dena.

3. Banaketa-kanal laburren erronkak

Historikoki, autokontsumorako ekoizpena eta kanal laburren bidezko erosketa izan dira elikagaiak eskuratzeko bide nagusiak. Hainbat arrazoiengatik —arrazoi horien artean urbanizazio-prozesua nabarmentzen da—, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko aldea handituz joan da. Distantzia bitartekari-kopuruaren eta baratzetik mahairako kilometroen arabera ulertuta (kanal laburraren bi

adiera ohikoenak). Lehen zuzeneko harremana zuen ekoizlearengan jartzen zen konfiantza orain banaketan jartzen da. Gaur egun, zaila da edozein hiri handitako biztanle batek ohiko elikagai-ekoizleak izatea, hiriko kontsumitzaileen elikadurari buruzko informazio asimetria areagotuz. Horrez gainera, hiriko erritmo, denbora eta lehentasunek ez dituzte errazten merkaturatzeko formula horiek. Horregatik, ekoizleentzat, merkaturatze-kanal laburrak ez daude erronketatik salbuetsita. Ekoizle askok uste dute kontsumitzaileak ohituta daudela urteko sasoi guztietan edozein produktu-mota edukitzera. Hala ere, bertako nekazaritza eta kanal laburra laboreen behin-behinekotasunaren mende daude. Horrez gainera, batzuetan, kontsumitzaileek prezioa lehenesten dute haren irismena ezagutzen ez duten beste alderdi batzuen gainetik, hala nola elikagaiak erosteko orduan hartzen dituzten erabakiek gizartean eta ingurumenean dituzten ondorioen gainetik. Hala ere, gero eta kontsumitzaile gehiago ez dira eroso sentitzen azken berrogeita hamar urteotan munduko elikadura-sisteman ezarri den nekazaritza-industriaren ekoizpen- eta banaketa-ereduarekin.

Zentzu horretan, merkaturatze-kanal laburrek arrakasta lortzeko, kontsumitzaile informatu eta kontzientziatuen babesa behar dute. Europako Batasuna (EB) aspalditik ari da puntu horretan lanean. Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) esparruan EBk sinatutako akordioek sektorean esku-hartze publikoa murriztuz joan dira, eta merkatu libreko arauen mende geratu dira. Nekazaritza bezalako sektore estrategiko baten ekoizpenean esku hartzeko muga horiek direla eta, Europako kontsumitzaileak dira protagonismo berezia hartu dutenak, eta erosterakoan hartzen dituzten erabakiekin zehazten dute nahi duten nekazaritza-eredua. Horrek aurrekaririk gabeko boterea ematen die kontsumitzaileei, eta botere hori erabili ahal izateko, erosi behar dituzten elikagaiei buruzko informazioa eraginkortasunez eskuratu behar dute. Hori dela eta, administrazio publikoak ahalegin handia egiten ari dira trazabilitatea, ekoetiketak, sentsibilizazioa, jatorri-deituren sustapena, adierazpen geografiko babestuak eta beste kalitate-figura batzuk lantzeko. Betiere, ekoizpenaren jatorria identifikatzeko asmoz eta tokian tokiko produktuei eta produktu lokalizatuei balioa emanez.

4. Kanal laburrak hiri- eta landa-ingurunearen lotura gisa

Landa-eremuan oraindik ere autokontsumorako ekoizpena eta kanal laburreko salmenta ohikoa bada ere, oso mugatua da kontsumitzaileen merkatua. Biztanleriaren egitura eta dinamikak, errenta-mailek eta kontsumo-ohiturek ez dute, gaur egun, tokiko kontsumitzaileari soilik zuzendutako ekintzailetzarako testuingururik onena marrazten. Kanal laburrean oinarritutako landa-ekintzailetzaren bideragarritasunak lurralde-mailako merkataritza-estrategia zabalagoa eskatzen du. Landa- eta hiri-ingurunea barneratuko dituen estrategia bat, kanal laburraren funtsa galdu gabe, hau da, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko konexioa, hainbat formaturen bidez: zuzeneko salmenta, ekoizleen merkatuak, kontsumo-taldeak, etab. Dinamika horretan, ondasun eta zerbitzuak jariatzen dira, landa- eta hiri-dikotomia gaindituz, eta landako eta hiriko *continuuma* ere gaindituz. Hala, lurralde-orekari bide emango zaio, eta landagunea hirigunea bezain erakargarria izango da bizi-proiektuak garatzeko eta, horren ondorioz, biztanleria finkatzeko. Kanal laburra da ondasun eta zerbitzuen fluxu horien dinamizatzaileetako bat, landa-eremuan finkatutako ekintzailetzarako aukerak eskaintzen dituen neurrian.

Gaur egungo testuinguruan, merkaturatze-kanal laburrek hiri- eta landa-ingurunea lotzeko duten gaitasuna indartzen da; izan ere, hiriko kontsumitzaileek produkzioarekiko hurbiltasun handiagoa eskatzen dute, bai eta informazio eta erabakitze gaitasun handiagoa ere. Hau da, kontsumitzaileen artean gero eta garrantzi handiagoa duten ingurumen-balioen eta balio sozioekonomikoen arabera erosteko aukera izatea. Horrek azaltzen du produktu ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa handitu izana. Dena dela, produktu ekologikoen eskariaren gainetik, azterketa eta txostenetan beti agertzen da bertako eta sasoko produktuekiko interesa. Kontsumitzaileek ikusten duten abantaila nagusia produktuaren kalitatea da. Kalitatea bere esanahi osoan ulertuta: heldu-une optimoan bildutako produktuak, ezaugarri organoleptiko bikainak dituzten barietateak eskuratzea, banaketa handiaren estandarretara egokitzen ez direnak, banaketa handian galdu diren zapoak berraurkitzea eta, bereziki, jaten ari denarekiko konfiantza berreskuratzea. Eskatutako produktuek erosketa-saski osoa osatzen dute, baina merkaturatze-kanal laburren arloan nabarmenenak frutak eta barazkiak dira.

Kontsumitzaileek produktu-mota horiek eskuratzeko duten oztopo nagusia da ez dutela erreferentziazko ekoizlerik, haiengana jotzeko. Bigarrenik, ekoizleen kasuan bezala, hesi logistiko bat dago. Askoz errazagoa da hilean behin edo astean behin supermerkatu batera joan eta behar den guztia erostea, erosketaren saskia osatzeko hainbat ekoizlerengana joan baino.

Hori dela eta, administrazio publikoek horrelako elikagaiak sustatzeko egiten duten lana oztopo logistikoak murriztean eta kontsumitzaileei informazioa zabaltzean datza, batez ere eskaria horrelako ekimenak babesteko prest dagoen testuinguru batean. Tokiko politika publikoak, administrazioen arteko lankidetzak eta hiriko udalerrien (kontsumoa) eta landako udalerrien (ekoizpena) arteko koordinazioa aldaketa-faktorea izan daiteke tokiko eta sasoiko produktuen merkaturak dinamizatzeko.

Komertzializazioa babesteko politika publiko horiekin batera, ez da ahaztu behar erosketak publikoak duen eraldaketarako boterea. Ikastetxeetako, adinekoen egoitzetako eta ospitaleetako produktu ekologikoak, bertakoak eta sasoikoak elikatzeke zerbitzuen kontratazio publikoaren pleguetan lehenestek funtsezko aldaketa ekarriko luke ekoizpen-mota horientzat (EU 2014). Erosketak publiko jasangarriak zeregin garrantzitsua du ekoizpen eta kontsumo arduratsuen Garapen Jasangarriko Helburuetan (12. GJH), bai eta Marrakexeko prozesuan eta Hamar Urteko Esparruan (10YPF) jasotako ekintza-ildoetan ere.

5. Ondorioak

Azken batean, merkaturatze-kanal laburrek ekoizleen, kontsumitzaileen eta politika publikoen interesa pizten dute. Elikadura-sistema berriz definitzeko aukera eman dezakete ekonomiari, gizarteari, ingurumenari eta lurraldearen integrazioari dagokienez, hiriguneak, hiri-ingurukoak eta landaguneak lotuz. Herritarren artean elikadura-kontzientzia sustatzeko motorra izan daitezke, ez bakarrik banakako osasunaren ikuspegitik, baita ingurumen- eta gizarte-ikuspegietatik ere, elikadura-sistema jasangarriago baterantz. Elikagai-hornidurari erantzuteko banaketa handiaren funtsezko lana deabrutu gabe, merkaturatze-kanal laburrak aukera interesgarriak dira nekazaritza-sektoreak errenta eta enplegua modu inklusiboan sortzen dituen

landa-ingurunea babesteko. Merkaturatze-kanal laburrak sustatzeak tokiko nekazaritza-ekoizpena sendotu dezake, elikagaiak eskuratzeko aukera globalizazioaren gorabeheren mende gera ez dadin, eta ingurumen-erronka larriei aurre egiten lagundu dezan, hala nola klima-aldaketari edo (nekazaritza) biodibertsitatearen galerari.

Merkaturatze-kanal laburrek zuzenean laguntzen dute ekoizpen- eta kontsumo-eredu arduratsuagoa lortzen (12. GJH). Hala ere, kanal horiek garatzeko eta ezartzeko, politika publikoak behar dira, babesa emateko. Kanal horiek sustatzen dituzten landa-garapeneko politikek mesede egiten diete banaketa handirako sarbiderik ez duten ekoizle txiki eta ertainei; hurbiltasun-loturak indartzen dituzte, eta ehun sozioekonomikoa sortzen dute landa-eremuetan. Toki-administrazioen rola funtsezkoa da esparru horretan, eta beren eskumenen barruan bultzatzen daitezkeen ekintza asko daude.

Hala ere, toki-administrazioen inplikazioa ez da nahikoa. Europako, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta udaletako mailen artean eskumenak banatzea, elikagaien politikan zeharkako eta epe luzeko ikuspegia izateko beharra, eta landa- eta hiri-eremuen arteko erronkak dira merkaturatze-kanal laburrak maila anitzeko politika publikoen bidez sustatzearen garrantzia azpimarratzen duten erronketako batzuk. Politika horiek lurralde-ikuspegia izan behar dute, eta hainbat arlo inplikatzen behar dituzte, hala nola ekonomia, nekazaritza eta osasuna. ■

Bibliografia

- Cruz, J. L.; Benito, A (2014). «[Agricultura familiar periurbana y medio ambiente. Percepciones de los agricultores de la comarca de Las Vegas \(Comunidad de Madrid\)](#)». *IMIDRA, azterlanen seriea, 1. zk.*
- EIP Agri (2015): «[Elikadura-kate laburraren kudeaketa berritzailea](#)»
- EU (2014): [Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 26 de febrero de 2014 sobre contratación pública y por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE.](#)
- FOODLINKS (2013): [webgunea](#)
- MITECO: [Erronka demografikoa](#)

Luis Antonio Sáez Pérez

Zaragozako Unibertsitatea

Bárbara Soriano

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

1. Sarrera

2021eko ekainean, Europako Batzordeak Europar Batasunaren **landa-eremuetarako epe luzeko ikuspegia** (LTVRA) aurkeztu zuen¹. Bertan aitortzen zen garrantzitsua zela landa-eremuen etorkizuna babestea eta etorkizun horretan inbertitzea, eremu horien eta Europaren potentzial ekonomikoaren ongizatea bermatzeko. LTVRA ekimenaren asmoa, 2040. urtera begira, landaguneei bultzada berri bat ematea da, horien inguruko ikuskera aldatuz eta aukera berriak sortuz lau ildo nagusiren inguruan: **landa-eremu indartsuagoak, konektatuagoak, erresilientekoak eta oparoagoak izatearen inguruan**.

Lau estrategia horiei dagokienez, eta egia esan, landa-garapenerako edozein politikari dagokionez, **dibertsifikazioa** hartzen da bitarteko eta helburutzat. Horri gehitzekoa litzateke proposatu dugun **aniztasunaren** kudeaketa propositiboa ere. Hori horrela, sormen handiagoaren oinarria izan ohi da *polinizazio gurutzatua* (Rauch 1993), eta kohesioa eta ongizatea nagusi diren egoerak eragiten ditu. Abiapuntutzat du pertsonen arteko harremanen sendotasuna, desberdinak izateagatik elkar aintzat hartzen duten eta lankidetzan dihardutenen artekoa (Granovetter 1973). Hala ere, irakurketa ohikoenak adiera funtzional eta urbano hutsean geratu ohi dira. Nahiz eta horrek ere garrantzia handia izan, ez dituzte kontuan hartzen beste molde bateko «aniztasun» batzuk, hala nola kulturaren, adinaren, etniaren eta afektibitatearen ingurukoak. Horiek eragindako dinamika garrantzitsuek, sarritan hibridatuek, lehiakortasun handiagoa sortzen dute, eta herri txikietan kosmopolitismo berezi bat eratzen.

Artikulu honetan hausnartzen da landa-munduko aniztasunak nola laguntzen dien lehen aipatutako lau ildo horiei –indarrari, integrazioari, erresilientziari eta dinamismoari–. Hori egiteko, ordea, esanahi humanistagoi helduko zaie. Horrek aukera emango digu ausartagoak izateko eta harremanei eta konpromisoei buruz hitz egiteko, funtzioei eta sinergieiei buruz baino gehiago. Komunitateei buruz hitz egiteko, administrazio-unitateei buruz baino gehiago. Eta zoriontasunari buruz hitz egiteko, eraginkortasuna metabolizatzeko eta sakontasun handiagoa emateko elementutzat, batez ere landako herri txikietan. Dibertsifikatzea ez da soilik proposatzen merkatuek araututako eta gobernuek zuzendutako ekoizpen eta kontsumo moduetan alternatiba hobeen iturritzat, baita herritarrak kontzienteago eta solidarioago gobernatzeko eta gauzatzeko bidetzat ere, eta, bereziki, askotarikoak eta konplexuak diren pertsonen osatutako gizarte zibilaren gaitasunak zabaltzeko eta eraginkor bihurtzeko bidetzat. Dax eta Copusek (2022) diote interesgarria dela eztabaidatzea ea komenigarria den analisisetan eta proposamenetan bira hori ematea, dibertsifikazioari lotutako eraginkortasun ekonomizistari emandako eta enpresa lehiakortasunean oinarritutako ikuspegiaren aurrean (horren adibidetzat adierazten zituzten Lisboako Estrategia eta *Smart Growth* trasposizio aseptikoa). Horren ordez, izaera integralagoko garapen baterantz jo beharko litzateke. Gure kasuan, Nussbaum eta Sen (1993) izan dira oinarriak: pertsonen eta haien komunitateen gaitasunari eta garrantziari buruz dituzten ideiak.

Hurrengo ataletan, hasiera batean, dibertsifikazioa planteatuko dugu literatura akademikoaren eta Europako politikaren ardatz nagusietan, landa-ekonomian oinarrituta. Epigrafe batean zabalduko dugu gero ikuspegi hori, gobernu on batek izan beharreko alderdi sozialak kontuan hartzeko. Ondoren, komunitatearen inguruko gaiei helduko diegu, aukera ematen dutenei populazio irekiak eta bizinahi handikoak izateko. Amaitzeko, eztabaida labor bat egin eta ondorioak aterako ditugu.

1. https://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2021/06/30-06-2021-long-term-vision-for-rural-areas-for-stronger-connected-resilient-prosperous-eu-rural-areas

2. Europako politikak bultzatutako dibertsifikazio ekonomikoa

Landa eremuen oparotasuna sustatzeko LTVRA ekimenean definitutako jarduketaren ardatz nagusia landa eremuetan **jarduerak eta funtzioak dibertsifikatzen** laguntzea da. Dibertsifikazio hori, batez ere, ekonomiari dagokio. Tokiko ekonomia eraldatzeko estrategia gisa definitzen da, eta estrategia horren helburua da ekonomia bakarria izatek hiru sektoreetatik (lehen, bigarren eta hirugarren sektoretik) eratorritako diru-sarrerak ugari datozkion ekonomia izatera igarotzea. Estrategia horrek aspalditik hautemandako premiari erantzuten dio, hau da, landa eremuko biztanleek nekazaritzako ekoizpenetik eratorritako diru-sarrerak bakarrik ez sortzeari. Horren ordez, askotariko lanbideak izateko aukera eman nahi zaie, diru-sarreraren inguruko arriskuak murriztu eta negozio berriak sortu ahal izateko.

Ekonomia dibertsifikatzeko prozesuek **eragin positibo** ugari dituzte. Ildo horretan nabarmentzekoa da, besteak beste, ekarpena egiten diola diru-sarrerak handitzeari, murriztu egiten duela espezializazio-arriskua (zaharkitzea, lehiakide berriak eta enpresa bultzatzaileen kudeaketa txarra, besteak beste). Sektore desberdinen arteko kanpoko harreman positiboak ere sortzen ditu, ezagutzak partekatzea areagotzen du eta antolamendu-berrikuntza dakar. Horrez gain, balio estrategiko handiko ukiezinak eragiten ditu, biztanle eta lanerako aukerak berriak erakartzen ditu, eta aurrerapausoak dakartza lurraldearen gobernantzako prozesu berrietan eta ingurumenaren kontserbazioan.

Dibertsifikazio ekonomikoa kontzeptu hori **lurralde-mailan definitzeko erronkari** egin behar dio aurre. Eraginkorra izan dadin, gutxienezko atalase edo masa kritiko bat behar du, eta nekez sor daiteke hori egiturarik ez duten dentsitate txikiko lurraldeetan. Landa-eremu urrun eta despopulatuetan, litekeena da tokiko mailan lehenetsia izatea, jarduerak ekonomikoen kopuru mugatu baten aurreko eragin estatistiko huts baten emaitzatzat, baina sektore gailen baten eta egitura ekonomiko indartsu eta dinamikorik gabe. Nolabaiteko tentsioa dago dibertsifikazioaren eta espezializazioaren artean. Izan ere, negozio-ereduak bideragarriak izateko, haiek abantaila erlatiboak aprobeztatu behar dituzte hasierako etapa batzuetan, enpresa mailan, baina baita sektore mailan ere, ezinbesteko bidesari gisa.

Martino et al. (2022) erreferentziatzen hartuta, gaur egun landa-dibertsifikazioan aurrera egiteko funtsezko lau esparru daude:

1. **Enplegua, ekintzailtza eta negozio-eredu berriak:** Eremu horren arabera, nekazaritza-turismoak aukerak eman ditzake jarduerak ekonomia dibertsifikatzeko. Hori sustatzen duten negozio-ereduen garapenak oinarri dute elkarlaneko ekonomia, gizarte-kohesioa eta baliabide naturalen erabilera jasangarria. Nekazaritza-turismoarekin batera, urruneko lanari laguntzeko eta zerbitzu anitzeko zentroak garatzeko estrategiak ere enplegua sortzeko interes handiko iturritzat hartzen dira.
2. **Landatartasun adimenduna eta digitalizazioa:** Tokiko biztanleak bultzatzean datza, haien ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-baldintzen hobetzerak, beste komunitate batzuekiko lankidetzan jardutera eta berrikuntza sozialean parte hartzera. Digitalizazioak berekin dakar teknologia digitalen eskuragarritasuna eta erabilera erraztea landa-eremuetako bizitza pertsonalean eta lanekoan, bai eta zerbitzu publiko eta pribatuaren hornikuntzan ere, prestakuntzaren eta gaikuntzaren bidez.
3. **Nekazaritza dibertsifikatzea:** bideratuta dago, batik bat, kalitate handiko tokiko ekoizpenak bultzatzera, hornidura kate laburrak garatzera eta elikagai produktuak (tokikoak) ziurtatzera, kalitate eskemen baitan, hala nazionalak nola EBri dagokionak (Jatorri Deitura Babestua, Adierazpen Geografiko Babestua eta Espezialitate Tradizional Bermatuak, besteak beste).
4. **Klimari erantzutea eta bioekonomia garatzea:** Esparru horretan bereziki nabarmentzen da energiaren sektorea, batez ere energia berriztagarrien ekoizpenari lotutakoa (biomasari, eolikoari eta eguzki-energiari), baita nekazaritza sektoreko ikerketa eta berrikuntza ere, elikagaien jasangarriak ekoizteko.

3. Dibertsifikazio ekonomikoa eta aniztasun soziala

Dibertsifikazio ekonomikoko prozesuek **berrikuntza-prozesuak** dakartzate (Mc Fadden, Gorman, 2016), eta aldean dute **berrikuntza teknologikoa** ere (produktu berriak eta produkzio-prozesuak) baita **gizarte-berrikuntza** ere. Azken horri dagokie interakzioarako eta inklusioarako modu berriak dakartzaten gizarte-praktiketako aldaketek, besteak beste honako hauei:

1. Antolaketa- eta lankidetzaren berrikuntzak tokiko eragileen, beste ekoizle batzuen eta kontsumitzaile

leen artean, tokiko ezagutzak eta ezagutza zientifikoak integratuz;

2. merkaturatze-berrikuntzak;
3. jarrearen inguruko berrikuntzak, eta horien baitan lankidetzak eta eragilearen gaitasuna eta portaera edo pertzepzioen aprobetxamendua; eta
4. landa-ingurunean zerbitzuak ematera bideratutako gizarte-ekintzailak (Gamito eta Madureira, 2019).

Hori dela eta, beharrezkoa da dibertsifikazio-prozesuetan biztanleria-talde handiek parte hartzea. Horrek, landa-munduan, honako eragile hauek hartzen ditu: landa-eragile tradizionalak, hala nola nekazariak eta abeltzainak, gainerako sektore ekonomikoetako ekintzaileak eta langileak, politikaren erabakitzaileak, eta dibertsifikazioaren onuradun izan daitezkeen herritarrak.

Hori horrela, ekonomia dibertsifikatzearekin batera espero den emaitza nagusietako bat da **aniztasun soziala**. Bertan, eskualdearen garapenari ekarpena egiten diote ezaugarri, baldintza eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonen, elkarrekintzan jardunez. Horrek erraztu egiten du dibertsifikazioa aztertzea, ikuspegi bertikaletik/sektorialetik (ekoizpen sektoreetara mugatutakotik) harago. Izan ere, ikuspegi horizontala txertatzeak kontuan hartzen ditu dibertsifikazio-prozesuan azaleratzen eta erabiltzen diren ukiezin estrategikoak: talentua, berrikuntza, sare eta harremanak, eta kalitate instituzionala.

Ikuspegi horretatik, Europako Batzordeak LTVRA ekimenean jasota dauka laguntza handiagoa eman behar zaiela **gizarte-ekonomiaren** barruko proiektuei, kolektibo kalteberen beharrei erantzuteko (hala nola gazteei, emakumei eta migratzailei) eta gizarte-erakundeei eta ekoizle-taldei laguntzeko. Europako Batzordeak, LTVRA jarraitzeko txostenean, honako hau adierazten du: azken urteetan aurrerapausoak eman direla dibertsifikazioari emandako laguntzan. Izan ere, gizarte-ekonomiarako EBren ekintza-plan bat definitu da, landa-eremuetarako gizarte-ekonomiaren arloko jardunbide egokiak argitaratu dira² eta finantzaketa-aukera berriak bultzatu dira. Txosten horretan, Europako Batzordeak gizarte-ekonomia eta hezkuntza babesten jarraitu behar dela ondorioztatzen du, 2040ra begira.

4. Bizinahi handiko aniztasuna lortzeko gakoak

Dibertsifikazioa beste modu batera interpreta daiteke: desadostasunek eta kontrasteek eraginda, pertsonak eta komunitateak gaituko dituen garapen baterantz aurrera egitea lortzen duen prozesutzat. Landa-aniztasuna, gaur egun, bereziki ordezkatzeko dute sinplifikatu ezin diren jatorri eta ibilbideak dituzten **biztanle berriek**. Horiek ez daude landa-garapeneko estrategia gehienetan, ez baitituzte kontuan hartzen biztanle horien gaitasunak (eta eskubideak/betebeharrak). Horrez gain, nabarmentzekoak diren identitateak eratu dira, pertsona- eta talde-mailan oso moldakorrek direnak, eta aldatu egiten direnak bizi-etapa batetik bestera. Gizarte hauetan aldagaitzak dira ia oinordetzan hartutako natura, paisaiak, ondare material eta immateriala; ildo horretatik, **pertsona konprometituak** behar dituzte, errotuta daudenak, jarraipena nori eman edukitzeko.

Bestalde, bizi-proiektuetan **belaunaldien arteko dibergentzia** proposizio batera bideratzea ere zailtasun handiko prozesua da. Gabezia larrietako bat, lehengoratzeko zaila izan arren, ondare komunitarioaren tradizioekin lotuta dago, errelebo faltagatik garatu ezinik geratuko diren proiektu emergenteekin batera desagertzen baitira. Dibertsitateak beste alderdi batzuk ere hartzen ditu, hala nola denborazko eta fisikoa. Izan ere, mugikortasuna egungo landa-ingurunearen berezko tasuna da, eta, beraz, komunitate bateko eta besteko kide dira aldi berean. Horiek guztiak hain dira konplexuak eta korapilatuak aldi berean, non autoktono izateari eta benetakotasunari buruzko diskurtsoak ez baitiren beti harmonikoak, eta ez baitiren arrazoituz eta enpatiaz egiten.

Appiah (2019) aipatuz, komunitateak mugiarazten dituen ekintza kolektiboak, herrialde edo herri izan, aniztasuna baitan daukan eta aurrerapen bihurtzen duen identitate partekatua bat eraiki behar du. Bataren eta bestearen arteko talkek ideia hobereenen garra piztea lortu nahi da, hizketaldi eta eztabaidak sortzeko; baita proiektuak sendotzeko ere, grinak dakarren tentsioa baliatuta. Prozesu eraikitzaileak eta inklusiboak asmatzen ikasi behar dugu, aniztasunetik abiatuta, orekaz eta zentzuz. Izan ere, desagokiro prestatuz gero, estereotipoak eta ghettoak betierekotu ditzaketen liskar-egoerak sor ditzakete. Lehenbiziko hori lortzeko ez luke hain zaila izan beharko, desberdintasunak eta nortasunak ez direnean eraikuntza sozialak besterik; «batzen gaituzten

2. https://ruralpact.rural-vision.europa.eu/good-practice_en

gezurrak», Appiah (2019) berriro aipatuz. Hala ere, nekeza da, konpontzen zailenak diren arazoak baitira, hain zuzen, adimenek bihurritutakoak: «*the wicked problems*» (Tietjen & Jøersen, 2016).

5. Ondorioak

Dibertsifikazioaz dihardugunean, heterogeneoak dira ikuspegi integratzaile eta heterodoxoa iradokitzen duten motibazio eta testuinguru guztiak. Hala ere, arreta batez ere merkatuari ematen zaio, prezioekin eta zergekin kuantifika daitezkeen datuak argitzen baititu, eta ez alderdi ukiezin eta kualitatiboak, non tolerantziarekin, talentuarekin eta «leku sortzaileak» eratzeke teknika berritzailearekin lotutako balioak eta konbentzimenduak nagusitzen diren (Florida, 2003).

Aniztasunak egin daitekeen hori izan behar du abiapuntutzat, eta ez zaio gidalerro horri uko egin behar gezurrezko bake baten truke. Izan ere, horrek sorgortu egingo gintuzke, eta arriskutsua izango litzateke. Ondorioz, ez lirateke saihestu beharko ekintza politikotik eta akademiatik abiatutako eztabaida eta liskarrak, harmonia adimentsu eta sentikorra eragiten baitute. Landa-garapenari buruzko hainbat eztabaidatan hizpide da, dagoeneko, dibertsifikazioa berrinterpretatzea. Horrek aipatu egiten ditu landako biztanleek beheraldietara egokitzeke dituzten balio eta aukerak, haien aniztasunean bizikidetzako osoagoa izateko abagunea ematen dieten horiek, eta gaitasunak eta garrantzia sustatzen dituzten horiek (Pinilla eta Saez, 2021).

Horren ondorioz, dibertsitatea aztertzean, enpresa-eta ekoizpen-alderdi hertsia ez ezik, harago dauden beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar direla uste dugu. Ezin jar dezakegu zalantzan haien garrantzia; izan ere, enplegu gehiago eta hobeak izateak ondorio sozialak ditu, ahaldundu egiten ditu era bateko eta besteko genero eta adinak, eta aukera ematen du gaitasun eraginkorrek izateko. Jarduera ekonomikoek landa-eremua moldatzen dute, baldintzatu egiten baitute zein taldek egingo duen aurrera, eta zein utziko diren «alde batera» (Rodríguez-Pose, 2022. Beraz, beharrezkoa da jarduera horiek aztertzea, eta horien arabera jokatzeko. Zuzkidura ekonomikorik ez izateak asko murrizten ditu aukerak, eta zenbait gaitasun garatzeko aukera mugatzen dute. Baina badira kontuan hartu beharreko beste zenbait bizi-eremu ere. Errenta-maila batzuetatik aurrera, luzarotik egiaztatu du Easterlinek (2023) zorientasunak ez duela goranzko

joera. Eta landa-eremuk herri txikiek ekintza-maila kolektiboak ahalbidetzen dituzte, aniztasunari zentzuz eta sentikortasunez aurre egiteko. Beraz, dibertsifikazio-estrategiak birdefinitu behar dira, haien zentzua zabaldu; esanahia eman behar diegu, esangura izan dezaten... bizitzarekin gertatzen den bezala.

Bibliografia

- Appiah, K. A. (2019). *Las mentiras que nos unen: Repensar la identidad. Creencias, país, color, clase, cultura*. Taurus, Madril.
- Dax, T., & Copus, A. (2022). «European rural demographic strategies: foreshadowing post-Lisbon rural development policy?». *World*, 3(4), 938.-956. or.
- Easterlin, R. A. (2023). «Why does happiness respond differently to an increase vs. decrease in income?». *Journal of Economic Behavior & Organization*, 209, 200.-204. or.
- Florida, R. (2003). «The Rise of the Creative Class: And How It's Transforming Work, Leisure, Community and Everyday Life». *Canadian Public Policy*, 29 (3)
- Gamito, T. M., & Madureira, L. (2019). «Shedding light on rural innovation: Introducing and applying a comprehensive indicator system». *Regional Science Policy & Practice*, 11(2), 251.-278. or.
- Granovetter, M. S. (1973). «The strength of weak ties». *American Journal of Sociology*, 78(6), 1360.-1380. or.
- Mc Fadden, T., & Gorman, M. (2016). «Exploring the concept of farm household innovation capacity in relation to farm diversification in policy context. *Journal of Rural Studies*, 46, 60.-70. or.»
- Nussbaum, M., eta Sen, A. (eds.) (1993). *The quality of life*. Clarendon Press.
- Pinilla, V., & Sáez, L. A. (2021). «What do public policies teach us about rural depopulation: The case study of Spain». *European Countryside*, 13(2), 330.-351. or.
- Rauch, J.E. (1993).« Productivity gains from geographic concentration of human capital: evidence from the cities», *Journal of Urban Economics*, 34, 380-400.
- Tietjen, A., & Jørgensen, G. (2016). «Translating a Wicked Problem: A Strategic Planning Approach to Rural Shrinkage in Denmark», *Landscape and Urban Planning*, 154: 29.-43. or.

Rosa Gallardo-Cobos eta Pedro Sánchez-Zamora
Kordobako Unibertsitatea

Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreak eta, oro har, landa-munduak erronka handiei egin behar diete aurre gaur egun, eta horrek, aldi berean, efizientzia, iraunkortasun, kalitate eta errentagarritasun handiagoa bilatzera bultzatzen du. Erronka horiei aldi berean aurre egiteko, berrikuntzaren alde egin behar da, irmo, esparru horretan gero eta handiagoa baita eraldaketa teknologikoa eta digitala egiteko premia.

1. Digitalizazioaren aukerak eta erronkak nekazaritzako elikagaien sektorerako eta landa-ingurunerako

Sektore agrarioan, teknologia digitalak eta datuak kudeatzeko sistemak iraultza eragiten ari dira jardunbide agrarioetan. Sentsoreek, dronek eta sateliteek aukera ematen dute lurzorua eta laboreak zehaztasun handiz kontrolatzeko, eta, hala, uraren, ongarrien eta produktu fitosanitarioen erabilera optimizatzea lortzen da. Helburua da kalitate oneko datuak teknologia berriekin biltzea, biltegitratzea eta aztertzea, nekazaritzako elikagaien katean erabakiak hartzen laguntzeko eta erabaki horiek eskura dauden teknologia berriak erabiliz aplikatzeko (Peña et al., 2021). Berrikuntza horiei esker, produktibitatea areagotzea lortzen da, elikagaien ekoizpena handitzea lortzen baita, gero eta baliabide urriagoak efizientzia handiagoz erabiliz. Horrez gain, ingurumen-inpaktua murrizten da, jardunbide jasangarriagoak sustatzen baitira. Teknologiak nekazaritzako elikagaien sektorerako eskaintzen dituen aukeren artean, honako hauek nabarmentzen dira:

1. **Efizientzia:** Teknlogiek, hala nola doitasunezko nekazaritzak, baliabideen erabilera optimizatzen dute, eta, horrela, produktibitatea handitu eta kostuak murriztu egiten dira.

2. **Kalitatea eta trazabilitatea:** Digitalizazioari esker, trazabilitatea eta kalitate-kontrola hobetzen da hornikuntza-kate osoan, ekoizpenetik hasi eta azken kontsumitzaileeraino.
3. **Jasangarritasuna:** Berrikuntza teknologikoak lagungarriak dira ingurumen-inpaktua minimizatzeko, ura, ongarriak eta fitosanitarioak efizientzia handiagoz erabiltzen baitira, eta, hala, jardunbide jasangarriagoak sustatzen dira.
4. **Elikagaien segurtasuna:** Automatizazioari eta etengabeko kontrolari esker, kutsadura-arriskuak murriztu egiten dira eta aukera dago arazoei bizkor aurre egiteko.
5. **Erabaki-hartze informatua:** Datuak biltzeari eta aztertzeari esker, nekazariak eta nekazaritzako elikagaien arloko balio-kateko eragileek informazio baliotsua eskuratzen dute, erabaki estrategiko informatuagoak hartzeko.
6. **Galerak eta xahuketak murriztea:** Biltegitratze- eta garraio-teknologia optimizatuek uzta osteko galerak eta elikagaien xahuketa murrizten dituzte.

Nekazaritzako elikagaien sektorean, badaude punta-puntako teknologia digitalak erabili izanaren adibide interesgarriak. Besteak beste, hauek dira aipagarrienak: *big data* analitika, adimen artifiziala, IoT (gauzen Internet), errealitate areagotua/birtuala, *Cloud/Edge computing* delakoa, sentsore adimendunak, robotika eta zibersegurtasun-teknologiak. Ez da, beraz, arazo teknologiko soil bat, teknologia horren erabilera-tasa ere hobetu behar baita

7. **Klima-aldaketara egokitzea:** Tresna teknologikoei esker, nekazariak aukera dute klima-aldaketetara hobeto egokitzeko eta horrekin lotutako arriskuak kudeatzeko.
8. **Belaunaldien arteko erreleboa:** digitalizazioa elementu erakargarria izan daiteke gazteak sektore honetako lanbideetan jarduten hasteko.

Nekazaritzako elikagaien sektorean, badaude punta-puntako teknologia digitalak erabili izanaren adibide interesgarriak. Besteak beste, hauek dira aipagarrienak: *big data* analitika, adimen artifiziala, IoT (gauzen Internet), errealitate areagotua/birtuala, *Cloud/Edge computing* delakoa, sentsore adimendunak, robotika eta zibersegurtasun-teknologiak. Ez da, beraz, arazo teknologiko soil bat, teknologia horren erabilera-tasa ere hobetu behar baita. Adibide gisa, Nekazaritzako Elikagaien Sektorea Digitalizatzeko Behatokiaren 3. txostenaren datuen arabera (Cajamar, 2023), ustiategiak kudeatzeko tresna digitalak kontrol hidrikorako (kasuen % 19an), izurriteak eta gaixotasunak daudela jakinarazteko (% 8), eta ongarritze-plan bat zehazteko (% 7,7) erabiltzen dira.

Hala, ekonomiarekin, prestakuntza eta gaikuntzarekin, konektibitatearekin, elkarreragingarritasunarekin eta, are gehiago, kulturarekin eta jarrerekin lotutako faktoreak erabakigarriak dira norabide egokian aurrera egiteko (Gallardo-Cobos, 2020). Cajamarren txosten horren arabera, ekoizleen % 66,1ek adierazi du nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan teknologia berriak ezartzearen alde dagoela, baina oztopo garrantzitsuak identifikatu dira nekazaritzako elikagaien sektorea digitalizatzeko. Oztopo horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira: teknologia berrien kostua (% 71,1), finantziazio publikorik eza (% 52,4), teknologia berriei buruzko ezagutza falta (% 42,6) eta egindako inbertsioa ez berreskuratze beldurra (% 40,5). Sektoreari oztopo horiek gainditzeko laguntzea da aurre egin beharreko erronka handienetako bat. Horretarako, hauek nabarmendu behar dira:

1. kostuak murriztea, digitalizazio inklusiboa ahalbidetzeko, ekoizle txiki eta ertainek ere eraldaketa digitala errazago lortzeko;
2. hainbat teknologia eta plataforma bateratzeko eta integratzeko aukera ematen duten sistemak integratzea;
3. ezagutza-arrakala murriztea, sektoreko nekazarien eta langileen artean prestakuntza eta trebetasun digitalak egokitzeko; eta
4. teknologia berriak erabiltzearen aurkako erresistentzia murriztea, dela metodo konbentzionalak hobesten direnean, dela teknologiarekiko mesfidantza dagoenean.

Berriki, uko egin zaio ustiapen-koaderno digitala ezartzeko ahaleginari, hura ezartzeko zailtasunak zirela eta. Horrek argi erakusten du laguntza, aholkularitza eta trebakuntza egokiak behar direla teknologia digitalak sartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko.

Zalantzarik gabe, nekazaritzako elikagaien sektoreak berezitasunak ditu, hala nola kanpaina bidezko funtzionamendua, eragiketa tirabiratsuak eta transakzio askokoak, epe luzeko inbertsioak, partehartzaile askoko kate luzeak, elikagaien osasun-eta segurtasun-kontrola, produktu galkorrak eta izaera biologikokoak, lurralde-banaketa edo sistema irekiak. Horregatik, beharrezkoa da konponbide espezializatuak eta egokituak izatea, alde handiak baitaude sektoreko segmentu ezberdinen artean. Hori ere erronka handia da sektoreak behar dituen profesional berrien prestakuntzarako (Molina-Zamora, 2021).

Bestalde, Espainiako landa-ingurunea, besteak beste, bere lurraldeen heterogeneotasun handiagatik eta bere naturguneen ugaritasunagatik bereizten da. Aniztasun horrek landa-errealitate desberdinak eta bereziak dakartza berekin, eta errealitate horiek berariazko azterketa egokituak behar dituzte, haien arazo zehatzak eta garapenerako oinarri izan litezkeen faktoreak identifikatzeko. Hala ere, gaur egun, horietako gehienek aurre egin beharreko zenbait erronka komun dituzte.

Demografiaren ikuspegitik, biztanleria-galera Mendebaldeko herrialde askoren landa-eremuetako arazo garrantzitsuenetako bat bihurtu da (Johnson eta Lichter, 2019). Espainian, landa-eremuetan bizi den biztanleria % 7,1 jaitsi zen 2011-2020 aldian, eta hiri-biztanleria % 2,1 igo zen, biztanleria-hazkunde orokorra % 0,6koa izanik (MAPA, 2021). Landa-biztanleriaren galera hori gizarte-arazo bihurtu da azken urteotan, eta ondorio larriak

Espainian, landa-eremuetan bizi den biztanleria % 7,1 jaitsi zen 2011-2020 aldian, eta hiri-biztanleria % 2,1 igo zen, biztanleria-hazkunde orokorra % 0,6koa izanik (MAPA, 2021). Landa-biztanleriaren galera hori gizarte-arazo bihurtu da azken urteotan, eta ondorio larriak izan ditu: lurralde-identitatea galtzea, gizarte- eta kultura-balioak galtzea, bai eta galerak ingurumen-jasangarritasunean ere, horretarako demografia-baliabideak behar dituzten eremu batzuetan

izan ditu: lurralde-identitatea galtzea, gizarte- eta kultura-balioak galtzea, bai eta galerak ingurumen-jasangarritasunean ere, horretarako demografia-baliabideak behar dituzten eremu batzuetan.

Arlo horretan, landa-eremu askotan ikus daitezkeen beste arazo handi batzuk biztanleriaren zahartzea eta maskulinizazioa dira. Espainiaren kasuan, landa-eremuetako gazteen tasa % 9,1 jaitsi da azken urteetan, eta biztanleriaren maskulinizazioa hiri-eremuetan izaten dena baino % 9,2 handiagoa da (MAPA, 2021). Egoera hori gaur egungo eta etorkizuneko erronka garrantzitsuenetako bat bihurtu da landa-ingurunerako; izan ere, egitura demografikoari berari ez ezik, gizarte-kohesioari, tokiko ekonomiari eta landa-komunitatearen ongizate orokorrari ere eragiten die.

Berrikuntzak, oro har, eta digitalizazioak, bereziki, aukera handiak ematen dizkiote landa-munduari lehen aipatutako erronka handiei aurre egiteko. Aukera horien artean, honako hauek nabarmentzen dira (Moodie et al., 2017):

1. tresna digitalek nekazaritza-sistema efizienteagoak, produktiboagoak eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak eraikitzen laguntzea;
2. isolamendu geografikoa gainditzea, hiri-eremuekin, garapen-guneekin eta nazioarteko merkatuekin lotura sendoagoak sortuz;
3. negozioak dibertsifikatzeko aukera, onlineko zerbitzuak erabiliz;

4. lehiakortasuna hobetzea, tokiko enpresak nazioko eta nazioarteko merkatu berrietara hedatuz; edo
5. gazteen migrazioa eta talentuaren ihesa murriztea. Izan ere, alde horretatik, gero eta gehiago dira Espainiako eta Europako landa-lurraldeetan ikus daitezkeen esperientziak. Esperientzia horiek ondasunen eta zerbitzuen tokiko eskaintzaren arloko berrikuntza digitalak izaten dituzte ardatz, baita hobekuntzak lortzea ere arlo hauetan: komunikazioa eta gardentasuna; mugikortasuna eta garraioa; osasuna eta gizarte-laguntza; hezkuntza eta prestakuntza; enplegua; administrazio publikoen zerbitzuak; energia; logistika, etab. (ENRD, 2018; Cowie et al., 2020)

Nolanahi ere, berrikuntza teknologiko eta digitalak aukera asko eta askotarikoak eskaintzen ditu landa-lurraldeak garatzen laguntzeko, baina garrantzitsua da ulertzea, halaber, aldaketa teknologiko disruptibobatek inpaktu handia eragiten duela landa-lurraldeetan, eta, behar bezala kudeatzen ez bada, irabazleen eta galtzaileen arteko arrakala sor dezakeela, edo landa-eremu jakin batzuk are gehiago bazter ditzakeela. Izan ere, zenbait egilek argudiatu dute teknologia digital batzuek, nekazaritza- eta landa-eremuak eraldatu ordez, gaur egun jasanezintzat jotzen diren sistema batzuk indartu ditzaketela. Horrek esan nahi du berebiziko garrantzia duela teknologiaren eragina erabat ulertzea, eta jakitea nola xtertatzen den teknologia hori gizarte-sistemetako interes-taldeen barruan (Klerkx eta Rose, 2020).

Berrikuntza teknologikoarekin eta digitalarekin batera, beraz, gizarte-berrikuntza ere egin behar da. Berrikuntza horrek esan nahi du landa-komunitateek gaitasuna dutela ekimena hartzeko eta, tokiko asmamenean oinarrituta, lurraldearen beharrei zuzenean erantzuteko, eskura duten teknologiarekin batera. Beraz, lurraldeko eragileek parte hartu nahi duten ekosistema digitala eraiki eta kudeatu behar dute. Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartzen dute *Living labs* (laborategi biziak) eta *Rural digital hubs* (landa-zentro digitalak) izeneko ekosistemek. Ekosistema horiek berrikuntza eta teknologia digitaletarako sarbidea sustatzen dute, nekazarien, enpresa teknologikoen, unibertsitate eta ikerketa-zentroen eta lurraldeko beste eragile batzuen arteko ezagutza-trukeak bultzatuta. Hala, teknologia horiek modu eraginkorrean eta errentagarrian erabiltzea

errazten da, eta lankidetzak eta lankidetzak-sareak sortzea sustatzen da.

2. Nekazaritzako elikagaien sektoreko eta landa-eremuetako digitalizazioa bultzatzeko erakunde-sistema

Berrikuntza digitalari laguntzeko beharrezko sistema hori bultzatzeko, garrantzitsua da Espainiako landa-ingurunean eragina duten administrazioen laguntza instituzionala izatea. Europar Batasunean, 2015ean onartutako Merkatu Digital Bakarrerako Estrategiaz gain, badaude helburu hori lortzeko beste ekimen batzuk, hala nola, Europa Digital, Conectar Europa, eta Koperniko eta Galileo programak, bai eta Horizonte Europa programa ere. Era berean, egungo 2023-2027 NPBk ezagutza, berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea eta bateratzea zeharkako helburu gisa aurkezten du, eta horrek berekin dakar Plan Estrategiko Nazionalak teknologia digitalak garatzeko estrategia bat bere baitan izatea. Izan ere, Espainiako NPBen Plan Estrategikoan, berrikuntza digitala funtsezko oinarri bihurtzen da nekazaritza- eta landa-sektorea eredu jasangarriago, efizienteago eta lehiakorrago baterantz eralda dadin bultzatzeko, teknologia aurreratuak hartuz eta konpetentzia digitalak hobetuz.

Beste ekimen nazional batzuen artean, aipatzekoa da 2019an nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektoreak digitalizatzeko estrategia onartu zela, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAPA) bultzatuta. Estrategia horren bigarren ekintza-plana martxan da jada, eta, haren testuinguruan, eraldaketa digitala sustatzeko beharrezko ildoak eta neurriak zehaztu dira, baita hura ezartzeko aurreikusitako tresnak ere. Estrategia horretan, digitalizazioa ikuspegi integral batetik jorratzen da, eta alderdi teknologikoak ez ezik, alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ere kontuan hartzen dira.

Beraz, ekimen instituzionalen multzo bat da, nekazaritzako elikagaien sektorearen eta landa-ingurunearen eraldaketa digitalaren aldeko apustu irmoa egiten duena, estrategia argiak, helburu zehatzak eta horiek lortu ahal izateko neurri zehatzak

eknologia ez da berariazko helburua, sektoreari garapen- eta aurrerapen-prozesuan laguntzeko tresna bat baizik, gaur egungo ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-beharrei hobeto erantzuteko, bai eta gaur egun gizarteak elikagaien ekoizpenari eta landa-munduari buruz dituen eskaerei hobeto erantzuteko ere. Funtsezkoa da digitalizaziorako oinarritzko baldintzak bermatzea (azpiegiturak, zerbitzuak eta eskumenak) eta inklusio digitala bultzatzea, inor atzean gera ez dadin eta arrakala digitalik egon ez dadin.

ezarritik. Neurri horien artean, nabarmendu behar da finantza-tresnak daudela, baina baita ekonomikoak soilik ez diren beste pizgarri-mota batzuk ere. Gainera, testuinguru horretan, garrantzitsua da beste elementu batzuk ere nabarmentzea, hala nola erakunde komunitarioen, nazionalen eta eskualdekoen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako borondatea, eta gobernuen, enpresen eta erakundeen arteko lankidetzak publiko-pribaturako borondatea.

Edonola ere, arlo instituzional horretan bide luzea dago oraindik egiteko. Beharrezkoa da aurrera egitea estandarrak eta araudiak diseinatzeko bidean, gai hauen inguruan: sistema digitalen elkarreragingarritasuna, datuen jabetzaren eta errentagarritasunaren erregulazioa, politikak ezartzeko arintasuna, burokrazia murriztea, eta erakundeen arteko koordinazioa, ekintzetan bikoiztasunik eta koherentzia faltarik ez gertatzeko.

3. Ondorioak

Agerikoak dira eraldaketa digitalak nekazaritzako elikagaien sektoreari, bereziki, eta landa-inguruneari, oro har, eskaintzen dizkion aukerak, baina asko dira eraldaketa digital erabilgarri eta inklusiboan aurrera egiteko gainditu behar diren oztopoak ere. Teknologia ez da berariazko helburua, sektoreari garapen- eta aurrerapen-prozesuan laguntzeko tresna bat baizik, gaur egungo ekonomia-, gizarte- eta

ingurumen-beharrei hobeto erantzuteko, bai eta gaur egun gizarteak elikagaien ekoizpenari eta landa-munduari buruz dituen eskaerei hobeto erantzuteko ere.

Funtsezkoa da digitalizaziorako oinarritzako baldintzak bermatzea (azpiegiturak, zerbitzuak eta eskumenak) eta inklusio digitala bultzatzea, inor atzean gera ez dadin eta arrakala digitalik egon ez dadin.

Nekazaritzako elikagaien sektorearen eta landa-ingurunearen berezitasunak eta elementu espezifikoak direla eta, digitalizazioa sektoreko eta lurraldeko testuinguruetara egokitu behar da.

Gazteak funtsezko elementuak dira nekazaritzako elikagaien sektoreko eta landa-ingurune digitalizazioak sektore horrek eta gizarteak behar duen erritmoan aurrera egiteko. Aliantzak, lankidetzak publiko-pribatua, ekosistema digitalen garapena eta nekazaritzako elikagaien eta landa-eremuen digitalizazio jasangarrirako tresna politikoaren diseinua funtsezko faktoreak dira erronka handi horri erantzuteko.

Eraldaketa-prozesuhauetaz dalehiakortasuna irabazteko aukera bat, nekazaritzaren eta landa-ingurunearen bideragarritasunerako eta etorkizunerako premia bat baizik. ■

Erreferentziak

Cowie, P., Townsend, L. eta Salemin, K. (2020). «Smart rural futures: Will rural areas be left behind in the 4th industrial revolution?» *Journal of Rural Studies*, 79:169-176.

EAPN, European Anti-Poverty Network (2023). *La Pobreza Rural y Urbana. 13.º Informe 2023. El Estado de la Pobreza. Seguimiento de los indicadores de la Agenda UE 2030.* (2024ko uztailaren 13an egindako kontsulta).

ENRD, European Network for Rural Development. (2018). «Smart Villages: Revitalising rural services». *EU Rural Review* 26. zk. Luxenburgo: European Network for Rural Development.

Gallardo-Cobos, R. (2020): «La transformación digital del sector agroalimentario y forestal». *Agronegocios*, digitalizazioari buruzko ale berezia, ekaina.

Johnson, K. M. eta Lichter, D. (2019). «Rural Depopulation: Growth and Decline Processes over the Past Century». *Rural Sociology*, 84(1):3-27.

Klerkx, L. eta Rose, D. (2020). Dealing with the game-changing technologies of Agriculture 4.0: how do we manage diversity and responsibility in food system transition pathways? *Global Food Security*, 24: 100347.

MAPA (2021). «Demografía de la población rural en 2020. Análisis y Prospectiva». *AgrInfo* 31. zk. (2024ko uztailaren 13an egindako kontsulta).

Molina-Zamora, J.L. (2021). «Digitalización agroalimentaria 'Farm to Fork': tiempo de decisiones». *Revista Tesla*, 29; 11.-13. or.

Moodie, J., Teräs, J. eta Tuulia, R. (2017). «Inclusive digitalization in the Baltic Sea Region: An instrument for growth and development in declining rural areas?». *Nordregio Policy Brief* 4. (2024ko uztailaren 13an egindako kontsulta).

Observatorio para la digitalización del Sector agroalimentario (2023). Análisis del estado actual de la digitalización del sector agroalimentario español. Cajamar.

Peña-Acevedo, A.; Mesas-Carrascosa, F.J. eta Gallardo-Cobos, R. (2021): «El valor de la cadena de datos en el sector agroalimentario». *Revista Agricultura*, 1051; 56.-60. or.

Pinilla, V., Sáez, L.A. (2017). «La despoblación rural en España: génesis de un problema y políticas innovadoras». *Informes CEDDAR* 2017-2. Zaragoza: Centro de Estudios sobre la Despoblación y Desarrollo de Áreas Rurales.

YOLANDA GÓMEZ SÁNCHEZ (KOORD.): DESPOBLACIÓN, COHESIÓN TERRITORIAL E IGUALDAD DE DERECHOS, IKERKETA POLITIKO ETA KONSTITUZIOALEN ZENTROA (CEPC)

Nerea Mandaluniz Astigarraga

Neiker


Bárbara Soriano Martinez

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos izeneko liburua 2023an argitaratu zuen Ikerketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroak, eta sarbidea irekia eta doakoa da. Liburuak despopulatzea eta horren ondorioak ikuspegi dimentsioaniztun batetik jorratzen dituzten zenbait ikerketa biltzen ditu, lurralde-, gizarte- eta kultura-alderdiak nahiz ekonomia-, politika- eta gobernantza-alderdiak barne hartuta.

Liburua landa-despopulatzea beren diziplinetatik landu duten erakunde-ordezkar, akademiko eta profesional aditu batzuen lan koordinatuaren emaitza da, eta haiek erronka horri erantzun egoki bat ematea zein konplexua eta beharrezkoa den ikusaraztea lortu dute. Liburuak 10 kapitulu ditu guztira, eta despopulatzearen dimentsio garrantzitsuenekin zuzenean lotutako hiru bloke handitan multzokatu daitezke. Lehenengo blokeak gizarte- eta lurralde-dimentsioa jorratzen du; bigarrenak, berriz, erakunde- eta gobernantza-dimentsioa jorratzen du; eta hirugarren blokeak, azkenik, dimentsio ekonomikoa.

Despopulatzearen gizarte- eta lurralde-dimentsioarekin hasita, despopulatze-prozesuko desoreka eta inekitate sozialen problematika aztertzen da liburuko lehen kapituluan. Kapitulu horretan, hazkunde ekonomikoaren eta gizarte- eta lurralde-proiektzio ekitatiboaren arteko dibergentziaren problematika aztertzen da, desoreka eta desberdintasun sozioekonomiko nabarmenak eragin baititu autonomia-erkidegoen artean edo probintzien eta herrien artean. Bigarren kapituluan sakon azpimarratzen da zein garrantzitsua den lurraldearen antolamendua, despopulatzearen aurka borrokatzeko aukera ematen duten lurralde-kohesioa eta justizia soziala lortu daitezen. Kapitulu horretan, despopulatzearen arazoaren kausa sistemikoak eta arazo hori lehengoratzeko bideak aztertzen dira. Testu



horren bidez argitu egin nahi da nola eskaini ditzakeen alternatibak lurraldearen antolamendupolitikak, landa-espazioen eta barrualdeko espazioen despopulatzearen arazoari irtenbidea emateko, eta hala, lurralde-kohesioaren helburua lortzen laguntzeko.

Bigarren blokeak 5 kapitulu ditu, eta despopulatzearen dimentsio instituzionalarekin eta gobernantza-dimentsioarekin lotutako alderdietan oinarritzen da. Bloke horretako lehen kapituluak *rural proofing* izenekoa (bermerako landa-mekanismoa) aurkezten du, landa-eremuak dinamizatzeko bide bat izan daitekeena. *Rural proofing*a politikek, programek eta ekimenek landa-eremuetan izan ditzaketen ondorioak eremu horien berezitasunak kontuan hartuta aztertzeko aukera ematen duen prozesu sistematiko bat da. Europar Batasuna mekanismo hori sustatzeko ematen ari den bultzadaren aurkezpen batetik abiatuta, nazio-mailan ezarritako lege-ekimenetan sakontzen du artikulua. Hurrengo kapitulua gobernantzan dago oinarrituta, eta despopulatzearen aurkako borrokarekin lotutako

eskumenen banaketa aztertzen du. Horretarako, kapitulu horrek Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lurraldeko botere-banaketa-eredua aztertzen du, bai eta toki-erakundeei eskumenak nola eman ezartzen dituzten printzipioak ere, protagonistak baitira despopulatzearekin lotutako politika publikoen garapenean. Hurrengo kapituluak, despopulatzearen aurkako borrokaren dimentsio instituzionala sendotzeko, nazio-mailan indarrean dagoen legedia (landa-ingurunearen garapen iraunkorra) eta Europar Batasunean indarrean dagoena zehatz-mehatz aztertzen dira. Jarraian, ondorengo kapituluak, tokiko gobernuek despopulatzearen aurkako borrokan betetzen duten eginkizuna aztertzen da. Tokiko gobernuak pertsonengandik hurbilen dauden administrazio publikoak dira, eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko dituzten bide zuzenenak ordezkatzen dituzte. Hala ere, helburu komun bat lortzeko gobernu horiek koordinatzea erronka handia da, Espainian 8.131 udalerri baitaude gaur egun, eta guztien erregimen juridikoak eta eskumenak ez baitira berdinak. Azkenik, bloke honen amaierako kapituluak aztertu egiten da zer zailtasun dituzten udalerri txiki batzuek (hiriaren eraginpeko lurraldean dauden kokapenaren, finantza-gaitasunaren, ezaugarri soziodemografikoen eta abarren arabera) beren eskumeneko zerbitzu publikoak kalitatezko baldintzetan emateko. Landa-eremuetan zerbitzu publikoak behar bezala ematen direla bermatzeko dauden maila anitzeko gobernantza-mekanismoak ere aurkezten dira (tokikoak, probintziakoak, autonomia-erkidegoak).

Azken blokea osatzen duten 3 kapituluak despopulatzearen erronkaren dimentsio ekonomikoa aztertzen da. Lehen kapituluak landa-ingurune garraio- eta mugikortasun-azpiegituren bilakaera, egoera eta etorkizunean oinarrituta dago. Kapitulu hori landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko gaur egungo desorekekin dago lotuta. Izan ere, besteak beste, Espainiako landa-eremuetako biztanleek hirikoek baino hamar aldiz distantzia handiagoa dituzte

oinarrizko zenbait zerbitzu (eskola, osasun-zentroa eta kiroldegia, adibidez), eta horri garraio publikoko zerbitzuen defizita eta azpiegituren kalitate okerragoa gehitu behar zaizkio. Horren ondoren, hurrengo kapituluak pertsonen eta enpresa-ehunari landa-eremuetan eusteko eta haiekin eremu horietara erakartzeko pizgarri ekonomikoak eta finantza-neurriak jorratzen ditu. Kapitulu horretan, despopulatzeari aurre egiteko zenbait neurri aurkezten dira; esate baterako, Estatuak eta autonomia-erkidegoetako zerga-pizgarriak, gizarte-segurantzako kuotetako pizgarriak eta beste finantzaketa-bide batzuk (finantzaketa egonkorreko funtsak, adibidez). Amaitzeko, liburuak azken kapituluak, despopulatzearen aurkako borrokara bideratutako Europako funtsak berrikusten dira. Kapitulu hori oso garrantzitsua da. Izan ere, Europa ezinbestekoa da despopulatzeari irtenbidea emateko, Espainiak Europar Batasuneko Egitura Funtsekiko mendekotasun handia baitu betidanik, lurralde-garapenerako inbertsio handiak eta politikak finantzatu ahal izateko. Mendekotasun hori are nabarmenagoa izan da 2021-2027 aldirako Egitura Funtsen prestakuntzan, landa-despopulatzearekiko kezka horakadarekin bat etorri baita. Aipatutako kapituluak Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin (EGEF) 2021-2027 aldirako azterketan dago oinarrituta, bai eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziako 2021-2026 Planaren azterketan ere.

Beraz, liburu hau kontsultatzea eta irakurtzea gomendatzen dugu. Izan ere, liburuak kapituluak, erronka demografikoaren dimentsioaniztasuna eta konplexutasuna jorratzen dira, eta herritarren eta politika-erabakitzaileen kontzientziak eta ekintza ezinbestekoak direla erakusten da, landa-munduko despopulatze-prozesua lehengoratzeko aldaketa-eragile nagusiak baitira. Aipatutako gaietako adituek modu egokian idatzitako liburu honek despopulatzearekin lotutako gairik garrantzitsuenen berri zenbait ikuspuntutatik izateko aukera ematen dio irakurleari. ■

Nekazaritza

- Arnalte, E. (Koord.) (2006). *Políticas agrarias y ajuste estructural en la agricultura española*. Serie Estudios. Madril. MAPA.
- Baptista, F.O. (2021). *Agricultura, terra, rural. Tempos de mudança*. Castro Verde, 100LUZ.
- Benton, T.G. et al. (2003). «Farmland biodiversity: Is habitat heterogeneity the key?» *Trends Ecol. Evol.*, 18, 182.-188. or.
- European Commission, Directorate-General for Environment (2023). *Impact assessment study to support the development of legally binding EU nature restoration targets : final report. Annex 3, Ecosystem specific assessments*. Publications Office of the European Union.
- European Commission (2024). *Strategic Dialogue on the Future of EU Agriculture. A shared prospect for farming and food in Europe*.
- Fundación de Estudios Rurales (2023). *Anuario 2023. Agricultura y ganadería familiar en España*. 30. edizioa. UPA.
- Gallardo-Cobos, R., Sánchez-Zamora, P. (2022). «Retos y oportunidades de la digitalización en el medio rural». In Moyano, E. (Koord.). *La España rural: retos y oportunidades de futuro*. Mediterráneo Económico. Ed. Cajamar
- Gallardo-Cobos, R., Sánchez-Zamora, P., Lara-Vélez, P., Gonzaga, L., García Torrente, R. (2024). «Retos de la digitalización para el sector agroalimentario». In Sanchez, M. (Koord.). *Retos económicos en alimentación: la sostenibilidad, los precios y la innovación*. Papeles de Economía Española 179. Ed. Funcas.
- IPBES. (2019). *Global assessment report on biodiversity and ecosystem services*. Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services. IPBES secretariat, Bonn.
- MAPA (2019). *Estrategia de digitalización del sector agroalimentario y forestal y del medio rural*. Ed. MAPA.
- MAPA (2022). *El Plan estratégico de la PAC en España (2023/2027). Resumen del Plan aprobado por la Comisión Europea*. Ed. MAPA.
- Matthews, A. (2022). *Tracking structural change in EU agriculture*. capreform.eu.
- Oñate, J.J., et al. (2013). «Sostenibilidad ambiental y ecológica de la agricultura española». In Gómez-Limón, J.A. eta Reig, E. (Argit.). *La sostenibilidad de la agricultura española*, 155.-202. or. Cajamar Caja Rural
- Purseigle eta B. Hervieu (2024). *Una agricultura sin agricultores*. Cajamar.
- Rosell, J., Viladomiu, L. eta Soldevila, V. (2023). *Fondos de inversión en el sector agroalimentario. Una primera aproximación al caso español*. Comunicación al XIV Congreso de la Asociación Española de Economía Agraria, Zaragoza, irailak 6-8.

Landa-mundua

- Camarero, L., Serrano, J. O. (2021). *Hidden disparities in rural transition: cosmopolitanism, socioeconomic decline and accessibilities*. *Ager: Revista de Estudios sobre Despoblación y Desarrollo Rural*, 32, 65.-92. or.
- Camarero, L. (2023). «Brecha Rural: despoblación, accesibilidad, movilidad y ciudadanía». In Camarero, L., Moscoso, D. (argit.). *Estudios Agro-Rurales*, MAPA, Madril.

- Chmieleński, P., Wieliczko, B., Miller, D., Stjernberg, M., Chartier, O. (2021). *Change in production and diversification of the rural economy. SHERPA Discussion Paper*.
- De la Cuadra-Salcedo, T. (2023). «Distribución de competencias y reto demográfico: algunas cuestiones generales». In Gómez Sánchez, Y. (koord.), *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (157-168). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- European Parliament (2016). *Short food supply chains and local food systems in the EU*.
- Farinós Dasí, J.; Olcina Cantos, J. (2022). *Ordenación del Territorio y Medio Ambiente*. Tirant Humanidades, Valentzia.
- Hermann, S. (2010). *Campeones ocultos del siglo XXI*. Wolters Kuwer, Madril.
- López Escolano, C. (2023). «Infraestructuras de transporte y movilidad en la España rural. Trayectoria, situación y perspectivas». In Gómez Sánchez, Y. (koord.), *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (263-306). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Molina, M.; Hernando, F. (2022). «¿Por qué nos deben interesar los territorios despoblados y desfavorecidos de la España interior?». In Martínez Cárdenas, R., et al. *Leyendo el Territorio. Homenaje a Miguel Angel Troitiño*. Universidad de Guadalajara, Guadalajara, 440.-455. or.
- Molina, M.; Hernando, F.; Pérez-Campaña, R. (2023). *La España despoblada ante los nuevos desafíos: La respuesta ciudadana en las urnas*. Aranzadi.
- Moyano, E. (2020). «Discursos, certezas y algunos mitos sobre la despoblación rural en España». In *Panorama Social*, 31, 33.-45. or.
- Moyano, E. (2021). «La Agricultura española, entre el reconocimiento, el malestar y la oportunidad». In *Economistas*, 171, 55.-63. or.
- Pazos Vidal, S. (2023). «Despoblación y fondos europeos». In Gómez Sánchez, Y. (koord.), *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (335-389). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Perez Yruela, M.; Sumpsi, J. M.; Bardaji, I.; Giménez Guerrero, M. (2000). *La nueva concepción del Desarrollo Rural: Estudio de casos*. Colección Politeya. Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), Madril.
- Santiago, D.; De Nuccio, A. (2023). «La prestación de servicios públicos locales en zonas despobladas o en riesgo de despoblación: retos y oportunidades». In Gómez Sánchez, Y. (koord.), *Despoblación, cohesión territorial e igualdad de derechos* (201-262). Centro de Estudios Políticos y Constitucionales. 2023.
- Soriano, B.; Bardaji, I., Folkesson Lillo, C. (2023). *Empowering rural areas in multi-level governance processes*. MAP POSITION NOTE.
- Sumpsi, J. M. (2002). «La política agraria y rural de la Unión Europea». In Sumpsi, J. M.; Pérez Correa, E. (argit.), *Políticas, instrumentos y experiencias de desarrollo rural en América Latina y Europa*. MAPA, FODEPAL eta AECE. Madril, 2002, 123.-147. or.
- Velasco Caballero, Francisco (2022). «Despoblación y nivelación financiera municipal en el marco de la Carta Europea de Autonomía Local». In *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica*, 18, 6.-31. or.

MgE DOSIERRAK

1. dosierra: [«Garai berriak garapenaren nazioarteko lankidetzarako»](#), 2011ko apirila.
2. dosierra: [«Mundua kontsumotik aldatzea?»](#), 2011ko uztaila.
3. dosierra: [«Itzalak mikrofinantzetan»](#), 2011ko urria.
4. dosierra: [«EGE krisiaren aurrean»](#), 2012ko urtarrila.
5. dosierra: [«Garapenerako lankidetzak krisi-garaian. Eragile berriak, helburu berriak»](#), 2012ko apirila.
6. dosierra: [«Krisia, herritarren haserre eta gizarte-mugimenduak»](#), 2012ko uztaila.
7. dosierra: [«Beste politika ekonomiko bat posible al da?»](#), 2012ko urria.
8. dosierra: [«Banku etikoa posible al da?»](#), 2013ko urtarrila.
9. dosierra: [«Desberdintasuna eta gizarte-koehesioaren haustura»](#), 2013ko apirila.
10. dosierra: [«Elikagaien segurtasuna: Eskubidea eta beharra»](#), 2013ko uztaila.
11. dosierra: [«2015 ondoko garapen-agenda: Lehenengo bidetik edo trantsizioaren hasiera?»](#), 2013ko urria.
12. dosierra: [«Ekonomia lankidetzan»](#), 2014ko urtarrila.
13. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago»](#), 2014ko udaberria.
14. dosierra: [«GEK: Erretorika gaitzitzeko»](#), 2014ko uda.
15. dosierra: [«Ekonomiaren irakaskuntza»](#), 2014ko udazkena.
16. dosierra: [«Prokomuna eta ondasun erkideak»](#), 2015eko negua.
17. dosierra: [«Garapenaren finantzazioa eta 2015 ondoko Agenda»](#), 2015eko udaberria.
18. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(II. jardunaldiak\)»](#), 2015eko uda.
19. dosierra: [«Gizarte-bazterketak»](#), 2015ko udazkena.
20. dosierra: [«Zerga-sistema: efizientzia eta ekitatea»](#), 2016eko negua.
21. dosierra: [«José Luis Sampedro gogoan»](#), 2016 2015eko udaberria.
22. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(III. jardunaldiak\)»](#), 2016eko uda.
23. dosierra: [«Ongi bizitzea, gizartearen paradigma alternatibo gisa»](#), otoño 2016ko udazkena.
24. dosierra: [«Energia. Erronkak eta arazoak»](#), 2017ko abendua.
25. dosierra: [«Genero-ikuspegia ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2017ko udaberria.
26. dosierra: [«Gure gizarte- eta ekonomia-ereduari buruz berriro pentsatzen»](#), 2017ko uda.
27. dosierra: [«Inpaktuko inbertsioa»](#), 2017ko udazkena.
28. dosierra: [«Globalizazioaren gobernu»](#), 2018ko negua.
29. dosierra: [«Ekonomia feminista: ikusezina ikusgai egiten»](#), 2018ko udaberria.
30. dosierra: [«Begirada kritikoak eta zeharkakoak»](#), 2018ko uda.
31. dosierra: [«Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko praktikak eta tresnak: partekatutako gogoeta bat»](#), 2018ko udazkena.



32. dosierra: [«Enpresako Demokrazia Aldarrikatzen»](#), 2019ko negua.
33. dosierra: [«Elikaduraren etorkizuna munduan»](#), 2019ko udaberria.
34. dosierra: [«2030 Agenda: gatopardismoa edo transformazioak»](#), 2019ko uda.
35. dosierra: [«Gizarte erantzukizun korporatiboa Elikagaien industrian»](#), 2019ko udazkena.
36. dosierra: [«Demografia: aldaketak ugalketa-ereduan»](#), 2020ko negua.
37. dosierra: [«Ekonomia zirkularra: aukera burutsua»](#), 2020ko udaberria.
38. dosierra: [«Funtsezko ekonomia: Herritarren ongizateari laguntzen»](#), 2020ko uda.
39. dosierra: [«Ekonomiaren Oligopolizazioa»](#), 2020ko udazkena.
40. dosierra: [«Espainako ekonomiaren ekoizpen-eredua berrantolatze bidean»](#), 2021ko negua.
41. dosierra: [«Garapena» Neurtu \(Eta Ulertzeko\) Beste Modu Batzuk»](#), 2021ko udaberria.
42. dosierra: [«Gizarte digitala, itxaropenak berreraikitzen»](#), 2021ko uda.
43. dosierra: [«Europa, pandemia eta krisi ekonomikoa»](#), 2021eko udazkena.
44. dosierra: [«Covid-19: ondorio sozial eta politikoak eta erantzuteko politikak»](#), 2022ko negua.
45. dosierra: [«Finantza Jasangarriak: Inbertsioaren Paradigma Berria?»](#), 2022ko udaberria.
46. dosierra: [«Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako»](#), 2022ko uda.
47. dosierra: [«2030 Agenda eta Ezinbesteko Paradigma-Aldaketa Unibertsitatean»](#), 2022ko udazkena.
48. dosierra: [«Enpresa-Eredu Berriak Eta Demokrazia Ekonomikoa»](#), 2023ko negua.
49. dosierra: [«Finantza-sistemaren digitalizazioaren erronkak»](#), 2023ko udaberria.
50. dosierra: [«Ekonomia espainiarra bidegurutze kritikoan»](#), 2023ko uda.
51. dosierra: [«Ekonomiaren eraldaketa digitala: lanean dituen eraginak»](#), 2023ko udazkena.
52. dosierra: [«Bidezko Trantsizio Ekosoziala»](#), 2024ko negua.
53. dosierra: [«Zilarrezko ekonomiari buruzko ikuspegi kritikoa»](#), 2024ko udaberria.
54. dosierra: [«Ekintzailetzaren egungo erronketarako estrategiak, aliantzak eta irtenbide kolektiboak, ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2024ko uda.
55. dosierra: [«Etxebizitza bat eta hiri bat izateko eskubidea: panoramika bat»](#), 2024ko udazkena.





Laguntzailea



Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50 (sarrera SETEMen
lokaletik barrena)
28015 • Madril
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOLo, Harrobi Plaza, 4,
48005 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org